

KONTU ZAARRAK

AZALEAN: Ergoneko Salseko Filipe Arratibel

José Arratibel

KONTU ZAARRAK

José Arratibelek
Ataungo ergonen entzun eta jasoak



Itzaurrea : Latxagak



EDITORIAL
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
BILBAO, 1980

ITZAURREA

ERGOYEN auzoa, bide ertze batean dagola ezin uke. Erreka, alai bezin garbia "Agauntza" izenekoa, auzoaren atzetik dijoakio jauzika.

Etxeak, erreka gainaldera, erregebide inguruan geienak; basetxe batzuek ezker eskubi mendi magalean. Aipatu ditzazkegu etheen izenak, sendoak eta maitasunez apainduak. Betik gora asita; *Gomesalse-Sorkoin-Arbeldizarra-Mitxelena-Arbeldiberri-Arrotegi-Katarrotegi-Aministrazio-Urbitarte-Iturbe-Sariarteazpikoa-Sariartegarako-Salseandralizeta-Igondobarrena-Atxurrena-Zumardi*.

Ibar zelaitxo ori, mendiz inguratua daukagu; sartaldetik, *Moñotxogaiñe*, sortaldera berriz, *Malda-Lizaikoaitza-Amunda-Aldatsa* gallurrak erne ta zorrotz asko.

Berebillez, Naparroa'ko bidea artzen dugula, berealaxe auzo tarte ori, begi ixte batean igaro. Berez Ataun'go auzo txiki bat dugu menditar-tean, baiñan Naparroa'ko mugaruntz ez azkena, oraindik Aya gelditzen zaigu ta ortxen iltzen da Gipuzkoa.

Auzo ortan, euskarak iraun du bizirik gizaldietan, etxetan, lanean, mendian, ametsetan, baita aurren ipuietan.

Lañoak josi dula erria ikusi bear; izadiak gizabizitzarekin bat egiten du. Alkarizketan dabiltzen itxura. Biek beti dantzan. Artazuriketa garaian, illun eta argi, irriz eta pozik itz eragiñez,

gizona izadiarekin sendi batean alkartzen da. Orrela oroitzapenak betiko gogoan.

Giro ortan sortuak daude gure ipuiak: illuntasunatik etsaiak, argitik itxaropenak, mendizuloetan galtzailleak, jauregietan edertasuna ta zoriona. Aurren pensakera ludi bizi ortan gozaten da. Itxaropenak, bizirik ametsetan agertzen ditu. Mailla ortan, indarrez beterik, eskuratzen du izkuntza ondo moldatua ta borobildua ta... gaiñera betirako amets oiek oroipen zoragarriak gelditzen zaizkio, bizitasun berexi baten ezaugarriak.

SARRIARTEGARAKOA etxean jaioa dan Aita Jose Arratibel, bertako seme bateri esker, auzo ortako ipui xorta, baita beste berri batzuek dakizkigu. Eliz gizon au gazterik Lazkao'ko beneditarregana joan zen, gero Ameriketara egonaldi luzea egin zuen. Azkenean Estibalitz'en idatzi ditu, aurtzaroan bere auzo ortan entzundako ipuiak. Gizon alaia dugu, gozoa, euskaldun zintzoa, praile zuzena.

Gure euskaldun lekaidea, kontalari bikaiña dugu gaztetatik. Bere ogei urtekin gaztetxoak biltzen ditu ta ao zabalik uzten ipui auekin. Ogeitamar urte geroago idazten ditu ipui ezaugarrienak. Gozo gozo jasotzen ditu. Ortzen alkar ezagutzen dugu. Dan danak biltzeko esaten diot. Burutik, urrundik asita, poliki poliki, bortxatu gabe ateratzen zaio ari luzea, mutur batek bestea ekartzen dula. Ara emen, ari ori lokarri egiña.

Ipuiak ez dira laburrak edo laburtuak, entzundakoak bezala, bizi bizirik baizik. Oso osorik daudelako obeto ulertzen ditugu ta askoz ere ezagutzen auzo ortako elkartearen izkuntza ta giroa.

Ipui auei esker, ondo ezagutzen ditugu bazter ortako aurren iduri ametsak eta izkuntza ere bizirik agertzen zaigu, egiten duten bezalakoa.

Ipui auen izkuntza aberatsa dala aitortu bear. Joskera errexa baiñan benetan liraiña, ondo josia, bitxi bat. Itzak, esaldian egokitzen zaien tokia artzen dute eta dan danak euskal kutsu ederra daukate, euskararen senari dagokiona. Joskera ori berez, legun, lirain ateratzen da mordollorik gabe, ikuspegiaren garbitasunarekin.

Itz batzuek gure gureak diralako ta egokiak aipatzen ditugu. Ikusten dugunez, errian bizirik daude: "aztoratu, tekela, esakatu, aserre, erraiña, lokuz, izua, lukurra eta abar". Esaldi labur batzuek

berriz zorionezkoak, barren barrendik lotuak: “geroz geiago”, “bere onera etorri gabe” eta abar. Ika aditza nolaini ateratzen zaio, oso errax, errian bizirik dagolako: “netiñan, zetuat, diñea, eta abar”. Ipuiak gaiñera oso zuzenean datozkio, etzaizkio beti esaldi berdiñak ateratzen. Asmoekin batean, itzak ere berritzen zaizkio. Orrela ipuia berez sortzen zaio; asmoa berritzen eta izkuntza asmoaren morroi, arin, gelditu ta nekatu gabe datorkio mingañera.

Ipui auen bitartez, auzo ortako iduri ametsak nolakoak diren ezagutzen ditugu. Geienetan ipuiaren ardatza beartsua da, gero zerbaiteri esker bere giro illun ori aldatzen duna. Beartsuari, elburutuk baztertzeke, etsaia agertzen zaio; gizona bere onera etortzen uzten ez dutenak. Oztopoak eta korapilloak ugari asmatzen dituzte. Ipuiaren ardatza erabiltzalea ortxen dijoa korapillo danak askatzen, bat bestearen ondotik. Oztopo oien lokarria, batzuetan, luzea da; adibidez, ortxen dugu “Txerri beltza” ta “Txomin ipurdi”.

Geienetan, etsai edo erailleak sorgiñak dira. Sorgin geienak berriz atso zarrak, geiegi dakitenak eta gaztei gauz txarrak egiñarazten poztutzen diranak. Orrekin ez dugu esan nai sorgin danak emakume zarrak diranik, ezta gutxiago ere.

Sorgiñak nolako gizartea agertzen diguten jakiteko, ipui aue-tan ba dugu gaia ugari. Maiz esaldi berexi batzuek berez indarra dakarte, ekintzaren giltza bezala dabilkite. Adibidez: “Nere txerria jan uan ta pagazak”, “Kontentu nagusi”, “Sasi guzien gañetik eta laño guzien azpitik”, “Morena beltza ta niñatxo”, “Abrite portas klisklas” eta abar. Sorgiñen tresnak ere ba dakizkigu nolakoak diran; belarrak, animalia ezurrak, ontziak, orratzak, lapikua, animalia ta kristau aragiaren salda. Bizidun batzuek ere begiramen txarrekoak dira, adibidez: txerri beltza, katu beltza edo armarma. Txarkeriak iraultzeko ortxen dago ur bedeinkatua.

Zeñen garrantzitsuak diren izenak, aintzina garaiko gizonarentzat, “Neskame Sorgiña ta Jentille” delako ipuiak agertzen digute. Izen zuztarren bilduma egiteko, ortxen ditugu bizpairu zoragarriak: “Xarpaxarri” “Neuk-Neuri”... Ipui-ametsa oietatik zarrena neretzat, jentil garaikoa, “Txomin ipurdi”. Tankera, kristau garaiaren aurrekoa ematen diot. Sasijainko batez mintzatzen zaigu. Berak indar danak garaitzen ditu ta ori ipurdia, nolainai-

koa ez dulako, ikaragarria baizik. Gizon arrigarri orren iduria, oso aintzin garaikoa dugu.

Beste ipui xortak berriz, zerbait egitan gertatutako eginkizuna agertzen digu ta orregatik edesti batean oñarritzen zaigu: "Goñi'ko Zalduna", "Aingeru Guardakoa" adibidez. "Goñi'ko Zalduna'ri" buruz, Aralar'ko San Migel delako nere liburuxkan zerbait agertzen nuen. Bizpairu garai ezberdiñako zatiak ditugu batean alkartuak. Erensugearen aztarnak zarrenak, bakartiarra edo zerulea otoitzean, kristautasuna Euskalerrian sartzeko garaikoa ta Goñi'ko Zalduna berriena, beste gai guztien ardatza. Emengo bilduman azaltzen diguten ipui onen bukaera, guretzat berria da, beste iñun ikusi ez duguna: elizako kanpaiak ditugu, laguntza berexi ta zoriontasunaren ezaugarri.

Bitxi txiki bat, erri jakintzaren maillan, ez nolanaikoa, "lectio epistolea" bat, doñu ta guzti. Idazki jakintza maillan, lenago Euskalerrian bilduak daudenak aberastutzen ditu. Idazki gai auxe bera, Idazdeunan agertzen zaigu, ez da ba gaurkoa. Euskalerrian, geiago bildu gabe öte dauden jakitea merezi luke, gero dan danak lana batean, bear bezala argitaratzeko. Orixe'k, "Euskaldunak" delako poema liburuan agertzen digu bat, Vinson'ek bestea "Folklore Basque" liburuan, Azkuek bizpairu "Euskalerraren jakintzan" ta nik bestea Olague'n bildua ta "Naparroa euskal arrobia" liburuan jaso.


"Blanca Nieves", errian erabilitako itzulpena dugu, baiñan joskera aldetik bikaña. Orrexek berak asko aberastutzen du emen daukagun ipui xorta.

Azkena idatzia, Pernandoren kontu ezezaguna, beste iñun agertzen ez dana. Gure erri-gizon onen ipui-bilduma osotzen diguna. Ortan ere bitxi bat geiago gure Pernandoren nortasuna antropologia aldetik, landu nai dutenentzat. Iru zati dauzka: aitzurra, erbia, txilibitua.

Ipui bilduma onek ba du beste argitasun berexia. Orain arte, bildumak, emen eta an, Euskalerriko bazter guztik artuak zeuden, emen berriz dan danak toki berexi batekoak, ez genuke esango erri batekoak dirala, auzo batekoak baizik. Orrekin "Gure Ama Lurraren" zati bateko izkuntza ta amets iduriak, batean, nolakoak diran ikusten ditugu. Orrela gizarte batean jakintza obeto ezagutzen dugu ta orrekin ez da mesede makala egiten zaiguna.

Gaiñera, ipui xorta au, laguntza aundi bat da, gure ikastoletako aurrak, erriaren euskara ta aurtzaroaren giroa ikasteko. Ametsik gabeko aurrak ez dago, ezta ere gurasoen izkuntzarik gabeko umerik. Ipui auek, gizarte luzeko aur guzien iduri ametsak dira ta lokarri ortan dago josia gure izakera ta izkuntza.

LATXAGA



Ergoneko Auza

GOÑI'KO ZALDUNAREN KONDAIRA

BERE AITA ETA AMA ILTZEN DITU

Goñi'ko Zalduna atera zan etxetik eta joan zan mendira eizea zijoan aitzakian. Bazuan bildurra bere emaztea ez ote zan erabat berea. Mendian zebillela, azaldu zitzaion ondo jantzitako gizon bat esanez:

—Zer zabiltz zu emen denbora pasatzen zure etxean gauz ikaragarri bat gertatzen dan bitartean?

—Zer bada?, erantzun zion zaldunak dana arrituta. Ez zuan ezagutzen ezertarako gizon ura.

—Zu emen zabiltzan bitartean, zure emaztea beste gizon batekin etzanda dago zure oian.

Ondo jantzitako gizon ura Etsai zarra zan, ta Goñi'ko Zalduna ondatzea nai zuan.

Leen barruan zeukan kezka, ta orain ori entzutean, Zalduna sutu zan, ta itsu itsuan etxeratu zan. Juan zan berak emaztearekin lo egiten zuan oia ikustera, ta an gizon bat eta emakume bat ikusi zituanean, artu bere ezpata ta bieri lepoa moztu zien.

Etxetik ateratzera zijoala bere emaztea zetorren errara ura buru gaiñean zekarrela. Emaztea orrela ikustean, Zalduna arri eginda gelditu zan.

—Zein zeuden gure oian?, galdetu al izan zuan.

—Aita eta ama jarri ditut beroago egon ditezen, erantzun zion emazteak.

—Il ditut bada nik -esan zion Zaldunak-, odolez bustitako ezpata urrutira botaz.

Emaztea ondoeza egin, eta bertan erori zan.

ERROMA'RA

Goñi'ko Zalduna apaizarengana juan zan berak egin zuan pekatuak barkaziorik izan zezakean galdetzera.

—Nik ez daukat eskubiderik bere aita ta ama il dituanari barkazioa emateko -esan zion apaizak- mundu ontan bat besterik ez dago pekatu ori barkatu dezakenik: Erromako aita Santua.

Goñi'ko Zalduna, etxera ere itzuli gabe, bere barru guzia kiskaltzen zeukala, bereala artu zuan Erromako bidea.

Batzuetan oñez, beste batzuetan zaldiren batean gaiñean, belar zañak edo ezkurren batzuk janez, ez zan nai orduko Aita Santuarengana iritxi.

PENITENTZIE

Zaldunak bere pekatua esan zion Aita Santuari ta onek barkatu zion pekatua, baño, penitentzi gogor bat eman zion.

—Zoaz -esan zion-, kate aundi bat lotuko dezu zure gerrian, puska bat lurrean arrastaka dezula. Kate ori urratu edo autsi arte etzera iñorengandik ikusten utziko, ezta ere iñorekin ez dezu itzik egingo.

Goñi'ko Zaldunak Erroma'n bertan egin arazi zuan kate lodi ta luze bat bere gerrian lotzeko. Aita Santuak emandako Penitentzi ori betetzeko, bere erri inguruan zeuden mendi aundi batzuk egokiak izango zirala iruditu zitzaion.

Orrela berriz Erroma utzi ta juan zan eran itzuli zan, Aralar mendira, an bakardadean penitentzie betetzeko.

Urte askoan bizi izan zan Goñi-ko Zalduna aralarren penitentzi egiñaz. Animalien bizitza eramaten zuan, belarra, gaztañak eta ezkurra janez. Jantziak eta oñetakoak bereala autsi zituan, baño

ille aundi bat sortu zitzaion bere gorputz guzian. Katea beti arras-taka zebillen ta gerrian barrua sartuta, azal berria gañetik eginda. Kateak ots aundia ateratzen zuan ta bera inguratzean, pixti gu-ziak iges egiten zuten.

IRAUN SUGEA

Garai artan azaldu zan Aralarren Etsai zaar bat suga, aundi ba-ten antzean. Suga ori inguruko errietara jexten zan goseak zego-
nean ta ase ala kristau jaten zituan. Erri guziak ikara gorrian
bizi ziran ta elkarrekin bilduta erabaki zuten, obe zala illean
bein edo, bat mendira sugeak jateko juatea, sugea errietara jetxi,
ta asko ondatzea baño. Izendatu zituzten erri bakoitzetik zenbat
juango ziran sugeak jateko, orrela errietan pake pixka bat izan
zezaten.

Erri bakoitzean suertea botatzen zuten irauñ sugearengana
juateko. Ta bein, erri batean, bi alaba gazte zeuzkan aita alargun
bati tokatu zitzaion.

Bi alabak negarrez juan ziran aitarengana:

—Zu etxe ontan bearrezkoa zera, aita, zu gabe zeinek lanak
egin, abereak zaindu ta etxea aurrea atera?

Aitak esan zien berari tokatu zitzaiola ta berak zeukala juan
bearra, bestela sugea asarratu egingo zala ta ezbearrenbat egingo
zuala. Bañan bi alabak berean zeuden ta erri guzia bildu erazi
zuten erabaki bat artzeko. Erriak erabaki zuan berdin izango zi-
tzaiola sugeari aita edo alaba izan, norbait juan ezkeru. Orrela,
bada, eguna iritxi zanean, alaba aietako bat igo zan Alar mendira.

ZALDUNA TA SUGEAREN BURRUKA

Iraun sugeak, mendi tontor batean zeukan bere leizea ta ara
juaten ziran ark jan bear zituanak. Neskea ere iritxi zan toki ar-
tara ta leize ondoan eseri zan. Sugea noiz azalduko zegon bitar-
tean, eta zer egin ezekiala, illeak orrazten asi zan.

Ortan ari zala ots bat entzun zuan bere ondoan, animaliren-

bat bazetorren bezela. Begiratu zuan otsa zetorren tokira, ta, erabat ikaratuta gelditu zan izugarri bat ikusi balu bezela.

—Ez ikaratu, gazte -esan zion izugarri antzeko arrek- itxura ontan ikusten banazu ere, zu bezelaxe kristau bat naiz.

Neskea zerbait lasaitu zan itz aiek entzutean, baña bere larritasuna erabat utzi gabe.

Azaldu zan ura, Goñi'ko Zalduna zan, gerritik katea arras-taka zuala, bere ibillera batean an gertatu zana. Naiz galarazita eduki iñor ikustea edo iñorekin itz egitea, ain arrigarri iruditu zitzaion neska ura an ikustea, besterik pentsatu gabe edo bere buruaren jabe izan gabe, izketan asi zitzaion esanaz:

—Zer egiten dezu emen edo ta zertan zaude bakardade ontan?

—Ola ta ola, erantzun zion neskeak, gure errietara suge aundi bat jeixten zan, ta an kristau asko iltzen zituan. Ori gertatu ez zedin, illean bein edo onera bat etortzeko erabakia artu zuten, sugea errira jetxi ez zedin. Gaur gure aitari tokatzen zitzaion, baño aren orde z ni etorri naiz.

Arrituta gelditu zan Goñi'ko Zalduna itz auek entzutean ta bereala esan zion neskeari:

—Zoaz zure etxera, gaur ni geldituko naiz emen suga orrek jateko.

—Ez -esan zion neskeak- zoaz zu emendik, bestela biok jango gaitu edo ta errira jetxita txikizioarenbat egingo du.

—Nik burruka egin bear dut suge orrekin; ez dakit zergatik, baña uste det Jainkoak ekarri nauela toki ontara.

Orrela Goñi'ko Zalduna ta neskea elkarrekin izketan ari zira-la aize bolara ots bat entzun zan leizetik ateratzen ta bereala suga buruaundi bat bi begiak txinpartak botatzen zituztela.

Sugeak Goñi-ko Zalduna ikusi zuanean deadar egin zion:

—Irekin etzeukeat nik zer ikusirik, aldegitzak ortik.

—Gaur nerekin bearko dek erantzun zion Zaldunak.

—Esan diat, -zion etsai zarrak- aldegitzak ortik!, bestela biok jango zaituztet.

—Gaur nerekin bearko dek!, -zion berriz Zaldunak. —Zu kendu emendik-, ezan zion neskeari.

Etsai zarra aspertu zan tekela ontan, ta, sua begietatik zeriola, Zaldunaren gañera abiatu zan tragatu nairik.

Goñi'ko Zalduna ta sugea biak burruka gogorrean asi ziran, berealdiko kate ta ortz otsa atereaz. Biak ziran gogorrak eta ezin zuten batak bestea azpiratu. Goñi'ko Zaldunak, geiago ezin zeza-keala irauñ burruka artan, ta bere burua galtzea zijoala ikusi zuanean, zerura begiratu, deadar egin zuan:

—Migel, lagundu idak!

Zeruan Jainkoak Migeli esan zion:

—Migel, deia dek mundutik.

—Nola juango naiz ni mundura, ez daukat egalik eta, erantzun zion Migel'ek.

—To egalak eta to ezpata ere, ta oa lenbailen mundura -esan zion Jainkoak.

Migel'ek jantzi zituan egalak, artu zuan ezpata, ta berealaxe zan munduan. Goñi'ko Zaldune ta etsai zarra burrukan ikusi zituan, artu ezpata, eta golpe batean ebaki zituan sugearen lepoa eta Zaldunaren katea. Burruka garaian, Zaldunaren katea, etsai zarraren lepoan bildu zan.

Neskeak, burruka gogor ura dana ikusi zuan. Batzuek esaten dute ikaraz leartuta, bertan il zala. Beste batzuek berriz, errira jetxi zala ta gertatutako guzia kontatu zuala.

GOÑI'KO ZALDUNA BERE ETXERA

Goñi'ko Zalduna, bere katea ausita ikusi zuanean, amets batetik esnatu bazan bezela gelditu zan. Bereala pentsatu zuan penitentzia bete zuala ta bere etxera juan zitekeala, emaztea bizi ote zan edo ikustera.

Illuntze batean iritxi zan bere etxe ondora, ta biotzak dardar egiten ziola, jo zuan etxeko atea. Emaztea atera zitzaion zer nai zuan galdezka.

—Gaur gauerako ostatua nai nuke al balitz, erantzun zion Zaldunak, bere emaztea ondo ezagutuaz.

Emazteak ez zuan bere senarra ezagutu, ta orrela esan zion:

—Sartu zaitte, gurea ere bada nunbait.

Apaldu zuten ta oirako jarri ziranean, Zaldunak eskatu zuan bera, koarto batean, bakarrik jartzeko, al baldin bazan beintzat.

Ta, bazeukatela koarto bat batentzat bakarrik, eta antxe jarri zuten.

Ortxe gau erdi ingurua zanean, erriko kanpai guziak dilin, dalan... asi ziran jo ta jo. Erriko jende guzia esnatu zan ta asi ziran batetik bestera, zer gertatzen zan jakin naiean. Etxe guziak ikusten asi ziran ta, juan ziran Zaldunaren etxera ere, an ezer gertatzen ote zan galdetzera.

—Emen ez daukagu ezer, atera zan Zaldunaren emaztea.

Berriz ere galdetzean, iñor kanpokorik edo etorri ote zan:

—Atzo illuntze aldera etorri zan gizon basati itxurako bat ostatu eske, baño oira juan zan, ta lo dago.

Erri guziak ikusi nai izan zuan zein izan zitekean gizon kanpotar ura, ta naiz Zaldunaren emazteak ez nai izan, nun jarri zuen koartoa erakusteko agindu zioten.

Atea zabaldu ta koartora sartu ziranean, danak arrituta gelditu ziran ango argitasuna ikustean. Lau kandela aundi zeuden piztuta leio ondoan, ta zalduna oiaren gaiñean zegon, luze-luze etzanda, ilda. Buru inguruan koroï eder bat zeukan, ta argitasun aundi bat botatzen zuan. Eskuetan, berriz, luburu txiki bat zeukan ondo estututa. Bata ta bestea asi ziran libururu ura kendu naiean, baño iñork ezin zion kendu. Etorri zan zioten apaizari ere, baño onek ere ezin kendu izan zion. Bitartean erriko kanpaiak, tilin, talan... ixildu gabe ari ziran, geroz azkarrago ta ots aundiagoan. Azkenean, Zaldunaren emaztea ere asi zan liburu ura kentzeko asmoan, ta ikutu orduko, ildakoaren eskuak zabaldu ziran, ta liburua emaztearen eskuetan gelditu zan. Une artantxe ixildu ziran kanpaiak. Asi ziran ikusten liburuak zer ote zekarren ta andixek jakin zuten ildakoa, Goñi'ko Zalduna bera zela, nola beren aita ta ama ilc, eta Erromara juan bear izan zuan. Zer penitentzi gogorra jarri zioten an, eta nola bete zuan bakardadean, iraun sugeari lepoa ta kateari malla San Migel'ek ebaki arte.

Erri artan pesta aundiak egin zituzten. Zalduna enterratu zutenean, kanpaiak bere kasa jo ta jo asi ziran. Orduetik, urtero urtero, kanpai oiek bere kasa jotzen zuten, egun orren urte mugea iristen zanean.

TXERRI BELTZA

Erri batean bizi ziran ama alargun bat eta bere seme bakarra. Seme au motil aundia zan, baño erritar guztiak erdi txorotzat zeukaten.

Ama semeak biak oso beartsu bizi ziran, naiz eta zerbait lan egin bai etxean eta bai kanpoan ere. Onak ziran eta erri guztiak maite zituan. Etxean bazituzten ollo ta txerri batzuek, baño oiek ezer gutxi ziran, bizitza aurrera ateratzeko.

Bein izan zuten txerri bat, oso beltza zana jaiotzetik. “Txerri beltza” jarri zioten izena. Txerri ori azi zanean, saltzea erabaki zuten, naiz eta oso maitea izan, etxean bertan jaio ta azia zalako.

PERIA

Erri ura oso txikia zan ta bertan ez zegon txerria saltzerik, an ez zan peririk egiten. Orregatik, txerri beltz ura saltze ezketoz, iru edo lau orduko bidea zegon beste erri aundiago batera juan bear zan.

Amak eta semeak biak itz egin zuten ta azkenean semeak esan zuan berak txerria perira eramango zuala ta an saldu.

Orrela, goiz batean oso goiz, beretzako jana sorbaldan ta txerriarentzat artale batzuek eskuan zituala, atera zan etxetik gure motil txorora, txerri beltza aurretik zuala.

Ama ez zitzaion ixildu izkutatu zan arte:

—Kontuz ibilli beintzat seme, iñork ez dezaidala txerria arrapatu.

Eguna zabaltzen asi zanean, motilla ta bere txerria, mendi aundi baten zear aurrera zijoazen.

Bazeramazkien bi ordu edo bidez bide zijoaztela, toki zelai batera iritxi ziranean. Baztar guztiak arbolaz beteta zeuden, eta ez zan ikusten etxe bat ere.

Motilla orrela zegola, berak batere uste gabe, emakume haar bat inguratu zitzaion pitxar bat eskuan zuala.

—Egun on, -esan zion- goiztar zabiltz. Nora daramazu txerri eder ori?

—Perira -erantzun zion motillak- diru pixka bat artzen ote dedan edo.

—Ondo, ondo -esan zion atso zaarrak- emen zauden bitartean ur pixka bat ekarriko al didazu pitxar ontan, nik baño anka ariñagoak edukiko dituzu zuk eta.

—Zergatik ez bada -erantzun zion motillak- nun dago iturria?

—Antxe -esan zion atsoak eskua luzatuz- Zoaz, gizajo orri, bitartean txerria zainduko det nik.

Motilla juañ zan iturri billa, baño egin zuanagatik ez zuan iturriarik arkitu. Aldi batean ibilli zan alde batetik bestera, eta azkenean, alperrik zebilela iruditu zitzaionean, lengo tokira itzuli zan. Ara iristean konturatu zan, an ez zirela agiri ez emakumea ta ez txerri beltza. Ots batzuek egin zituan an inguruan izkutu ote ziran edo, baño ez zuan erantzunik artu. Motilla larritu zan eta bereala pentsatu zuan emakume haar ura lapurren bat edo izango zala.

Asi zan alde batetik bestera baztar guztiak miatzen ta azkenean, ia etxi zuanean, etxe bat ikusi zuan sakon batean. Juan zan bereala etxe artara ta... dan, dan... ate joka asi zan. Bereala atera zitzaion gizon bat:

—Zer bear dek emen -asarre batean esanez- ate guziak txikitu nai al dituk ala?

—Ateak autsi ez dakit baño -erantzun zion motillak- ni txerri beltz batekin perira nijoan ta emendik gertu, emekume haar batek txerria izkutatu egin dit, ez al da emakume ori onera etorri?

—Zer txerri ta zer txerrikume -erantzun zion gizon arek-

emakume baten kontuarekin al ator onera ate joka, baztar guziak aztoratzen! Artzen badiat illati bat...!

Motillak antz eman zuan an ez zeukela ezer egitekorik. Baño andik alde egiterako iruditu zitzaion ur billa pitxarrarekin bialdu zuan emakume xaar ura eta orain indarrean atera zitzaion gizon ori, biak bat zirala.

Egun guztian mendi aldean egon zan motilla. Bildurtu egiten zan bere amarengana txerririk gabe azaltzea, ta okerragoa zana, dirurik gabe. Baño beti mendian ezin egon eta etxera etorri bear izan zuan, ondo illunduta gero. Ama zai zai zeukan kezkatuta ta batez ere jakiteko, bere semeak txerri beltza zenbatean saldu ote zuan.

—Txerria arrapatu egin didate -esan zion semeak etxean sartzeko betarik gabe- gaño pagatu bearko dute.

—Besterik ez genduan bear orain! -erantzun zion amak.

Geiago ezer esan gabe, biak oira juan ziran. Urrengo egu-nean zabaldu zan errian, motillari bere txerri beltza arrapatu egin ziotela ta danak parre txiki bat egiten zuten. Leen erdi txorotzat bazeukaten, orain gutxiago ez.


Motilla ez zegon lo bitartean, bere buruan bazebillen iñori azaltzen ez zion asmorenbat.

LAPUR ETXEA

Jakin zuan motillak, berari txerria arrapatu zioten mendi artan bazegoala lapur etxe bat. Baita ere lapurrek gauez ateratzen zirala beren “lana” egitera.

Orregatik, illuntze batean, artu bere eskupetea, ta iñori ezer esan gabe, mendiko etxe artara abiatu zan. Etxe ondora iritxi zanean, toki izkutu batetik jarri zan lapurrak noiz aterako ote ziran begira.

Gau erdia baño leen danak atera ziran banaka banaka. Orduan motilla ere, izkutu toki artatik atera, eta lapur etxera juan zan, bere txerri beltza an egongo zalakoan. Atea zabaltzen asi zanean etxera sartzeko, ots bat entzun zuan. Izan ere lapur guziak ez ziran kanpora juan, nagusia etxean zegon. Motillak



Etxea arbolaz inguratua zegon.

ikusi orduko ezagutu zuan berriz ere, berari txerri beltza arrapatu zion emakumea eta gizon ura, bat zirala. Motilla ez zegon oraingoan atzera egiteko ta zabaldu golpean atea eta gizon aren aurrean jarri zan eskupetea eskuan zuala.

—Nere txerri beltza nun dek! -galdetu zion lapurrari.

Au dardar jarri zan dana ikaratuta, motill ura eskupetea eskuan zuala aurrez aurre ikustean.

—Nik ez zeukeat txerri beltzik! -esan zion ala ere motillari-alde egintzak emendik, bestelaaa...

Baño motilla ez zegon oraingoan engañatzen uzteko ta leen baño gogorrigo esan zion lapurrari:

—Nere txerri beltza nun dek! Ta nun dituk neregana azaldu intzanean eduzkan emakume jantzi aiek!

Itz oiek entzutean eta ezagutua izan zala antz ematean, oraindik leen baño geiago ikaratu zan lapur ura, gañera bakar bakarrik zegon etxean. Ala ere nolabait erantzun zion motillari:

—Ire txerri beltza nere lagunek eta nik jan genduan, baño diru asko zeukagu, ta ik nai ainbeste emango diat.

—Nun daukek diru ori? -esan zion motillak.

—Ortxe -erantzun zion lapurrak, apal batzuek erakutsiaz.

Orduan motillak artu zuan eskupetea kañoitik eta berealdi-koak eman ziotzan (zizkion) lapurrari.

—Nere txerri beltza jan uan ta pagazak! -esaten zion bitartean. Lurrera bota eta erabat elbarrituta, zutik ere egoteko ez zala utzi zuan lapur gizajoa.

Motillak artu zuan apaletik eta beste toki batzuetatik eraman zezakean diru guzia ta...

—Kontuz gero iñori esan emen zer gertatu dan -ots egin zion lapurrari -bestelaaa... urrena etortzen naizenean, il egingo aut!

Motilla etxera itzuli zan, diruak izkutatu zituan al zituan obetoena, ta ondorengo egunetan beti bezelakoxe bizitza eraman zuan.

Lapurrak goiz aldera etxeratu ziranean, nagusia oian arkitu zuten, ta gaizki xamar, baño iñork ez zuan jakin zergaitik zegon ala.

MEDIKU BEZELA

Motilla arrituta gelditu zan lapur etxe artan ikusi zituan urre, zillar eta beste gauza askotaz. Naiz eta bere txerri beltzak balio zuan baño diru geiago artu aurreko aldian, lapur etxe artan zegon diru guzietaz jabetzea erabaki zuan. Bera bakarrik juaten bazan berriz ere, diru askorik ez zuala ekartzetik izango ta zaldirenbat sortzea pentsatu zuan. Ta pentsatu ta egin.

Goiz batean juan zan medikuaren etxera taa...

—Mediku Jauna -esan zion- gauz arrigarri bat etorri zait burura. Zure jantziak eta zaldia nai nituzke, naiz eta ni medikua ez izan, egun bat besterik ez bada ere, itxura ortan mendian ibiltzeko.

Medikuak parre egin zuan motillaren txorakeri ura entzutean, baño, ezagutzen zuan motilla eta, gauz okerragoak ere izaten zirala pentsatuaz, orrela erantzun zion:

—Ori ez dek zailla, baño, txintxo ekarriko aldiak berriz zaldia, ondatu gabe?

—Bai Jauna, ez kezkarik eduki -erantzun zion motillak.

Eguardi inguruan abiatu zan gure motilla mendian gora, zaldi eder baten gainean, benetako mediku bat izan bazan bezela.

Lapur etxe ondora iritxi zanean, tiro bat edo bi bota zituan eizean bazebillen bezela. Lapur guziak atera ziran tiro otsak entzutean zer izan zitekean ikustera. Medikua Jauna zala ikustean, nagusiari galdetu zioten sarreraziko ote zuten edo ez. Nagusia egon zan alditxo batean kezkatan, baño azkenean esan zien:

—Zoazte ta esaiozute sartzeko, ea nere min aukeratu pixka bat arintzen diatzan (dizkidatzan).

Laster zan “Medikue” gaixoaren ondoan.

—Zer gertatzen da bada? -galdetu zion gaixoari.

—Ara, Jauna -lengo batean eskailleratik bera erori nintzan, ta oso minberatua nago.

Medikua asi zan gaixoa ikutzen.

—Emen miñ artzen dezu ez?, ta emen ere bai, ez da? -zion Medikua gaixoari ikutzen zion bakoitzean. Izan ere ondo zekian arek, lapurrak nun zeukan miña. Lapurra berriz arrituta zegoen mediku arek nola antz eman zezakean, berak miña nun eduki zezakean.

Bere “lana” egin zuanean, medikua jarri zan zutik oiaren ondoan ta galdetu zuan:

—Zenbat zerate etxe ontan bizi zeratenok?

—Amabi, nagusiarekin -erantzun zioten.

—Ta danok emen al zaudete? -galdetu zien berriz medikuak.

—Bai Jauna, danok emen gaude -erantzun zioten.

Orduan medikua zerbait pentsatzen bazegoen bezela burua pixka bat makurtuta jarri zan, ta geroxeago esan zien:

—Entzun ondo danok, zuen nagusia gaizki dago ta miñ aundiak dauzka, baño nik esaten dizuetena egiten badezute, sendatuko da. Amaika iturritako urak ekarri bear dituzute ta ur oiek danak naastu ta egun batzuetan edan bear ditu. Emen inguruko urak txarrak dira, ta orregatik gertuaneko iturria, orrelako tokitan dagoena da. (Iturri ortara bi orduko bidea baño geiago zegoen).

Nagusiak ori entzutean, lapur guziak bere ondora ekar erazi ta esan zien:

—Ea bada nere motillak, zoazte ta ekarri lenbailen ur oiek, ea nolabait sendatzen naizen.

Lapur guziak, artu al zituzten ontziak, eta zalapartaka atera ziran, bakoitza bere iturri billa.

Nagusia ta Medikua bakarrik gelditu ziranean, medikua gaiñean zeraman jantzia kentzen asi zan, oian zegon lapurrari esaten zion bitartean:

—Nere txerri beltza jan oan ta pagazak!

Lapurra ia ondoeza egiñean gelditu zan.

—Ez nazak jo -esaten zion motillari- naiko dirue emango diat.

—Nun dago diru ori? -jakin nai izan zuan motillak, lenaz gañera beste toki izkuturenbat ote zeukan.

—Or ondoan dagon ogol aundi ori altxatu, ta or bazeok urre ta zillar ugari -esaten zion lapurrak bildurrez akabatzen.

Orduan motillak artu zuan makilla bat eta, lenaz gañera be-roak ematen asi zan lapurrari.

—Nere txerri beltza jan oan ta pagazak! -esaten zion bitartean.

Jotzez aspertu zanean, ango baztar guziak miatu zituan, baita ogol aundi ura altxatu ere, ta al zuan diru guzia zaldi gaiñean jarri ta etxera itzuli zan. Illuntzean eraman zion zaldia medikuari egun eder bat pasatu zuala esanez, ta gañera adieraziz, berriz ere bazitekela zaldia eskatzea. Medikua asko poztu zan, bere ustez erdi txoro zan motil arek, egun bat bada ere ondo pasatu zualako.

APAIZ BEZELA

Diru askoren jabe egiña zan motil txoro ura, baño geiago izateko gogoa jarri zitzaion. Pentsatuaz lapur nagusi ura oso gaizki egongo zala, ta mediku bezela ez zeukala berriz juaterik, bi edo iru egun zer asmatu ez zekiala ibilli zan. Azkenean erabaki zuan apaizarengana juan ta berari sotana bat eskatzea, apaiz bezela lapur etxean sarrera izango zuala ta.

Apaizarengana juan zan, baño onek ez zion iñola ere sotana utzi nai, jantzi ura ez zala nolanai ibiltzekoa esanaz. Baño, motillak, erdi negarrez, erdi parrez alako bearra agertu zion, egun bat

besterik ez bazan, sotana jantzita ibiltzeko, azkenean apaiza errukitu egin zan, ta zeukan sotanarik onena eman zion.

Urrungo goizean ikustekoa zan gure motilla, sotana ederra soifnean zeramakiala, mendian gora. Ura orrela ikustean, iñork ez zuan esango benetako apaiza ez zanik. Eskupeta berekin zeraman eizera bazijoan bezela.

Lapurren etxe ondora iritxi zanean aietako batzuek laster ikusi zuten, ta nagusiarengana juan ziran apaiz bat etxe inguruan zebilela esatea. Lapurren nagusia oso gaizki zegon, ilko zanez etsita, orregatik apaizari deitzeko agindu zien, bearra bazeukela ta.

Lapurrak oso triste zeuden nagusia orrela ikusita, aldi artan ez ziran lapurretara ere juaten, baño ezin zuten ezer egin. Nagusiak ez zien agertzen bere gaitza nundit zetorren ta gutxiago, txerri beltza jan zutelako zanik. Izan ere, motillak aldiero esaten zion il egingo zuala, norbaiti agertzen bazion berak jotzen zuala.

Apaiza etxean sartu zanean, lapur guziak an zeuden, ta nagusia oian zegon tokira eraman zuten. Apaizak ondo ezagutzen zuan toki ura, baño lapurrek ez zuten bera ezagutu. Apaiza egon zan pixka batean izketan gauz batzuen berri jakiten, ta nagusia oso gaizki zegola ikusi zuanean lapurreri esan zien:

—Zoazte azkar olako errira ta ekarri elizakoak. Bitartean nik konpesatuko det au.

Lapurrek, besterik gabe, danak batera atera ziran elizakoen billa. Apaiza, lapur nagusiarekin bakarrik gelditu zala ikustean, erantzi sotana taa...

—Nere txerri beltza nun dek -asi zan esaten.

Itz oiek entzutean, lapurrak begiak zabaldu zituan, ta betiko motill ura bere aurrean ikustean, ondoeza eginda gelditu zan. Motillak gaixoa astinduaz esaten zion:

—Nere txerri beltza jan oan ta pagazak!

Naiz eta astindu besterik ez egin, ala ere lapurra ia illean utzi zuan. Eraman zezakean diru guzia artu, ta motilla bere etxera itzuli zan. Diruak betiko tokian izkutatu zituan, ta apaizari sotana itzuli zion, ezer gertatu ez balitz bezela.

Lapurrak esandako erritik etxera etorri ziranean elizakoekin, ez zuten arkitu an apaizik, eta nagusia berriz oso gaizki, itzik egi-teko ere ia gauza ez zala. Ala egonda ere, lapur nagusiak alegiña egin zuan bere laguneri adierazten zer gertatzen zitzaion.

—Iñori ez utzi geiago etxe ontan sartzen -asi zan izketan erdi ixillean ta geldi geldi- gaurko apaiza ta aurreko eguneko medikua guk jan genduan txerri beltz aren jabea oan (ukan). “Txerri beltza jan oan ta pagazak” esanez, ni il zorian jarri natxok... emen itzik gabe gelditu zan eta geiago ez zan bere onera etorri. Andik egun gutxira ill zan. Lapurrek umezurtz bezela gelditu ziran nagusi gabe, ta batez ere bildurrez, txerri beltz aren jabe ura nor izan zitekean pentsatuaz.

LAPURREN DIRUA

Motillari, geroz gogo aundiagoa jartzen ari zitzaion, lapur etxean ikusi zituan diru guziak bereganatzekoa.

Ez zan gauza errexa izango, lapur aiek danak an zeudela, baño ala ere zerbait egin gabe ez zan beintzat geldituko.

Orrela, andik egun batzuetara, medikuari berriz ere zaldia eskatu, eskupetea artu, ta mendi aldera abiatu zan zer gertatzen ote zitzaion ikustera. Lapur etxe ondora iritxi zanean, bi edo iru tiro bota zituan iñor azaltzen ote zan edo. Lapur danak etxe barruan zeuden, ta tiro otsak entzutean, bat edo bi atera ziran zer gertatzen zan begiratzea. Motillak, lapur aiek ikusi zituanean, zaldia laukoan jarri arazi zuan ta tiro batzuk botatzen zituan bitartean, oska asi zan:

—Nere txerri beltza jan oan ta pagazak! Nere txerri beltza jan oan ta pagazak!...

Zalaparta ura dana entzun, eta txerri beltzaren jabe ura an zebillela pentsatuaz, leen ikaraz bazeuden lapur gizajoak, orain jota gelditu ziran... Bertan gelditzen baziran danak ilko zituala, ta danak al zuten agurona, aldegin zuten etxe artatik.

Motillak ikusi zituan nola zijoazen batzuek lasterka, ta mendian alditxo bat ibilli ondoren, berriz ere etxe aldera inguratu zan danak juan ote ziran edo, begiratu bat ematera. Egon zan oraindik pixka batean zai, ta iñor ez zala agiri iruditu zitzaionean, etxera sartzen asi zan, bada ez bada ere ots aundian esanez:

—Nere txerri beltza jan oan ta pagazak!.

Ez zan an barruan ezeren otsik entzun. Orduan motillak,

sartu etxera ta al zuan dirua artu, ta zaldia ondo kargatu ondoren, bere etxera itzuli zan.

Askotan jua bear izan zua gure motillak lapur etxe artara ango diru guziak ekartzeko. Iñork ere ez zua bere lan ortan ikusi, izan ere danak erdi txorotzat zeukaten, ta ajola gutxi zitzaion jendeari, ura mendira jua edo ez jua.

DIRUA NEURTZEKO ONTZIA

Gure motilla diru askoren jabe egin zan, baño egiñalak egin eta ezin zua garbi zenbat zeukan jakin. Izan ere, ez zeukan dirua neurtzeko bear zan ontzirik. Erri guzian batek bakarrak zeukan ontzi ori, ta bera alkate jauna zan. Motillak ez zekian ontzi ori nola eskatu, bazekian alkateak jakin naiko zuala zertarako ote zua taaa... ori ez egon esaterik.

Baño beti orrela ezin egon eta jua zan motilla alkatearen etxera. Atea jo zua ta:

—Alkate Jauna etxean al dago? -galdetu zion atera zitzaion neskameari.

Laster zan alkatea bera ate ondoan:

—Zer nai dek, motell? -galde egiñez.

—Zera, -erantzun zion motillak- jakin det, zuk badakezula dirua neurtzeko ontzi bat, ta uraxe nai nuke egun batzuetarako.

—Zertarako nai dek ik ontzi ori? -esan zion alkateak- diru asko al daukek ala?

—Ez, dirurik ez, -erantzun zion besteak gezurra- beste zerbaiterarako nai nuke, besterik ez bada, ontzi ori eduki dedala esateko.

Alkatea zerbait pensatzen gelditu zan. Ez zion ontzirik eman nai, ta orregatik motillari esan zion erdi parrez:

—Ontzi ori balio aundikoa dek, eta ez zegok nolanai ematerik. Ori irabazi egin bear dik, eta ortarako lan bat egin bearko dek.

—Zer lan? -esan zion motillak.

—Begira -erantzun zion alkateak- nik bazeukat ikulluan zaldi eder bat. Gaur gauean, iñor kontu artu gabe zaldi ori gure etxe tik ateratzen badek, emango diat ontzia.

—Ondo dago, -erantzun zion motillak, eta besterik gabe bere etxera juan zan.

ALKATEAREN ZALDIA

Alkatearen zaldia oso ederra zan, erri guziak eta ingurueta-koak ere ezagutzen zuten. Ez zan gauza errexia izango, zaldi ura iñor konturatu gabe, alkatearen etxeko ikullutik ateratzea. Alka-teak ondo zainduta edukiko zuan.

Motillak egun guzia buru austen pasa zuan. Ainbeste gauza etortzen zitzaion burura, baño ez zuan bat ere ontzat artzen. Illuntzea iristean larritzen asi zan motilla. Azkenean orratik, gauz polit bat asmatu zuan.

Soiñean zeuzkan jantziak erantzi, ta zarkin batzuek jantzi zi-tuan, aurpegia ere itxuraz zerbait aldatu zuan. Botella txiki bat artu sakelan, eta zaku bat bizkarrean zuala, alkatearen etxera juan zan ondo illunduta gero, eskale bat izan bazan bezela.

—Eskale batek gaua pasatzeko ainbat toki izango al litzake etxe ontan? -galdetu zion atea zabaltzera etorri zitzaionari.

—Etxe ontan beti dago tokia, gau bat eta bi pasatzeko -eran-tzun zion barrungoak- jateko zerbait izango da, ta ikulluan lasto pillla bat badago, lo egiteko.

—Eskerrikasko -esan zion “eskaleak”, gauzak berak uste ba-ño obeto ateratzen asi zitzaizkiolako.

Sartu zan barrura, ta zerbait apaldu ondoren, ikullura eraman zuten, lasto pillla zegon tokira.

Alkate jaunak ere ez zeuzkan guziak berekin, ta kezkatzen jarri zan, motill ura ez ote zan etorriko zaldia arrapatu naiean. Ori gertatu ez zedin, deitu zien bi morroieri esanez:

—Gaur ola ta ola esan zoat (zioat) motill bati: “Iñor kontuar-tu gabe ez deala (dekala) nere zaldia gaur gauean gure ikullu-tik ateratzen”. Zuek biok bada, bat zaldi gaiñean ta bestea ate ondoan jarri bear zerate, zaldia eraman ez dezan.

—Ori besterik ez baldin bada -erantzun zioten morroiek- ez bildurrik izan, oraindik ez da sortu gu kontu artu gabe gure ikullutik zaldia aterako duanik.

Ta biak, nagusiak nai bezala, juan ziran ikullura ta jarri ere bai, bat zaldi gaiñean, ta bestea ate ondoan etzanda.

Eskalea an zegon lastotan, lo bazegon bezela. Etxeko ots guziak ixildu ziranean, eta ortxe gau erdi ingurua izango zala iruditu zitzaionean, jeiki lastotatik, eta zutik jarri zan. Beste bi aiek an ikustean, arrituta bezela jarri zan, baño bereala asi zan beraiekin izketan.

—Zer egiten dezute motillak orrela? Gaueroko lana al dezute ori?

Besteek esan zioten gau artakoa bakarrik zala, eta zergaitik zeuden orrela.

—Ondo zegok -erantzun zien eskaleak- baño onuzkero asper-tuta egongo zerate, ta artu zazute ardo trago bat besterik ez bada-ta botella txikia atera sakelatik eta eman zien.

—Ekartzak, ez dek gaizki etorriko -esan zioten bi morroiak, ta trago on bana egin zituzten.

—Ardo ona dek au -esan zuan morroi batek- orrelako ardoa erabiltzen al dezute eskaleek?

—Batzuetan bai -erantzun zion eskaleak -guzitatik izaten dek.

Alditxo batean izketan segitu zuten. Laster zaldi gaiñean zegona, ta berdin ate ondokoa, loari ezin eutsirik jarri ziran, ta baita lo seko gelditu ere, izan ere "eskaleak" auts bat naastu zion ardoari, etxetik ateratzeako.

Biak lo trinko zeudela ikustean, eskaleak jeitxi zuan zaldi gaiñean zegona ta baztartu ere bai ate ondokoa. Gero zaldiari jarri ziotzan (zizkion) trapu zaar batzuek lau ankeetan, atepak zabaldu zituan, ta al zuan otsik gutxiena atereaz, artu zaldia, ta bere etxera eramane zuan. Berriz ere itzuli zan alkatearen etxeko ikullura, ta lo zeuden bi morroiak lasto gaiñean jarri, atepak itxi ta leio bate-tik salto egiñez, bere etxeko ikullura juan zan, zaldiaren ondora.

Eguna zabaldu zuañean, alkatearen etxeko ate joka asi zan. Alkatea bera etorri zan atepak zabaltzea.

—Zein da emen garai ontan? -ots egin zuan barrundik.

—Ni naiz -erantzun zion eskaleak- zaldia nun dezu?

—Zaldia ondo zainduta zegok -esan zion alkateak.

—Nai al dezu ikullura juan ta ikusi? -esan zion besteak.

Alkatearen gogoz ez bazan ere, juan ziran biak ikullura, ta

bi morroiak lo, ta zaldia bere tokian ez zegola kontu artzean, ikustekoa zan alkate jaunaren aurpegia.

—Biok ilko zaituztet arraiook -asi zan alkatea morroiak lo zeuden tokira abiatuaz.

—Ez asarratu -alkate jauna- esan zion motillak besotik elduaz-zure zaldia nere etxean dago, ta ez aaztu atzo emandako itzaz. Ez det uste iñor kontu artu danik, nik zure zaldia emendik atera ta nere etxera eraman dedanean.

Biak juan ziran motillaren etxera, ta zaldia an ari zan ikulluan, lasai asko lastoa jaten.

—Au alda zure zaldia? -esan zion motillak alkateari.

—Bai, ez zekiat nola konpondu aizen onera ekartzeko, baño su nere zaldia dek. Juan adi gaur arratsaldean gure etxera, ta emango diat eskatzen dean ontzi ori.

Alkateak zaldia artu, ta bere etxera eraman zuan. Bi morroiak lo zeuden oraindik, baño laister esnatu bear izan zuten, beren saietsetan makilkada gogorrak artzen asi ziranean. Goiz artan bertan bota zituzten biak etxe artatik.

—Zuek baño aztiagoak izango al dituk beste batzuek! -esaten zien nagusiak bialtzerakoan.

ALKATEAREN OIKO IZAREA

Esan bezela, juan zan motilla arratsaldean alkatearen etxera ontzi billa, baño an kopeata beltzak agertu zitzaion (zitzaizkion).

—Zer uste dek ik, -esan zion alkateak- i bezelako bati emateko baño geiago balio dik ontzi orrek.

—Nik ez dakit ni bezelako bati emateko baño geiago balio duan ala ez -erantzun zion motillak- baño zuk atzo, ta gaur bertan esandakoa bete nai badezu, ontzi ori neri utzi bearrean zaude. Nik bete det zuk esandakoa.

—Emango diat bada -esan zion alkateak- baño beste zerbait geiago egin bearko dek.

—Zuk esango dezu -erantzun zion motillak.

—Baaa... asi zan Alkatea, buruari azka egiñaz -gaur gauean, ni nere emaztearekin oian nagola, gu kontu artu gabe izarea kentzen badiguk, biar emango diat ontzi ori.

—Izarea ondo markatu -esan zion motillak, ta- biar arte esan, ta bere etxera juan zan.

Etorri zan gaua, ta motilla ez zegon lo. Aurreko egunean ill zan gizon bat erri artan, ta kanposantura eramana zuten gorputza, baño oraindik lurra eman gabe. Gau erdi inguruan, erriko guziak oieratu ziranean, motilla juan zan kanposantura ta ildakoaren gorputza artu zuan. Etorri errira ta alkateak lo egiten zuan koartoko leio ondoan jarri zuan gorputza. Gero, makilla bat artu ta leio jatzen asi zan, andik sartu nai bazuan bezela. Alkatea ere ez zegon lo, ta gañera ez zebillen oso asmo onarekin. Buruan sartu zitzaion, motill erdi txoro arek diru puskarenbat eduki egingo zuala, ta iltzea erabaki zuan. Orregatik leioko otsa entzutean, jaiki zan bere-ala, artu zuan eskupeta eta leio zabaltzearekin batera, bi tiro eman ziotzan (zizkion) leio ondoan zegoenari. Gero jantzi zan laster batean, atera leiotik, artu ildakoa bizkarrean, ta kanposantura abiatu zan.

Bitartean motilla pixka bat baztartuta zegon, ta alkatea urrutiratu zanean, saltatu leiora, ta koartora sartu zan, gero alkatearen emaztea zegon oira juan zan, ta an etzan.

—Zer gertatzen da emen? -esan zuan emazteak.

—Ezer ez -erantzun zion besteak ixil ixillik- lo egin zazu orain.

Andreak lo artu zuanean, asi zan motilla oian bueltaka bueltaka, izara guzia bere gorputzean bildu arte. Ori egitea iritxi zuanean, jeiki oitik, andrea kontu artu baño len, saltatu berriz leiotik, eta laisterka bere etxera juan zan.

Alkatea ere bereala etorri zan ildakoa kanposantura eramana da, ta emaztearen ondoan etzan zan.

—Baño, zer gertatzen da gaur emen? -zion berriz ere emazteak esnatuta- ainbeste ots, eta ibilli beararak.

—Lo egin zazu -erantzun zion alkateak- orrek ez digu beintzat geiago lanik emango.

Urrungo goizean, motilla galtzarbean izarea zuala, ate joka azaldu zanean, alkateak ezin zuan siñistu bere begiek ikusten zutena; motilla antxe zegon bere aurrean... “Nola liteke” pentsatzen zuan alkateak bere baitan.

—Au al da zuen oiko izarea? -zion bitartean motillak kontu artu al zerate zu edo zure emaztea noiz kendu dizuean (dizuetedan)?.

Alkateak ezagutu bearra izan zuan, ez zirala kontu artu, ta bere baño aztiagoak ere ba zirala munduan.

Ori guzia ezagutuagatik, ez zion oraingoan ere dirua neurtzeko ontzia eman nai izan.

—Ator arratsaldean berriz onera, ta emango diat ontzia -esan, eta bialdu zuan motill gizajoa.

Motillak ez zuan beñere uste izan ontzi ura sortzea ain zailla izango zanik... baño bein asi zan ezkeru, ez zan geldituko berearekin atera gabe. Orregatik, berriz ere arratsaldean juan zan alkatearen etxera.

—Emen naiz ni -esan zion alkateari- ta itzeko gizona bazera, eman bearko didazu oraingoan ontzi ori.

—Ez aiz amutsa -erantzun zion alkateak- orregaitixek nai diat beste zerbait eskatu, ontzi ori eman baño len.

—Zuk esango dezu -erantzun zion motillak.

—Begira -asi zan alkatea- nik bazeukeat anai bat apaiza dana, ta ez dek batere tontoa, ari gezur on bat sartzen badiok, geiago ez diat ezer eskatuko.

ALKATEAREN ANAI APAIZA

Bere etxera juan zan motilla, ta aldi batean pentsatsen ta pentsatzen egon zan, ta azkenean eskuarekin burua joaz: “Orixe egingo diat” esan zuan.

An auzoko etxe batean bazeuden txakur-kume batzuek, aurreko egun batean jaiu ziranak. Motilla juan zan etxe ortara, ta txakurkume aiek eskatu zien (zizkien) bear aundi batean arkitzen zala ta. Baiezkoa eman ziotenean, artu txakurkume aiek saski batean, ta etxera eramanean zituan.

Goizeko ordu biak edo irurak aldera, artu zituan txakurkumeak saskian, ta elizara juan zan. Nolabait igo zan torre gaiñera ta en zeuden kanpaien mingañeri lotuta jarri zituan txakurkumeak. Auek, batetik bestera mobitzen asi ziranean, kanpaiak ere bai din... dan... jotzen, baño arrigarri, ikara emateko moduan.

Apaiz etxea elizatik oso gertu zegoen, ta kanpai ots ura asizanean laister esnatu zan apaiza. Bereala jeiki ta jantzi zan,

eta elizako torrera abiatu zan, ots ura zer izan zitekean jakin naiean.

Sartu zan elizan, eta eskaillerak gora igotzen asi zanean, dea-
dar bat entzun zuan goitik:

—Ni naiz Aita Jainkoa, nere aingeruak ari dira kanpaiak jotzen, ez dedilla onera iñor gertuatu. Ta zu, onera abiatzen atrebitu zeran ori, inpernuan sartua izango zera nik esandakoa egiten ez badezu.

Apaiz jauna zegon tokian belaunikatu zan, ta orrela erantzun zion:

—Zer egin bear det bada, Jauna, ori ez gertatzeko?

—Eguna zabaltzen duanean -erantzun zion goian zegonak, zalaparta aundi bat atereaz- ibai ertzean dauzkazun ateen txabolara juango zera, sartu txabolan ateen erdian ta an etxoin, nik zerutik aingeru bat bialdu arte, zu bizi bizirik zerura eramateko. Orain etxera juan ziñezke.

Apaiza jeiki zegon tokitik eta etxera juan zan, pozez leartu bearrik, goiz artan bertan zerura zijoala ta...

Motilla ere, artu txakurkumeek eta etxera juan zan. Ez zuan gau artan lo askorik egin.

Goiz aldera zai zai zegon motilla, ibai aldera begiratuaz, berak agindutakoa beteko ote zuan edo ez apaizak. Aren poza ikusi zuanean, apaiza zuzen etxetik atera, ta atategira zijoala. Apaiza poliki poliki zijoan, baztar guzietara begiratuaz, bazeukan nunbait kez karenbat. Baño azkenean gertuatu zan atategira ta bertan sartu ere bai.

Motilla laisterka juan zan alkatearen etxera, apaiza atategian aspertu baño leen.

Alkatea lo zegoen, baño esnatu bearra izan zuan motillaren atejotze otsarekin.

—Zer bear dek motell emen garai ontan? -asi zan alkatea, motilla ikusi orduko,- auek al dituk orduak iñoren etxera etortzekoak?

—Atoz azkar nerekin -esan zion motillak kasorik egin gabe.

—Noa?

—Gero esango dizut, segi orain neri.

Ta bereala ziran biak ibai ertzean.

—Sartu zaitz (zaite) atategi ortara, -esan zion motillak alkatuari, apaizaren atak zeuden tokira iritxi ziranean.



Apaizaren atak, ibai ondoko txabola batean zeuden.

—Ori, motell, nere anai apaizaren txabola dek, nihi... -asi zen alkatea esaten.

—Berdin da, -moztu zion motillak zorrotz- sartu, ta ikusi zazu barruan zer dagon.

Alkatea sartu zan atategira, ta ata guziak zalapartaka asi ziran kaa...kaa...kaa... bulla aundia ateraz. Baño alkatea geiena arritu zuana, an atartean bere anai apaiza ikustea izan zan.

—Baño, zer egiten dek emen? -esan zion alkateak apaizari.

—Ixo, ixo -erantzun zion apaizak- aingeruak zetoztek ni zerrura eramatera, onuzkero laister dituk, otsa badek...

—Erotu egin al aiz? -esan zion alkateak- emen ire atak zeudek eta ez aingeruak...

—Bart Aita Jainkoak berak esan zidan (zidakana) ata auen erdian egoteko egun sentian, ta bere aingeruak zerura eramango nindutela.

Alkatea kontu artu zan aurreko egunean motillari zer esan zion, ta bereala pentsatu zuan aren egitekorenbat izango zala.

Bi anaiak elkarrekin izketan ari ziran bitartean, motillak iges egin zuan andik.

Apaiza ez zan berealakoan bere onera etorri. Ezin zuan siñistu gertatu zitzaiona gezurra edo amets bat izan zitekenik.

Motilla jua zan, beti bezela alkatearen etxera, ontzi eske. Oraingoan alkateak ez zuan asarre artu.

—Ator, ator, etxe ontara, -esan zion- oraingoan erakutsi diak, txorora ez baño, benetan bizkorra aizela.

Motilla ez zan geiegi piatzen alkateak zionarekin, ta bada ez bada ere galdetu zion:

—Sartu al diot gezurra zure anai apaizari?

—Gezura sartu? -erantzun zion alkateak, parre egiñez. Or zebillek oraindik erdi txoratuta.

Alkateak ez zion beste aitzakirik jarri nai izan motillari, ta eskatzen zuan ontzi ura ematea erabaki zuan.

Alkateak ekarri zuan dirua neurtzeko zeukan ontzi ura, ta motillari eman zion esanaz:

—Artu zak, taaa... diru asko badaukak onekin neurtzeko, onera ere ekarri zerbait.

Motillak artu zuan ontzia ta bere etxera jua zan. Egun asko pasa zituan etxetik atera gabe, dirua neurtu ta dirua neurtu.

Dana bukatu zuanean, ontzia itzuli zion alkateari, ontzako urre batzuek ere bai. Medikuari ta apaizari ere zerbait eman zien, batek zaldia ta besteak sotana utzi ziotzatelako (zizkiotelako).

Azkenean bere amari diru guziak erakutsi ziotzan (zizkion) esanez:

—Ama, aberastuta gaude. Diru auek danak, txerri beltzaren balioa dira.


Andik aurrera, lanik egin bearrik gabe, ama ta semea oso aberats bizi izan ziran.

Migel Arratibel aita zanari entzuna.

O. Kontu zaar au oso zabaldua izan da euskal errian. Ikus D. Joxe Migelek dakartzkin laburpen batzuk: "Obras Completas" Tomo II, pág. 338 "Biantxaren ordaña" "Estudiante tonto". pág. 340

Variante de Dima, pág. 344

Variante de Natxitua, pág. 345.



SORTA EGURRA TA ETSAI ZAARRA

Bein gizon bat juan omen zan mendira, egur pixka bat ekartzera. Egur mordo bat bildu ondoren, sorta aundi bat egin zuan, uste baño aundiagoa, ta alegiñak eginda, ezin zuan bizkarrera jaso. Baztar guzietara begiratu zuan, baño iñor ez zan ikusten lagunduko zionik. Orduan ots aundian esan zuan:

—Etsai zaarrak eta animak eta badirala, baño nik bear deanean, ez dek iñor azalduko ez!

Ori esan orduko, gizon bat azaldu zitzaion bere ondoan.

—Zer nai dek? -esanez.

—Zea, -erantzun zion egur zaleak- sorta egurra ezin diat bizkarrera jaso, ta orixe jasotzeko laguntza.

—Ori besterik ez badek, -esan zion beste arek- neronek eramango diat sorta egurra etxeraño, ta ik, zer emango diak?

Azaldu zan gizon ura etsai zaarra zan, ta indar asko zeukan. Egur zaleak pentsatu zuan pixka batean, ta gero esan zion etsai zaarrari:

—Gure etxera iristean, aurrena bidera ateratzen zaiguna, uraxe izango dek iretzat.

Beti txakur txiki bat atera oi zitzaion, ta ura etsai zaarrari ematearekin, ez zuala asko galduko iruditu zitzaion.

Etsai zaarrak artu zuan sorta egurra bizkarrean, ta beste gizona ondoren zuala, etxe aldera abiatu ziran biak.



Gure etxera iristean, aurrena bidera ateratzen zaiguna, uraxe izango dek iretzat.

Etxe aldera inguratu ziranean, gizona begira zijoan txakur txikia noiz azalduko ote zitzaien, baño alperrik, ez zan iñor agiri. Azkenean, ia etxean ziranean, txakur txikiaren ordeaz, semea atera zitzaien esanez:

—Lagun ona billatu dezur sortea ekartzeko, ee, aita!

Motil orrek emezortzi emeretzi urte zeuzkan, ta ezegatik ikaratzten ez zan oietakoa zan.

Aita zuri eginda gelditu zan, zer esan ez zekiala.

Etxeko atarira iritxi ziranean, etsai zaarrak sorta egurra bota zuan ta motillari esan zion:


—I aiz aurrena bidera atera zaiguna, ta i izango aiz neretzat.

—Ah, seme, ola ta ola gizon oni agindu zoat (ziokat) -asi zan aita negarrez- nik uste nian txakur txikia aterako zitzaigula bidera ta i atera aiz. Nik gizon oni itz eman zoat etaa,...

—Ez ikaratu aita,! -esan zion semeak- besteak bizi diran tokian ni ere biziko naiz.

—Gero esango dituzute gauz oiek, -esan zien etsai zaarrak, ta gero bereala motillari begiratuaz:

—Ik aitu orain ondo -esan zion-. Biar illuntzerako, alako ta alako mendira juan, ta an, plaza eder bat inguruan daukan palazio aundi bat ikusiko dek. An ots egin zak, eta azalduko nok (nauk) ni. An esango diat gero zer egin bear dean.



Alako ta alako mendira juan, ta an, plaza eder bat inguruan daukan palazio aundi bat ikusiko dek.

Itz oiek esan, ta etsai zaarra izkutatu zan. Besteak an gelditu ziran elkarri begira. Etxe artan ez zan lo askorik egin gau artan. Batez ere aita zegon larriena:

—Zori gaiztoko sorta egurra!, -esaten zuan, batetik bestea gelditu gabe ibilliaz.

Lasaiena berriz, motilla bera zegon, ta alde batetik pozik ere bai, mundua ikusteko gogo aundia zeukan da...

MENDIKO PALAZIORA BIDEAN

Goizean goiz atera zan motilla, etsai zaarrak esandako palazio artara juateko. Etxeko guziak, aita, ama, ta senideak danak negar batean gelditu ziran.

Motilla bazijoan mendiak aurrera, juan ta juan. Bide ezaguna zuan arte ondo zijoan, baño, geroago, beñere izan ez zan tokian sartu zanean, bi bide ikusi zituan ta zeñ aldetara jo ez zekiala gelditu zan. ortan zegoala, uso bat ondoratu zitzaion geldegiñez:

—Nora abiatu zera mendi ontan aurrera?

—Olako tokitan dagon palaziora -erantzun zion motillak-esango al didazu nun dagon palazio ori?

—Nik ez -esan zion usoak- baño nere atzetik beste uso bat badator, ta arek bear bada esango dizu.

Andik pixka batera etorri zan bigarren usoa, ta motilla ikus-tean, lenengoak bezelaxe berdin galdetu zion:

—Nora abiatu zera mendi ontan aurrera?

—Olako tokitan dagon palazio batera -erantzun zion motillak oni ere- esango al didazu nun dagon palazio ori?

—Nik ez -esan zion usoak- baño nere atzetik beste uso bat etorriko da, ta arek bear bada esango dizu.

Laster azaldu zan irugarren usoa ta onek ere berdin galde-tu zion motillari:

—Nora abiatu zera mendi ontan aurrera?

—Olako tokitan dagon palaziora -esan zion motillak oni ere- esango al didazu nundik juaten dan?

—Nik bai, -esan zion usoak- orko bide ortatik aurrera juan zaitez, ta iritxiko zera.

Iru uso oiek etsai zaarraren alabak ziran. Lenengo biak gaiztoak, etsaiak, eta irugarrena ona, Jainkozkoa. Orregatik lenengo biak ez zioten motillari biderik erakutsi nai izan, iñoren onik nai ez zute-lako, ta irugarrenak bai, ona zalako.

Motilla juan zan irugarren usoak esan zion bidean, aurrera ta aurrera, ta illuntze aldera ikusi zuan etsai zaarraren palazioa. Bertara gertuatu zanean, neska eder bat atera zit Zion bidera esa-nez:

—Palazio ontara al zatoz, gazte?

—Bai, au olako tokitako palazioa bada beintzat, -erantzun zion motillak.

—Bera da, -esan zion neska arek- ni emengo nagusiaren alaba naiz, baño beñere ez digu guri aitak ezer esaten. Ni naiz zuri bidea erakutsi dizun uso ura. Nere aita eta nere beste bi aizpak oso gaiztoak dira, etsai zaarrak, ikusten duten guzia ondatu nai dutenak. Baño zu ez bildurtu, ni zure alde jarriko naiz ta. Nere aitari ez esan nerekin egon zeranik.

Itz oiek esanda, neska ura izkutatatu egin zan. Motilla jua zan palaziora taaa... dan, dann area joaz... Jeup... ots egin zuan. Bereala atera zitzaion etsai zaarra.

—Emen al aiz? -esan zion-. Alare ez dek ezer, garaiz etorri aizenean. Errex billatu al dek bidea?

—Bai -erantzun zion motillak.

—Ondo zeok, -nekatuta etorriko intzan ta gaurkoz ez diat lanik emango. Biar ikusiko diagu. Orain goazen apaltzera.

Apaltzeko bost lagun bildu ziran. Etsai zaarra, bere iru alabak eta motilla. Gutxi itz egin zuten apaltzekoan, ta bukatu zutenean, motillari koarto bat eman zioten, ta danak oira jua ziran.

PALAZIOKO LANAK

Urrungo goizean, motilla jeiki zan orduko, nausia zai zegon lan bat emateko. Gosaldu zutenean, etsai zaarrak esan zion motillari:

—Bazkaltzeko ogirik ez zeok gure etxean. Juan adi or aurreko mendi ortara, ango arbolak bota, lurra erabilli, garia egin, gari ori eldu arzi, gero garia jo ta garbitu, garia io, iriñarekin orrea egin, labean erre, ta bazkaltzerako ogia ekarri etxera.

Ori dana entzunda, motilla lotuta bezela gelditu zan, baño laister esanatu erazi zuan etsai zaarrak esanez:

—Ez al dek aitu esandakoa? Artu atxurra ta alde emendik, bestelaa...

Motilla jua zan etsaiak esandako tokira, atxurra artuta, baño... arek agindutako lanak zeñek egin...! Bota atxurra ta lurtean eseri zan negarrez. Beñere ez zuan bere burua olako estuasun batean ikusi.

Orrela zegola etorri zan etsai zaarraren alaba jainkozko ura, ta galdetu zion:

—Zertan zaude or negarrez? Zer lan eman dizu nere aita orrek?

—Au ta au esan dit -erantzun zion motillak- mendi ontako arbola aukeratu kendu, garia egin, eldu erazi, bildu, io, orrea egin, labean erre ta bazkaltzerako eramateko ogia etxera.

—Ez ikaratu orregatik -esan zion neska arek- zu egon emen lasai.

Ta bereala asi ziran arbolak izkutatzen, lurra arrotu zan, garia erne ta erazi zan, bereala eldu ta ale pilloa biurtu zan. Laster zan irin zuri edarra. Labea berotu zan ango egurren suarekin ta azkar asko erre ziran ogiak. Bazkaltzeko ordua baño lenago, lan ori dana egiña zegoen.

Orduan etsai zaarraren alabak esan zion motillari:

—Ikusten dezu nola egin litezken lanik zailenak ere? Orain, artu nai dituzun ogi guziak, eta eramanez etxera, baño gure aitari ez esan inork lagundu dizunik.

Motillak artu zituan ogiak eta etxera eramanez zituan. Etsai zaarrak ikusi zuanean esan zion:

—Nik agindutako lana egin al dek?

—Ara emen ogiak, -erantzun zion motillak.

—Bakarrik egin al dek lan ori? -galdetu zion etsai zaarrak.

—Bakarrik edo ez, -erantzun zion motillak- ara emen zuk eskatutako ogiak, -ta ogi edar batzuek erakutsi ziotzan (zizkion).

—Izan dek ik erorri baño laguntzalle ohea lan ori egingo bauan -esan zuan etsai zaarrak beretzako,- ta gero motillari:

—Goazen bazkaltzera.

ARDOA

Urrungo goizean beste lan bat eman zion etsai zaarrak motillari. Bereganats egin eta esan zion:

—Aizak i!, gure etxean ardorik gabe gelditu gaituk, juan ari atzo garia erein uan toki artara, an maasti bat aldatu zak, maastats eltzen danean ardoa egin, ta ardo ori ekarrik zak onera bazkaltzerako.

—Baño, -asi zan esaten motilla.

—Emen ez zegok baño, -moztu zion etsai zaarrak- aitu dek esandakoa, nik bazkaltzeko ardoa bear diat, eta alde emendik.

Motilla juan zan aurreko egunean bezela, zer egin ez zekiala, naiz eta esperantza pixka bat eduki, etsai zaarraren alaba on ura etorriko zitzaioala.

Ta baita etorri ere egin zan neska ura esanez:.

—Ta gaur zer lan eman dizu?

—Ara, -esan zion motillak- soro ontan maasti bat jartzeko esan dit, ta orrek ematen duan maatsarekin, ardoa egin, eta eguadirako etxera eramateko.

—Ez ikaratu, dana egingo da ta, -esan zion neskeak.

Bereala asi zan soro guzia pill pill, ura irakiten asten dan bezela dana astintzen, laster azaldu ziran maats kimuak lokuz bete-ta, maatsa pillo aundi batera bildu zan, ta odola bezelako ardoz bete ziran ontziak.

—Artu orain ardoa ta eraman nere aitari. Baño ez esan ezer-gatik, nik lagundu dizudanik -esan zion neskeak motillari.

Motillak artu zuan ardoa ta etxera juan zan. Etsai zaarra zai zegon, ta ikusi orduko esan zion:

—Egin al dek ardoa?

—Bai, ara emen, -erantzun zion motillak,- nai badezu edan.

—Ea bada ikusi, -esan zion etsai zaarrak- ta pixka bat probatu ondoren, -Ona zegok benetan, erorrek bakarrik egin al dek?

—Bakarrik edo ez, -erantzun zion motillak- ardoa ekartzeko esan didazu, ta ara emen ardoa.

—Ondo zegok, ondo zegok! -esan zuan etsai zaarrak- badaukak ik beste norbait erorri baño ohea!.

ZALDIA EZITZEA

Andik egun batzuetara, neska on ura etorri zitzaion ixilka motillari esatea:

—Nere aitak eta nere bi aizpak ezin zaituzte zu ikusi ta orre-gatik zuri zerbait txarra egitea erabaki dute. Zaldi bat ezi bearko dezu karo bati lotuta. Zaldia, aita bera izango da, kurpillak nere

bi aizpak, eta ni frenua izango naiz. Kontuz ibilli, txikitu egin nai zaituzte ta.

—Ondo dago, jakingo det zer egin, -erantzun zion motillak.

Urrungo egunean etorri zitzaion etsai zaarra motillari, ta beti bezela, zakar zakar ots egin zion:

—I, ator pixka bat. Or ikulluan bazeukeat nik zaldi bat oso izua dana, ta uraxe ezi bear diak gaur arratsaldean. Ortarako, atarian dagon karro orri erantsi iok eta gero ik ikusi...

—Ondo dago, -esan zion motillak.

Bakarrik gelditu zanean, motillak iru makilla onak artu zituan ta ikullura juan zan. Zaldia an zegon, geldi ezin nai ezda. ostiko andik eta ozkada emendik, iñori inguratzen utzi nai ezda. Baño motilla jakiñean zegon zeñekin zebillen, ta azkenean nola edo ala, karroari lotuta jarri zuan. Gero, leen artutako makilla aietako bi kurpill tartean frenu bezela jarri zituan, ta bera, beste makillea eskuan zuala, karro gaiñera igo zan. Kanpora atera ziranean, zaldia asi zan zalapartaka, ostikoka ta saltoak emanez, motilla karrotik bota naiean. Baño au ere ez zegon geldik, jo bat eta jo bestea, batez ere zaldi gizajoa dana odola zeriola ta autik patsa botatzen zuala jarri zan. Kurpillak ere ez ziran oso ondo ibilli. Motilla, aspertu eta nekatu ere egin zanean, sartu zan berriz ikullura ta an askatu zuan zaldia karrotik eta lengo tokian jarri. Saltorik egiteko gogo aundirik gabe zegon zaldia, juxtu juxtu zutik egoten zan. Karroa berriz, erdi autsian gelditu zan, batez ere kurpillak, izan ere frenu bezela jarri zituan makilla aiek, beren lana egin zuten.

Motilla geroxeago sukaldean sartu zanean, an zegon etsai zaarra baztar batean eserita, burua bi eskuen tartean zeukala.

—Zaldiari ezitu on bat eman diodala uste det, -esan zion motillak nagusiari- begiratu bat eman iozu nai badezu, an dago mantso asko ikulluan.

—Ez zeukeak ikusi bearrik, -erantzun zion etsai zaarrak-bazekiat ondo ezita dagona bai.

Bi alaba gaizto aiek ere miñ aundia artu zuten kurpill bezela. Alaba ona, berriz, ezer gabe gelditu zan, motillak ez zuan frenua ikutu bearrik izan. Etsai zaarrak eta bi alaba gaiztoak, leen motilla ezin bazuten ikusi, orain gorroto aundiagoa artu zioten.

ERAZTUNA

Etsai zaarraren palazio inguru artan bazegon osin aundi bat, ta an ibilli oi ziran askotan bere alabak, txalupa batean sartuta. Beñ, alaba aitako batek, bere eraztun edar bat galdu zuan, asko balio zuana. Aitak jakin zuanean, asarre jarri zan ta mutillari ots egin ta esan zion:

—Nere alabak eraztuna galdu dik osin ortan dabillen bitartean, juan bertara, ta eraztun ura gabe ez etorri neregana.

Motillak nai izan zuan zerbait esan, baño besteak ez zion utzi. Juan zan bada osin artara ta an urari begira gelditu zan, zer egin ez zekiala. Ortan, beste aldietan bezela alaba on ura etorri zitzaion, oraingoan bere aitak zer lan eman ote zion galdetzeraz.

—Zuetako batek eraztuna galdu omen du osin ontan, -esan zion motillak- ta eraztun ori gabe bere aurrera ez juateko agindu dit.

Neskeak orduan ekarri zuan botella aundi bat, eta motillari esan zion:

—Ikusten al dezu botella au? Ni dana txikitu eta sartu nazazu bertan, baño kanpoan ezer utzi gabe eh! Gero bota zazu botella ori osin ortara, ta pill pill... botellea ur gaiñera datorrela ikusten dezunean, artu ta atera kanpora. Botellaren puntan egongo da eraztuna.

Motillak dana neskeak agindu zion bezela egin zuan. Txikitu zuan neskea, sartu zuan botellan odol ta guzti, taaa plas-taaa... bota zuan osiñera. Gero ur gaiñera pill pill pill... azaltzen asi zanean, eldu bi eskuekin, ta atera zuan. Eraztuna an zegon botellaren muturrean ta bera artu zuanean, botella aundi ura autsi egin zuan. Neskea len bezelaxe azaldu zan bere aurrean. Gorputz guzia ikusi zuan osorik ote zegon, eta eskuko beatz txikia palta zitzaiola kontu artu zan. Izan ere, motillak ez zuan beatz txiki ura botellan sartu.

—Onegatik bakarrik ez da ezer, -esan zion neskeak motillari-ñori ez esan emen egin degunik.

Oraingoan ori esatea alperrikakoa izan zan. Beste bi alaba gaizto aiek leiotik begira zeuden ta dana ikusi zuten. Laster asko esan zioten aitari ikusi zuten guzia.

Motilla etxera etorri zanean, etsai zaarrak beti bezela galdetu zioni

—Erantzuna ekarri al dek?

—Bai, ara emen, au al da? -esan zion motillak erantzuna erakutsiaz.

—Ori dek bai, -erantzun zion etsai zaarrak erantzuna artuaz-banekian bai nik, erorri baño laguntzallerenbat ohea baekala!

EZKONTZA

Andik denbora puska batera, etsai zaarrak erabaki zuan, bere iru alaba aietako bat motill arekin ezkontzea. Ondo zekian motillak alaba onarekin ezkondu naiko zuala, baño au gertatu ez zedin, gauz bat asmatu zuan. Ots egin zien bere iru alaba ta motillari bere aurrera, ta alabeeri begiratuaz, esan zien:

—Motil au, zuetako batekin ezkontzea pensatu diñat, baño motillak berak aukeratu bear diñ zeñekin ezkondu. Zuek iru neskaok sartuko zerate orko koarto illun ortan, gero sartuko den motilla ere, ta ortik eskutik artuta ateratzen duana, uraxe izango den aukeratua. Baño, ez gero itzik egin koarto barruan!

Neska on arek, bere eskua erakutsi zion motillari, beatz bat palta zuela ta ortik ezagutuko zuala adieraziz.

Sartu ziran iru alabak koarto illunera, ta motilla ere bai, aien ondoren. Neskaak ixill ixillik zeuden baño motillak baten eskuak artu zituan, ta amar beatzak an zeudela ikusi zanean, ura utzi ta bestearengana juan zan. Berdin gertatu zitzaion onekin ere. Irugarrenaren eskuak ikutu zituanean, laster konturatu zan esku bateko beatz txikia palta zala. Berealaxe neska on ura eskutik artu, ta kanpora atera zan.

Etsai zaarrak ikusi zanean:

—Ori ere egin dek? -esan zion, eta besterik ezer esan gabe juan zan andik.

Arratsalde artan bertan ezkondu ziran motilla ta alaba on ura.

Gau artan, beste danak oira juan ziranean, etsai zaarra sukaldean gelditu zan, su ondoan. Senar emazte berri aiek gau artan-txe iltzeko asmoa artu zuan ta baita burrunzti aundi bat surtan jarri ere, ondo guritu zedin. Denbora alditxo bat pasa zanean,

juan zan etsai zaarra ezkonberriak zeuden koartora ta galdetu zien:

—Lo artu dezute?

—Oraindik ez! -erantzun zioten barrundik.

Alaba ezkonberri ura kontu artu zan, bere aitak ez zebillela gauza onik, eta orrela esan zion senarrari:

—Gure aita asmo txarren batekin dabil. Gu iltzeko ibilliko da. Iges egin bearko degu aldegun azkarrena etxe ontatik. Ni emen geldituko naiz, eta zoaz ikullura zaldi bat prantatzera. Bi zaldi daude ikulluan, bat pentsamentuak aiña korritzen duana, eta bestea aizeak aiña. Onena artu ehhe?

Gizon gaztea jeiki zan oitik, jantzi zituan erropak eta juan zan ikullura. An zeuden bi zaldiak, zeñ baño zeñ edarragoak. Gizon gazteak, jarri zion sillea bati, ustez itxura onena zeukenari, ta atarira eraman zuan. Zaldia atarian utzi ta gizon gaztea koartoa juan zan andreari esatea:

—Zaldia pronto dago, goazen nai badezu.

—Oraindik pixka batean ez daukagu juaterik, erantzun zion andreak,- aurrena ekarri zazu ganbaratik zagi bat ardo, gure oian jartzeko.

Gizona ganbarara zagi billa juan zanean, andrea jeiki eta jantzi egin zan, gero poltsa batean gauz batzuek artu zituan bera-rekin eramateko. Gizonak zagi ardoa ekarri zuanean, oian jarri zuten ondo estalita, norbait bazegon bezela. Koartotik ateratzeko zeudela, etorri zan etsai zaarra galdezka:

—Lo artu dezute?

—Oraindik ere ez! -erantzun zioten.

—Ez daukazute lo gure aundirik gaur gauean! -esan, eta etsai zaarra sukaldera juan zan berriz ere.

Bitartean, andra gazteak txistu pillo aundi bat bota zuan koartoran, alditxo batean bere orde zetsai zaarrari erantzuteko. Gero, senar emazte biak atarira jetxi ziran zaldia artzera, iges egiteko. Emaztea bereala kontu artu zan zaldia ikustean, ez zala pentsamentuak aiña korritzen zuana, orregatik esan zion senarrari:

—Ez dezu zaldirik onena aukeratu, onekin abiatzen bagera, bereala arrapatuko gaitu, onek aizeak aiña korritzen du.

—Onuzkero orrela bearko du bada, -erantzun zion gizonak.

Biak zaldi gaiñera igo ziran, ta aizeak aiña korrituaz, alde egin zuten andik.

Etsai zaarra ere, pazientzia galtzen ari zan, ta esnai edo lo, bi gazte aiekin egin bear zuana lenbailen egitea erabaki zuan. Berriz ere juañ zan ezkon-berrien koartoa, ta bestetan baño ixillago galdetu zien:

—Lo artu dezute?

—Oraindik ere ez! -erantzun zion barrundik, andreak koartoañ bota zuan txistu pillo arek, baño motel motel, erdi loañ bazegon bezela.

Etsai zaarra egon zan an bertan denbora pixka batean, ta berriz ere galdetu zuan:

—Lo artu dezute?

—Oraindik ere eee... -izan zan erantzuna, txistu pillo areñ indarra gastatu zan.

—Baoan garaia lo artzeko!, -esan, eta etsai zaarra sukaldera juañ zan. Artu zuan surtan guri guri eginda zeukan burruntzia, juañ zan berriz koartora, a ixil ixillik oi ondora gertuatu taaa... zasta zasta... oi guzia zuloz josita utzi zuan. Bereala asi zan ardoa oitrik erortzen, eta etsai zaarrak odola zalakoan:

—Zuek ez didazute beintzat geiago buru austerik emango -esan, eta lotara juañ zan.

Urrungo goizean jeiki zanean, etsai zaarra pozik zegon eta bi alaba gaizto aieri orrela esan zien:

—Bart ill zetiñat (dizkiñat) nik -beste bi oiek, ta orain, zulo aundi bat egin soroan ea antxe sartuko zetiñagu (diskiñagu).

Zuloa egin ondoren koartoa juañ ziranean, pentsatzekoa da, nola jarriko ziran irurek koartoa dana ardoz blai eginda ikustean, ta ildakoen ordeñ, zagi azal bat besterik ez oi barruan.

—Ni baño azkarragoak ditun! -esan zuan etsai zaarrak eta ikullura juañ zan zaldiek an ote zeuden ikustera. Pentsamentuak aiña korritzen zuana an zegola ikusi zuanean:

—Ala ere ez dek ezer au emen dagonean! -esan zion bere buruari.

Laster prantatu zuan zaldia ta bere alabei esan zien:

—Ni banatxoan aien ondoren, ta arrapatzen bazetiñat...!

—Bertan ill itzatzu! -erantzun zioten, alaba gaizto aiek.

Etsai zaarra asi zan batetik bestera bide guziak korritzen, izan ere, toki batean pentsatzen bazuan, an zegon berealaxe.

Alako batean iruditu zitzaion zaldizko bat ikusi zuala ta,

autza (ara) juan zan. Baño bere alaba on ura ere kontu artu zan bere aita an inguruan zebillela, ta poltsan zeramatzan (zeramazkian) goraitz batzuek lurrera bota zituan. Goraitz aiek, jainkozko indar bat zeukaten eta bereala asi ziran esaten:

—Emen gaituk, emen gaituk...!

Etsai zaarrak otsa entzuten zuan, baño iñor ez zuan ikusten, ta an ibilli zan batetik bestera goraitzen indarra bukatu zan arte. Otsa ixildu zanean, etsai zaarra asi zan berriz ere batetik bestera, ta laster ikusi zituan nola zijoazten biak zaldi gaiñean. Andra gaztea kontu artu zan ta eratzuna bota zuan lurrera, au ere goraitzak bezela asi zan:

—Emen gaituk, emen gaituk...! oska, indarra bukatu zitzaion arte.

Berdin gertatu zitzaion titara, jostorraz eta beste gauza batzuekin. Azkenean ezer geiago botatzeko ez zeukanean, andreak esan zion senarrari:

—Geiago ez daukat ezer botatzeko ta laster arrapatuko gaitu berriz ere. Sartu gaitzen or ikusten dan gari soro ortan, ta garia ebakitzen asiko gera.

Ta antxe gelditu ziran. Zaldia izkutatu zuten sasi baten atzean, ta bi baserritar baziran bezala, garia ebakitzen asi ziran.

Etsai zaarra iritxi zan autza (ara), ta an norbait bazegola ikustean, beregana juan ta galdetu zien:

—Ikusi al dituzute emen ola ta ola, senar emazte batzuk, zaldi edar baten gaiñean pasatzen?

—Aspaldi ontan ez beintzat, -erantzun zioten besteek-. Lenago bai, pasatu zan emendik zuk esaten dezun bezelako zaldi eder bat, neska motillak gaiñean zeramazkiala.

—Noiz izan zan ori? -galdetu zien etsai zaarrak.

—Baaaa... -esan zioten besteek- guk soro ontan garia egin genduenean.

—Eneee...!, Azaroa bat -asi zan etsai zaarra illak kontatzen eskuko beatzekin- Abendua bi, Ilbeltza iru, Otsailla lau, Martxo bost, Apirilla sei, Maiatza zazpi, Garagarrilla zortzi, Uztea bederatzi... tokitan zeudek onozkero...!

Etsai zaarra bere etxera itzuli zan, ez zituala arrapatuko etsita. Bere bi alaba gaizto aiek zai zeuden ta iritxi orduko galdetu zioten:

—Il al dituzu?

Ill al dituzu?

—Ill?, ez da ikusi ere, -erantzun zien etsai zaarrak.

—Garia ebakitzen ari ziran aietxek ziran eta...

—Ez den egia izango...!, esan zuan etsai zaarrak, eta zalditik jetxi ere egin gabe, berriz ere soro artara itzuli zan. Baño ordurako senar emazte aiek andik alde eginda zeuden. Etsai zaarra asi zan berriz ere batetik bestera, urruti ez zirala izango

—Emen degu berriz ere! Zer edo zer egin bearko degu.

An inguruan ermita bat bazegon, ta antxe sartu ziran biak. Bat ate ondoan gelditu zan ta bestea kanpaiak jotzen asi zan.

Iritxi zan etsai zaarra ta galdetu zien:

—Zer egiten dezute emen?

—Ementxe, -erantzun zioten-, ermitatxo auxe zaintzen, laster asiko da Meza nai badezu entzun.

Ze Meza ta zeee...! -esan zien etsai zaarrak- ikusi al dituzute emen bi gazte zaldi eder baten gainean?

—Gu oso txikiak giñala ta ermita au egiten ari ziranean, pasatu ziran emendik, -erantzun zioten besteek.

—Arrapaturik zeuzkat orduunn... -esan, eta etsai zaarra berriz ere bere etxera itzuli zan.

An zeuden leen bezela zai beste bi alaba gaizto aiek, eta iritxi orduko esan zioten:

—Ill al dituzu oraingoan?

—Zeiñ ill...? -esan zien etsai zaarrak.

—Ermitan zeuden aietxek ziran zure alaba ta bere senarra.


—Aiek baziran ez baziran, -erantzun zien etsai zaarrakonuzkero orrela bearko diñea, ni ez natxoan geiago oien ondoren.

Beste bi ezkonberriak ibilli ziran oraindik egun batzuetan jo batera ta jo bestera, beti bildurrez. Azkenean ikusi zutenean ez zetorrela geiago etsai zaar ura, biak senarraren jaiotetxera jua ziran. Onen aita, ama eta senideak asko poztu ziran, beren seme ta anaia ondo zegola ikustean. Oraindik geiago poztu ta arritu ziran zer gertatu zitzaion dana kontatu zienean, ta an berarekin zekarren emakume eder ura, bere emaztea zuala jakitean.

—Ta dana, zuri eskerrak aita, -bukatu zuan, motill juan, ta ezkonduta etorri zanak, - eskerrak sorta egur aundiegia egin eta laguntza bearrean gertatu ziñalako, ortik etorri dira neretzat ondasun guziak.

Andik aurrera danak pozik eta pakean bizi izan ziran urte askoan.

Nere aita zanari enzuna.



ETSAI ZAARRA TA SAGARRA

Bein bizi omen ziran etxe batean, aita eta iru seme. Bi seme zaarrenak sasoikoak eta osasun onekoak omen ziran, gazteena berriez, argalagoa eta osasuna ere, nolabaitekoa zuana. Sagasti bat zeukaten etxe ondoan dana sagarrez beteta, ta gauero norbaitek sagar ale bat arrapatzen zien arbola batetik, eta beti bertatik. Aitak ondo kontatuta zeuzkan sagar ale guziak, eta orregatik, goizean sagastira juaten zanean, bereala antz ematen zuan, sagar ale bat palta zala.

Iru semeetan zaarrenak pentsatu zuan, sagastia gauez zaindu egin bear zuala, ta orregatik esan zion aitari:

—Emaidazu ezpatea, eta gaur gauean ni geldituko naiz sagastia zaintzen, eta ez du iñork emendik sagarrik eramango.

Egon zan motilla gau guzian zai ta zai, ta ez zan kontu artu lapurrik etorri zanik. Beti bezala goizean aita azaldu zanean, esan zion;

—Gaur beintzat ez da paltako sagarrik, emen egon naiz ni gau guzian eta ez da iñor azaldu.

Aitak begiratu zion sagar arbolari, eta antz eman zion sagar ale bat palta zitziola.

—Atzo illuntzean onoko ontan zegoan sagar bat, eta orain ez zegok, beraz norbait ibilli dek emen.

Bigarren semeak gelditu nai izan zuan urrengo gauean, eta

oni ere berdin gertatu zitzaion. Bera kontu artu gabe, sagar ale bat arrapatu.

Orduan irugarren semeak esan zien:

—Gaur gauean ni geldituko naiz, emaidazue ezpatea.

—I txikia aiz oraindik, -erantzun zioten- lapurra etortzen bada, erorri eramango au.

Baño anai txikiena bereekin atera zan. Ondo illundu zuanean, artu ezpata, ta sagar arbola ondoan jarri zan. Gau guzian egon zan zai, zai, ta ezeren arrastorik ez. Ia etxi zuanean iñor ez zala etorriko, etxera juatea pentsatu zuan. Orduantxe sentitu zuan ots bat, norbaitek paiteko arriak moitzen bazituen bezela. Begiratu zuan ondo, ta atzapar beltz aundi bat ikusi zuan, arri artetik nola azaltzen zan. Motillak artu zuan ezpatea, taaaa... Zast...! berealdiko kolpea eman zion atzapar ari.

Aita etorri zanean, ta arbolara begiratu, bereala esan zuan:

—Gaur ere palta dek sagar bat. Iñork ere ez dezute balio sagarra zaintzeko.

—Berea artuta jua da gaur, -erantzun zion seme gazteenak- Ez det uste berriz onera etortzeko gogorik izango duanik.

Gero jua ziran paite ondora, ta an ikusten zan odol arrastoa garbi garbi. Iru anaiek erabaki zuten, odol arrasto aren ondoren jua bear ziela, ta orrela jakingo zutela lapurra zeñ zan.

Atera ziran etxetik, eta egun guzian ibilli ziran jua ta jua, odol arrastoari segituaz. Mendi aundi baten ondora iritxi ziran, odol arrastoa, sasia ta zikiña besterik ez zegon toki batean sartzen zan. Baiño motill aiek ez zeuden gelditzeko, ta nola edo ala aurrera seitu zuten. Leize zulo aundi baten ondora iritzi ziran, an barruan sartzen zan odol arrastoa.

—Emen sarturik izango dek, -esan zien anai gazteenak beste bieri- soka bat gerrian lotu, ta jeitxiko nok ni leizean beera, zuek eutsi sokeari goitik.

Esan bezela, soka bat lotu gerrian, ta asi zan motilla leizean beera jeixten. Ta beera ta beera zijoala, neska eder bat ikusi zuan ertz batean eserita zegola.

—Zer egiten dezu emen?, -esan zion motillak.

—Ementxe zeñ azalduko dan zai. Ni errege baten alaba naiz ta etsai zaar batek ekarri nau onera, ta ez dakit zer egingo didan. Nik baditut beste bi aizpa, ta aiek ere or dira nunbait barruan.

Motilla arrituta gelditu zan itz oiek entzun zituanean. Bereala askatu zuan gerrian zeukan sokea, ta erregearen alabari lotu zion esanez:

—Leize gaiñean daude nere bi anai, ta aiek igoko zaituzte orain. Gora iristen zeranean, bota berriz ere sokea, beste aizpek igotzeko.

Erregearen alaba oso pozik jarri zan eta ez zekian nola esker-rak eman motill ari. Azkenean, atera lepotik, eta eskapulario bat eman zion esanez:

—Eskapulario au norbaiti sartzen badiozu, zuk nai dezuna egingo du arek.

Gero motillak ots egin zien goian zeuden anaiei, sokari tira egiteko, ta orrela atera zuten leize gaiñera erregearen alaba. Motilla leize barruan gelditu zan, sokea noiz botako. Iritxi zitzaionean, lotu zuen berriz gerrian, ta beera ta beera juaten asi zan.

Erregearen bigarren alaba ikusi zuanean, oni ere besteari bezela lotu zion sokea gerrian. Gora igo baño leen, erregearen alabak urrezko errosario bat eman zion motillari esanez:

—Errosario au zurekin dabiltzun bitartean, gauza guziak ondo aterako zaizkizu.

Gero goiti sokeari tira egin zioten, ta erregearen bigarren alaba ere leize gaiñera atera zuten.

Berdin gertatu zitzaion erregeari irugarren alabarekin. Onek craztun bat eman zion motillari esanez:

—Eratzun onen jabearekin ezkontzen bazera, errege izatea iritxiko zera.

Erregearen iru alabek leize gaiñean ikusi ziranean, elkarri elduta negarra ta parrea biak egiten zituzten, ezin zuten siñistu ere, orrela beren buruak ikusterik. Bi anaiek berriz, aiei begira txorutzen zeuden. Azkenean, berandutu egingo zitzaicela ta, errira abiatu ziran. Iñor ere ez zan akordatu leize zuloan gelditu zan anai artaz, ta ez zioten sokarik bota.

Motil gizajoa egon zan aldi batean zai ta zai, sokea noiz iritxiko, ta azkenean, etxi zuanean, beerago ta beerago jeixten asi zan al zuan bezela. Nun zebillen ere ez zekiala, iritxi zan illunpeta artan leizearen azpiraiño. Alako batean ikusi zuan baztar batean, su erraiño bat bezela. Juan zan autza, ta ikusi zuan arri tarte batean sua zegola, ta ondoan gizon zaar bat eserita. Eltze aundi

bat ere bazegon surtan. Gizon zaar ura laister konturatu zan an norbait bazebilla, ta begiratu ere gabe galditu zion:

—Zer egiten dek emen?, nola etorri aiz oneraíño?

—Al dedan bezela, -erantzun zion motillak- ez da errexa izan. Odol arrasto baten ondoren etorri naiz. Zu al zera gure sagastik sagarrak arrapatzen dituen?

Gizon zaar ura etsai zaarra zan, erek zeuzkan erregearen alabak ere leizea ekarrita, banaka banaka jateko. Etsai zaarra oso asarre jarri zan, sagar kontua aitu zuanean. Katu beltz aundi bat ere bazegon an su ondoan, ta au ere miauka ta dana illea arro arro eginda jarri zan, bi begietatik sua zeriola. Uste gabean saltatu zan motillaren aurpegira, ta bi begiak atera nai ziotzan (zizkion) bere atzaparrekin. Motillak eldu zion lepotik, eta baztar batera botatu zuan.

Motillak ikusi nai izan zuan zer ote zegon surtako eltze aundi artan.

—Zer daukezu eltze ortan egosten?, -galdetu zion etsai zaarrari.

—Ik ez daukek ori jakin bearrik -erantzun zion onek.

Baño motillak kendu zion eltzeari estalia, ta an ikusi zuan atzapar aundi bat zegola, sagar bat beatz tartean zeukala. Motillak etsai zaarrari moztu zion atzaparra zan, goizean arrapatu zuan sagarrarekin.

—Zertan daukezu atzapar ori or? -galdetu zion motillak.

—Esan diat, -erantzun zion etsai zaarrak, -ik ez daukeala ori jakin bearrik.

Bitartean, etsai zaarra surtan zegon burruntzi bat artzen asi zan motillari sartzeko asmoan. Katua ere an zebillen miauka, berriz ere motillaren aurpegira saltatu naiean bi begiak ateratzeko.

Orduan motillak artu zuan erregearen alaba aietako batek eman zion eskapularioa, taaa... zas... sartu zion etsai zaarrari burutik beera... Etsai zaarrak eskapularioa bularretik zintzilik ikusi zuanean, a burruntzia utzi lengo tokian, ta oska asi zitzaion motillari:

—Kendu idak eskapulario au, ta nai deana emango diat.

Katu beltz ura berriz izkutatu zan, izan ere, katua ta etsai zaarra, biak bat ziran.

Motillak, etsai zaar ura bere mende ikusi zuanean, leizearen
aiñeraiño ateratzeko agindu zion.

—Jarri ari nere bizkarrean, -esan zion etsai zaarrak.

Motilla jarri zan zankalatra etsai zaarraren gaiñean, ta aize
burrundara batean bezela igo ziran biak leizean gora. Onera
ristean, etsai zaarra ez zan ixiltzen:

—Kendu idak orain eskapulario au, ta erorrek nai deana
emango diat.

—Kenduko diat, -erantzun zion motillak, -baño eraman nazak
enengo erregearen palazio ondora.

Laister eraman zuan etsai zaarrak, palazio ondo artara. Erri
guzian zabaldua zegon, erregearen alabek azaldu zirala, ta jende
guzia pozik zegon. Palazioan berriz, danak erdi txoratuta zebil-
tzen.

Bitartean, etsai zaarra ez zan ixiltzen:

—Kendu idak eskapulario au, kendu idak eskapulario au...

—Kenduko diat bada, -esan zion motillak, -baño aurrena atera
zak mingaiña kana erdi bat.

Etsai zaarrak atera zuan mingaiña, ta motillak, artu zuan ez-
patea etaaa... zas!... moztu zion ondo ondotik. Gero jarri zan etsai
zaarraren burua bere buruarekin jotzen zuala, ta artu eskapularioa
ta bere burutik beera sartu zuan.

—Orrek on egin dik!, -esan zion etsai zaarrak, -bestelaaa...!

Ori esan, eta etsai zaarra sua zeriola izkutatu zan, ta geiago
etzan aren arrastorik izan.

Motillak ere, etsai zaar arekin juan bearko zuan, eskapularioa
burutik beera sartzeko orde, eskuan artu edo poltsikoan sartu
izan balu. Orregatik esan zion etsai zaarrak: "Orrek on egin dik!".

Bakarrik gelditu zanean, pena izan zuan motillak, palazio ar-
tako jende guzia alako pestan ikustea, ta bera an ez egotea. Pen-
tsatu zuan, etsai zaarraren mingaiña artu, ta jende guzi ura burru-
kan jartzea... baño, danak an utzi, ta bere etxera juan zan, lo pix-
ka bat egiñen bearra bazeukala ta.

Urrengo goizean juan ziran aita eta biak sagastira, sagar gu-
ziak an ote zeuden edo ikustera, eta ez zan sagar ale bat ere
palta.

Beste bi anai zaarrenak ez ziran geiago etxera azaldu, erregea-
ren palazioan jarri ziran bizitzen. Gazteena ere, egon zan aldi ba-

tean bere etxean aitari laguntzen, baño azkenean aspertu zan, ta errira juan zan.

Errira iritxi zanean, berealdiko pestak zeuden egun artan. Galdetu zuan zer gertatzen zan pesta egiteko, ta esan zioten, erregearen bi alaba zaarrenak ezkontzen ziralta, leize zulutik atera zizutzen bi motill aiekin. Galdetu zuan irugarren alabak zer egiten zuan, ta iñork ez zekian aren berri.

Motilla asarre jarri zan, erregearen bi alabek eta bere bi anaiek berari eta aitari kasorik egin gabe ezkontzearekin. Juan zan jende guzia dantzan zebillen plazara, ta bazter batean jarri zan. Atera zuan etsai zaarrari kendu zion mingaiña, ta anka-pean artuaz, mingaiñari agindu zion:

—Miari, miari, emaiok lepoko miña, or dantzan dabillen jendeari. Plazan zebillen jende guzia jarri zan lepoak okertuta. Aurrenetik danak parre egiten zuten bata bestea orrela ikusita, baño, laister miñez ezin egonik, bakoitzak bere etxera jua bear izan zuan. Etxera orduko kendu zitzaizen miña. Danak arrituta zeuden.

Urrengo egunean berdín gertatu zan. Plaza guzia jendez beteta zégon, eta danak dantzan zebiltzan.

Motillak artu zuan etsai zaarraren mingaiña anka-pean, ta esan zion:

—Miari miari, emaiok anketako miña, or dantzan dabillen jendeari.

Jende guzia asi zan errenka, ta dantza egiteko gogoak jua ziran. Irugarren egunean berdín gertatu zan. Jende guziak esaten zuan, an bazegola sorgiñkerirenbat.

Bitartean, erregearen alaba gazteena triste zégon, ura ez zan jua dantza egitera. Motill aberats asko, eta beste errege batzuen semeak ere, juaten ziran berarengana berarekin ezkondu nai zutela ta... baño iñori ez zion baiezkorik ematen. Erregea ere kezkatuta zégon bere alaba arek zer ote zeuken. Alegiñak egiñagatik, iñork ez zion ezer ateratzen, ta egunetik egunera gaixotzen ari zan.

Pestak bukatu ziranean, motill ura jua zan erregearen palaziora, ta an azaldu zitzaizkion morroiari esan zien, erregearen alaba gazteenarekin egon nai zukeala.

—I bezelako motill argal ta arlotearekin itz egiteko ez zegok ura! -esan zioten- ta gaiñera, gaixorik zegok.

Gaixorik zegola aitu zuanean, motillak gogo aundiagoa artu zuan bera ikusteko, ta morroi aiei esan zion, erregeari ots egiteko.

—Juan ari emendik, —esan zioten morroi aiek, palazioko ateak itxi, eta barrua sartuaz.

Motilla, zer egin ez zekiala gelditu zan. Orduan akordatu zan erregearen bigarren alabak eman zion errosario artaz. Errosario ura berarekin zebillen bitartean, gauza guziak ondo aterako zitzaio-tzela, (zitzaizkiola) esan zion erregearen alabak. Atera zuan poltsi-kotik errosarioa, ta esan zion:

—Nola edo ala, erregearekin egon nai nuke.

Laister azaldu zan erregea bera ate ondoan, zer nai zuan gal-dezka.

—Nik badauket gauzatxo bat, -esan zion motillak- zure alaba gazteena sendatuko duana. Ortarako ordean, berarekin egor nai nuke.

Erregeak ez zuan lenengotik aintzakotzat artu nai izan, baño, pentsatuaz bere alaba gaixo zegola, berarekin palaziora sartzeko esan zion.

Erregearen alaba zegon tokira jua ziranean. motillak artu zuan eskuan, arek leize zuloan eman zion eraztun ura, ta esan zion:

—Ezagutzen al dezu eraztun au?

Eraztuna ikusi orduko, erregearen alabaren begiak argitu ziran. Orregatik erantzun zion motillari, parre txiki bat egiñez:

—Ezagutuko ez det bada? Baño zeñiek eman dizu eraztun ori?

—Zerorrek -esan zion motillak- etsai zaarrak eramanda, leize zuloan zeundenean.

Erregearen alabak eta motik arek ez zuten alkar ezagutzen, izan ere, leize zulo artan oso illun zegon, eta batak bestea ez zuten ikusi.

Erregearen alaba gazteena biotz onekoa zan, ta bera salbatu zuan motilla azaldu zala ta, pozik jarri zan, sendatu ere, berea-laxe egin zan.

Ordutik bertatik jarri zan motill ura, palazioan bizitzen.

Denbora puska baten ondoren, erregearen alaba eta motill ura, biak ezkondu ziran.

Naiz eta alabarik gazteena izan, au zan erregeak maiteena

zuana, ta bera egin zuan erregiña, ta bere senar, motill argal, ar-
lote ura, errege.

Orrela bete zan alaba arek motillari eraztuna ematekoan esan
ziona:

—Eraztun onen jabearekin ezkontzen bazera, errege izatea
iritxiko zera.

Erri guzian bereala jakin zan errege ta erregiña berriak
zauzkatela, ta beiñere baño pesta aundiagoak egin zituzten.

Errege berriak, bere aita ere palaziora ekarri zuan, ta beste bi
anai aiek ere an gelditu ziran.

Koroi berria egitekoan, urrezko sagar bat gaiñean jartzeko
esan zien erregeak. Eskapularioa eta errosaioak, berarekin jaso zi-
tuan. Eraztuna berriz, bere emazteari utzi zion.

Andik aurrera, errege ta erregiña, ta beste guziak, oso ondo
bizi izan omen ziran.

ETSAI ZAARRA TA MENDIKO LEOIA

Bein bizi omen zan erri batean, famili bat oso beartsua. Aita amak eta semea, irurak bakarrik ziran. Lur gutxi zuten eta orregatik bizi ziran estu estu.

MORROI

Motilla aspertu zan orrela bizitzen, eta noabait juatea erabaki zuan. Ta baita jua ere.

Goiz batean, iñori ezer esan gabe, artu zuan pardeltxo bat, bear bearrezko jantzi batzuek an zituala, ta bideak aurrera abiatu zan, noa zijoanik ere jakin gabe. Etxetik ateratzekoan amari esan zion:

—Ni banoa emendik, ama.

—Noa umea? -erantzun zion amak erdi negarrez.


—Ez dakit, baño nolana ere emen aiñean izango al naiz. Uste det laister azalduko naizela berriz.

—Ala izan dedilla, -erantzun zion amak. Eta orrela bata besteagandik apartatu ziran.

Motilla denbora askoan ibilli zan erri batetik bestera, iñun ere ez zegon lanik arentzat. Baño bizi bear, ta zerbait jango bazuen, batzuetan lan gogorrak egitea beartua arkitzen zan. Majinabat

lan klase probatu zituan: artzai, itzai, ikazkin, argin eta beste asko, baño beñere ez bere gustokorik. Danetan bereala aspertzen zan.

Azkenean jakin zuan, mendi batean bazegola baserri bat, aita ta alaba bat bakarrik bizi zirana, ta autzaxe juatea pentsatu zuan, zer gerta ere.



—Zer bear dek emen?, -esan zion etxe artako nagusiak, motilla gertuatu zan ordurako. Nagusi ori zaar xamarra zan ta oso itxusia, gañeara zakar utsa, itxuraz beintzat.

—Emen neretzat lanik ote daukazuten edo etorri naiz, -erantzun zion motillak, burua makurtuaz.

—Lana obeto zegok emen besterik baño, -erantzun zion nagusiak. -Ta, ik, zer lanetan dakik?

—Nikk..., -erantzun zion motillak- ori probatuta gero esango didazu.

—Ondo zegok. Taa... zenbat soldata eskatzen edoo... -esan zion gizon zakar arek.

—Ez dakit bada... Ori lanak erakutsiko du, ez? -erantzun zion motillak, burua gora jasoaz.

Motilla gustatu egin zitzaion gizon zakar ari, ta pixka batean pentsatzen bezela egon ondoren, orrela erantzun zion:

—Ondo zegok, ondo zegok, gelditu ari emen, taaa... lanik eta janik ez zak paltako.

Ta ordutik bertatik motill ura etxe artan gelditu zan, morroi bezela. Gizon zakar aren alaba, ez zan aitaren antzekoa. Oso neska edarra zan ta goxoa eta argia, gauzeri azkar antz ematen ziena. Morroia ta biak bereala elkarrekin ondo etorri ziran. Azken aldi artan lan gogorretan oitua zegon, ta morroiari ez zitzaion batere zailla iruditzen etxe artako bizitza. Gañera geroz geiago sortzen ari zitzaion alaba arenganako maitasuna bere barruan.

Etxeko nagusia, gizon zakar ura, erabat gaiztoa zan, ta gañeara azkarra, ez zitzaion ezer izkututzen, izan ere gizon ura, etsai zaarra zan. Alabak bazekian ori, ta berealdiko gorrotoa zion, naiz bere aita izan.

Morroia ta bere alaba elkarrekin ondo etortzen zirala antz eman zuanean, etsai zaarrak morroia etxetik botatzea erabaki zuan, naiz eta langille ona izan eta bearrezkoa.

Beñ orrela agertu zion alabari:

—Lenago ere morroirik gabe bizi izan giñuztenan, ta nik uste diñat berriz ere gabe bizi giñezkela.

—Zer bada?, -esan zion alabak.

—Ez zekiñat bada... motill ona ta langillea den, baño... etxe onek ez zeukan orri pagatzeko ainbat...

Alabak ez zion ezer erantzun, geiegi ezegutzen zuan bere aita, ondo zekian, arek nai zuana egin bearke zala.


Alaba al zuan azkarrena morroiarengana juan zan, ta zer gertatzen zan dana esan zion, ta bitartean ixillik gordeta bazeukan ere, orduan agertu zion, bere aita etsai zaar bat zala. Bien artean, etsai zaar ura nola edo ala iltzea erabaki zuten. Baño, etsai zaarra izanda, nola ill? Ez zan errexa izango.

Alabak aitu izan zion noizean beñ, bere aitari, aldarte onean zegonen, bera ez zala ilko ta iñork ere ez zuala ilko, alako ta alako gauza batzuek gertatzen ez baziran. Alabak ez zion beñiere kaso aundirik egin, baño orain pentsatzen asi zan zer esan nai oteko zuan. bere aitak, eta nola edo ala aterazi bear ziola, iltzeko

kontu ori. Morroia ta biak bat eginda jarri ziran, al zuten ondo-ena ibiltzeko, etsai zaarra asarratu gabe, orrela bera nola ill aterako ziotela ta.

Ta garai ori iritxi zan. Etsai zaarra beñere baño obeto eta goxoago zebillen bolara artan. Uda denboran, etxe aurreko aulki batean eserita egin oi zuten bere lo alditxoan, piku aundi baten itzalean. Beñ alabak esan zion motillari:

—Gaur bazkal ondoan igo zaite atariko piku arbolaren gaiñera, ta an ondo izkutatuta jarri. Ni saiatuko naiz aitari itz egin arazten, azpiko aulkian eserita dagon bitartean. Ikusiko degu zerbait ateratzen zaion.



Morroia, lan gogorak egitea beartua arkitzen zan.

Esan bezela egin zuten. Bazkaria bukatu orduko, motilla igo zan piku gaiñera, ta an ondo izkutatuta jarri zan. Etsai zaarra eta bere alaba ere etorri ziran aulkian esertzera. Biak eserita jarri ziran, alabak aitari galdetu zion:

—Nai al dezu burua pixka bat garbitu ta ille oiek orraztea?

—Nai denana neska, -erantzun zion etsai zaarrak.

Alaba asi zitzioan illeak garbitzen ta orrazten, ta bitartean ixildu gabe izketan, bat galdetu ta bestea galdetu:

—Aita, zenbat urte dauzkatzu? Alako tokitako aitona zu baño gazteagoa al da? Auzoko etxe zaar artan bizi zirenak, ezagutu al zinduzten?

Azkenean galdetu zion:

—Aita, zuk beiñere pentsatu al dezu ill ziñezkenik?

—Ja, ja..., erantzun zion aitak, parre egiñez -bai umea bai, ta beiñ baño geiagotan pentsatu ere. Baño ni iltzea oso zaila den.

—Zer bada? -galdetu zion alabak.

Bitartean, morroia an zegon piku gaiñean, dana entzuten.

—Lenago ere esan izan diñat zerbait, -asi zan esaten etsai zaarra- Nik anai bat ba zeukenat olako menditan, leoi bezela dabilena. Leoi orren barruan erbi bat zegon, ta erbi orren barruan uso bat. Uso orrek arrautz bat zeuken bere barruan, ta arrautza ori emen -kopetara eskua eramanez- norbaitek leartzen ez bazidan, ni ez non ilko. Pentsatu zan orain, nik zeren bildurra eduki dezakean iltzeko. Leoia iltzen badiñate ere, erbia aterako den, eta erbia ilda ere usoa. Uso ura iltzen badiñate ere, zeñek zekin arek barruan daukan arrautza nere bekoki ontan lertu bear didala? Ez den oraindik jaio ori egin dezakenik.

Udazkena iritxi zanean, etsai zaarrak ikusten zuan neska motillak ondo konpontzen zirala, ta beti, noiz morroia etxetik botako zuan pentsamentu arekin zegon.

Orrela egun batean, lanik aundienak bukatu zirala ta... morroiari esan zion:

—Ikusten diat ire bearra beti daukagula emen, baño aurtengo lanik aundienak eginda izango zetuagu (dizkiagu) eta uste diat alaba ta biok konponduko gerala emendik aurrera. Iretzat obe izango dek, emen baño geiago irabazten dean tokiren batera juatea...

—Ondo dago, -erantzun zion motillak, ni emen oso pozik nengon, baño zuk ala nai dezun ezkerro... biar bertan juango naiz.

—Erorrek nai deanean, -erantzun zion esai zaarrak, pozez lertzeko zorian, ez zuan uste aĩñ errex botako zuanik morroi ura.

Morroia ere ez zan asarre jarri. Izan ere, aspaldi artan zai zezgon etsai zaar arek noiz bialduko ote zuan. Bere kontura ez zuan juañ nai, arek gaizki pentsatu ez zezan. Orregatik, neskea ta biak itz eginda zeuden, etsai zaarra bera izan zedilla juateko esango ziona. Gero motilla juango zala leoia bizi zan mendi artara, leiola ilko zuala, erbia ta usoa era bai, ta azkenean etsai zaarra ilko la, ta biak ezkondu... Ori dana egiten ez zan gauz errexa izango, baño al zutena egin gabe ez ziran beintzat geldituko.

MENDIKO LEOIA

Esan bezela, urrengo goizean atera zan motilla etxe artatik, itxuraz pena aundia artuaz, ta nora bituko zan ez bazekian bezela, baño bere barruan pozez, eta nora zijoan ondo erabakita.



Leoia bizi zan mendi artan... etxe bat bazegon artalde aundia zeukena...

Leoia bizi zan mendi ura aundia zan ta an iñor gutxi bizi zan, artzaien batzuek ez baziran.

Etxe bat bazegon artalde aundia zeukena, ta aita ill berria zalako, ama ta alaba bat gelditu ziran, biak bakarrik. Alaba neska larria zan eta bera ibiltzen zan artzai ta beste lanak egiten, ta artaldea saltzeko asmoan zeuden, morroi onenbat sortzen ez bazan beintzat... Ortan zeudela azaldu zan motilla lan eske... Pozik artu zuten etxean, ta esan zioten artzai ibilli bearke zuala. Motillak besterik ez zuan nai.

Urrengo egunetik asi zan morroi berria, ardiak mendira eramaten. Aurreneko egunetan, neskeak berak lagundu zion artaldea noa eraman, eta larre tokiak nun zeuden erakusteko.

—Mendi au, aundia da -esan zion neskeak morroiari- baño, larre ugariena dagon tokira, ez daukagu artaldea eramaterik. Leoi aundi bat dago an, ta autza (ara) azaltzen diran ardi guziak, txikituta uzten ditu.

Motilla asko poztu zan gauza oiek danak entzutean, eta galdera asko egin ziotzan (zizkion) ondoren, leoi ori gutxi gora bera noiz azaltzen zan, beste artzaiak zer esaten zuten... ta azkenean esan zion bera bakarrik naikoa zala ardiak zaintzeko, ta andik aurrera etxean gelditzeko amari laguntzen, ta berak bakarrik zekian bezelako opill goxo aiek egiteko... Neskeak esku ona zeukan ortarako, ta opillik ez zitzaiola paltako esan zion.

Urrengo egunean, motillak artu zuan artaldea aurretik, eta leoia ibilli oi zan larre edar artara eraman zuan. Laister entzun zan leoiaren orroia, mendi guzia sustraitik ateratzeko bezelako otsa. Ardiak igesi asi ziran, baño motillak gelditu arazi egin zituan. Leoia an azaldu zan baztar guziak txikitu eta jan egin bear bazituan bezela. Baño motillak bazekian zein zan, eta ez zan ikaratu. Leoia asarre bizian aurreratu zan, eta bi ankan gañean jarrita, motillarengana jauzi zan. Biak alkarri elduta burruka gogor bat asi zuten, baño alkar ezin menderatu. Neka neka eginda, ia lertu bearrean jarri ziranean, leoiak esan zuan:

—Ah...! nik alako tokitan bizi dan nere anaiaren begiratu bat baneuke emen!, ez nitek ire bildurrik...

—Ez nik ere irerik, -erantzun zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opill bat eta bere musu bat baneuzke...

Egun artako burruka ortan bukatu zuten. Leoia juan zan mendian aurrera, ta motilla berriz, ardiak artu, ta etxera itzuli zan.

Ama ta alaba asko arritu ziran, ain goiz ardiak etxera ekarri zituala ikusi zutenean. Ardiak naikoa janda zeudela ematen zuten, ta motillak berriz, oso nekatutako itxura zeuken.

Ondorengo egunetan berdin gertatu zan. Motillak ardiak leoiaren barrutian sartu orduko, an azaltzen zan au berealdiko orruak egiñez, eta motillak eta biak burruka saio aundia egiten zuten. Leoiak egunero berdin esaten zuan:

—Ahh! nik alako tokitan bizi dan nere anaiaren begiratu bat baneuke emen!, ez nitek ire bildurrik.

—Ez nik ere, -erantzuten zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opill bat, eta bere musu bat baneuzke!.

Motillak, egunero goiz ekartzen zituan ardiak etxera, baño naikoa janda, ta esnea ere asko ugaritu zitzaien. Egiñalak egiten ziotzaten ama alabak, zer gertatzen ote zan atera naiean, baño alperrik, morroiak ez zien ezer esaten.



Morroiak, goiz ekartzen zituan ardiak etxera.

Alabak goiz batean, mendira juateko erabakia artu zuan, iñori ezer esan gabe, ta an zer gertatzen zan berak ikustekoa. Morroia bere artaldearekin baño geroxeago atera zan etxetik, eta atzetik atzetik, mendiraiño juan zan. Arrituta gelditu zan, morroiak artaldea leoiaren barrutira sartu zuanean, ta oraindik geiago arritu zan leoia azaldu, ta motillarekin burrukan asi zanean. Neskeak ez zekian zer egin, erabat ikaratuta zegon.

Leoiak beti bezela ots egin zuan, burruka saio ondoren:

—Ahh... nik olako tokitan dagon nere anaiaren begiratu bat baneuke!, ez nitek ire bildurrik.

—Ez nik ere, -erantzun zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opil bero bat eta bere musu bat baneuzke!

Leoia mendian aurrera juan zan, ta motillak ardiak bildu zituan etxera itzultzeko. Neskea berriz, burruka ura ikusi, ta itz aiek entzun zituan laisterka etorri zan etxera, baño iñori ez zion ezer esan, ez amari ta ez motillari.

Urrengo egunean, motilla igo zan beti bezela artaldea artuta mendira, eta baita neskea ere bere ondoren, opilla artuta.

Egunero bezela, leoiak eta motillak burruka saioa egin zuteanean, leoiak esan zuan:

—Ahh... nik alako tokitan bizi dan nere anaiaren begiratu bat baneuke! ez nitek ire bildurrik.

—Ez nik ere irerik, -erantzun zion motillak- ni orain bizi naizen etxeko alabak egindako opill bero bat, eta bere musu bat baneuzke!

Neskea, an inguruko maillo baten atzean izkutatuta zegon, ta itz oiek entzutean, laisterka atera zan:

—Tori opilla ta tori musu bat, -motillari esanez.

Motillak artu zuan opilla, eman zion neskeari musu bat, ta gero opill arekin jo zuan leoia kopetan, etaaa... bertan lurrera bota zuan ilda... Motillak tripea ebaki zion, ta erbi edar bat atera zan bertatik eta laisterka igesi juan zan. Motilla ere erbi biurtu zan, ta bereala arrapatu zuan. Erbiari ere tripak atera ziotzan, eta uso zuri edar bat atera, ta igesi juan zan egaka. Baño motilla ere uso biurtu zan, ta aldi batean ondoren juanda, arrapatu zuan. Usoa ill zuanean, arrautz bat zegon bere barruan. Motillak jaso zuan arrautza ura, ta kaja txiki batean sartu zuan autsi ez zedin. Gero neskea ta artaldea gelditu ziran tokira etorri zan. Neskeak

eta biak ardiak bildu zituzten, eta etxera itzuli ziran, kontu kontari.

Alabak kontatu ziotzan (zizkion) amari, ikusi zituan gora bera guziak, ta urrengo egunean inguruko artzaiei ere bai, eta danak, arrituta, pozez gelditu ziran, leoi zaar ura ilda zegola jakin zutenean. Ez zekiten nola eskarrak eman morroi jator ari.

Pena aundia artu zuten danak, batez ere amak eta alabak, motill arek esan zienean, bere egin bearra bete zuala, ta andik jua bearrean zegola. Alegiñak egin ziotzaten an gelditu arazteko, baño alperrik, beste egiteko aundiago batzuk bazeuzkela esaten zien motillak.

Andik egun batzuetara, artaldea ta mendi ura utzi, ta etsai zaarraren etxera jua zan, ondo ote zuen den ikusi aitzikiarekin. Etsai zaarrak, eta batez ere bere alabak, ondo artu zuten, egun batzuetan aiekin egoteko esanez.

Motillak eta neskeak, asko itz egin zuten beren artean, batak besteari zer gertatu zitzaien eta zer egin bear zuten, esanez. Azkenean, aurreko aldian bezela egitea pentsatu zuten. Motilla piku gaiñean izkutatu, eta etsai zaarrak azpiko aulkian lo artzen zua-nean, uso aurrautzea kopetan leurtu... ta ill.

Urrengo egunean, alabak beste egunetan baño bazkari obexa-goia jarri zuan, motilla an zegola taaa... Ondo jan eta edan egin ondoren, motilla jeiki zan maitik, pixka bat atsegitera zijoala ta..., baño atariko piku gaiñera igo zan, ta an izkutatu. Etsai zaarra ta alaba ere atera ziran, ta piku azpiko aulkian eserita jarri. Alditxo baten izketan egon ondoren, etsai zaarra loak artu zuan.

Orduan motilla jetxi zan pikutik, ixil ixillik, artu zuan eskuan uso arrautza, ta: Zastaa...! leartu zion etsai zaarrari kopetan. Au ez zan geiago esnatu. Berak lenago esan zuan bezela, ila gelditu zan.

Andik aldi batera, neskea ta motilla ezkondu egin ziran. Motillaren aita eta ama ere, baserri ortara ekarri zituzten..., taaa... geroztik oso ondo bizi izan omen ziran.

D. Joxe Migel Barandiaranek badakar kontu zaar onen eratsuko beste bat: "Canillo arrantzalea ta Canillo-Txiki". Obras Completas, Tomo II, pág. 301.

MORROI AZKAR BAT

Lur eta aberastasun aundiak zeuzkan etxe batean, nagusi petral bat bizi zan, iñortxok ere bere gustorik betetzen ez ziona. Morroi bat juan ta bestea etorri, iñork ez zuan arekin aguanta-tzen, danak bazituzten aitzikiak, etaaa,... edo beren gogoz edo bialduta, beintzat denbora gutxi egiten zuten etxe artan.

Bein etorri zan lan eske motill gazte bat oso itxura onekoa, ta lanerako ere sasoikoa ematen zuana. Etxe ortan morroi baten bearrean zeudela ta, nagusiarekin pixka bat egon ondoren, lan bi-lla zetorrenak esan zion nagusiari:

—Etorriko naiz etxe ontara morroi, ta gañera soldatarik gabe.

—Zer nai dek bada? -erantzun zion nagusiak.

—Zera, -erantzun zion besteak- kondizio bat bakarrik jarriko dizut. Gu biotan aurrena asarratzen dana, bizi bizirik narrutua izan dedilla. Ondo iruditzen al zaizu?

—Bai, -erantzun zion nagusiak, izan ere oso lukurra zan, ta soldatarik gabe lana egingo ziola agindu zionean besteak, uste zuan asarratu gabe iraungo zuala.

Morroiiaren asmoak beste batzuek ziran, nai zuan nagusi petral ura dana ondatuta utzi. Lenengo egunetan dana ondo juan zan, morroi berria langille ona zan, ta nagusia oso pozik zegon.

Noizean beñ, morroia juaten zan nagusiarengana ta galde-tzen zion:

—Kontentu, nagusi?

—Ni bai, ta i? -erantzuten zion besteak.

Goiz batean, nagusiak esan zion morroiari:

—Artu idiak eta gurdia, ta ekarri itzak al dituan egurrik okerrenak.

Morroiak artu zituan idiak eta gurdia, ta, nagusiak zeukan maasti batera juan, zepa guztiak zuztarretik atera zituan ta aiekin gurdia kargatu ondoren, etxera etorri zan.

Nagusiak ori ikusi zuanean, ez zekian zer egin, odol guzia burura igo zitzaion ta morroiari esan zion:

—Zergatik egin dek ori?

—Ez al didazu bada esan, al dituan egurrik okerrenak ekartzeko? Nik ez det bada okerragorik ikusi. Kontentu, nagusi?

—Ni, bai -erantzun zion nagusia, parre txiki bat egiñez, naiz eta barru guzia kixkaltzen eduki. Ez zuan bere narrurik galdu nai.

Urrengo egun batean berriz ere nagusiak esan zion morroiari:

—Artu idiak eta gurdia, ta ekarri arrapatzen dituan egurrik zuzenenak.

Morroia atera zan etxetik idiak eta gurdia artuta, baño mendira juateko orde, nagusiak zeukan lizardi eder batera juan zan. An zeuden ederki asko jarrita lizar gazteak, zein baño zein zuzenagoak. Oietxekin gurdia kargatu, ta morroia etxera etorri zan. Nagusia ia ondoeza egiñean gelditu zan, lizarrik onenak alperrik galdu zituala ikustean. Baño morroiak ez zion ezer esateko denborarik eman:

—Kontentu, nagusi?

—Ni bai, erantzun zion nagusiak- ta i?

—Ni ere bai, auetxek izan dira nik arrapatu dituan egurrik zuzenenak.

—Ondo zegok, -erantzun zion nagusiak, asarre ez bazegon bezela, -orain sartu itzak ate zulo ortatik, idi, gurdi, ta egur oiek danak.

Ori esan zion, atepak olloak pasatzeko zeukan¹ zulo bat erakutsiaz, lan eziñezkoa zala ta, morroia asarratuko zalakoan.

Baño ez zuan ondo ezagutzen morroi ura. Artu zuan aizkora aundi bat, ta aurrena idiak txikitu zituan, milla puska egin arte, ta gero pixkanaka, pixkanaka, ate zulo artatik sartu zituan.

Ta berdín egurrak eta gurdia ere. Nagusia geroz ta geiago tripak jaten zegon, baño ezin ezer egin.

—Kontentu nagusi? -esaten zion noizean bein morroiak nagusiari.

—Ni bai, ta i? -erantzuten zion beti onek.

Nagusia aspertu zan orrelako morroiarekin, baño ezin iñola ere bota.

Nagusi ori, oso aberatsa zanez, toki askotan zeuzkan mendiak, lantegiak eta bai palazioak. Bazeukan zillarrezko mina bat ere. Goiz batean ote egin zion morroiari esateko:

—Leitzen ba al dakik?

—Nik ez, -erantzun zion morroiak- ez nuan txikitan ikasita.

Gezurra esan zion. Ikasita zegon ura leitzen.

—Ikusten dek au? -esan zion nagusiak karta bat erakutsiaz- eraman zak karta au minan lanean ari diran tokira, emaiok an aurrena ikusten deanari, ta bertan etxoin erantzuna artu arte.

Morroiak artu zuan karteak, ta bidean zijoala, bertan jartzen zuan dana leitu zuan. Karteak au esaten zuan:

“Karta au daramana, neri kalte aundiak egiten ari da. Inguruan daukazun leize batera bota zazu, ta geiago ez dedilla lur gaiñean azaldu”.

Morroia, naiz eta karteak leitu, aurrera juan zan bere bidean. Minatara iritxi zanean, gertuatu zan lenengo ikusi zuan langillea-rengana, ta, nola karteak emango, langillea bera bota zuan zulo batetik bara. Gero, ezer gertatu ez balitz bezela, etxera itzuli zan.

Nagusiak ez zuan asko uste morroi ura berriz etxean ikusterik, orregatik, ikusi orduko galdetu zion:

—Ez al dek iñor billatu minatan?

—Bai, erantzun zion morroiak, -Kartak jartzen zuan bezela, leizetik beera bota det lenengo ikusi deana. Kontentu, nagusi?

—Ni bai, -erantzun zion nagusiak gogo txarrez- ta, i?.

—Ni ere bai.

Andik egun batzuetara, nagusiak esan zion morroiari.

—Biar goizean goiz, eizera juan bear dek beste bi lagunekin, txakurrek eta eskupetea prantatu, ta ik usterik gutxiena dean tokian, jeikiko zak erbie.

Nagusia itz eginda zegon beste bi lagun aiekin, ta esanda

zeuzkan, morroia ikusten zuten tokian bi tiro eman, ta iltzeko bertan, oso morroi kaltegarria zala ta.

Urrengo goizean, morroia atera zan etxetik, bi txakurrak sokatik, eta eskupetea bizkarrean zuala. Baño mendira juateko ordez, nagusiak, an inguruko erri batean zeukan, palazio bateko teillatu gañera juan zan. An, bi txakurrek aurretik zituala, goiz guzia batetik bestera ibilli zan, tellatu guzia txikitu arte. Noizean bein, tiro batzuek ere botatzen zituan. Aspertu ta nekatu zanean, etxera itzuli zan.

—Baño, nola leikek, berriz emen? -esan zion nagusiak ikusi orduko, - ez al zak erbirik jeiki?

—Gaur ez beintzat -erantzun zion morroiak- zuk esan zian-dun (zenidan), nik usterik gutxiena nuan tokian jeikiko zitzaidala erbia, ta goiz guzia, olako tokitan daukazun palazioko teillatu gañean ibilli naiz, ta an ez da erbi arrastorik azaldu. Ituteak bai, izango dira an ugari.

—ori ere egin dek? -asi zan nagusia bero bero eginda, baño morroiak bereala moztu zion esanez:

—Kontentu, nagusi?

—Ni bai, ta i? -erantzun bear izan zuan besteak.

Orrela pasatu zuten denbora aldi bat. Morroiak nai zuana egiten zuan, ta nagusiak ezin ezer egin.

Garai artan txerri saill aundi bat zeukaten saltzeko, ta morroiak esan zion nagusiari:

—Aizu, nagusi, olako tokitan peria dago egun auetan, ta nai badezu salduko ditut txerri oiek an.

—Ondo zegok, -esan zion nagusiak.

Juan zan morroia peria, bere txerri gizenak artuta, ta bai ondo saldu ere, baño erosleari kondizio bat jarri zion: “Txerrien isats guziak beretzat bear zituala, etxera eramateko”. Eroslea, konpro-me gelditu zan. Orrela bada, dirua jaso, txerrien isatsak zaku batean sartu, ta etxera bidean jarri zan morroia. Baño es zuan etxera zuzenean juateko asmorik.

Mendi aundi batetik pasatu bear zuan, ta bazekian arek nun zegon siats bat. Aspalditik zeuken pentsatuta, txerri gizen aiekin zer egin. Siats artara iritxi zanean, atera zituan isatsak zakutik, eta, banaka banaka lokatzetan, sartu zituan, baño puntea agirian zutela. Gero lasterka etxera juan zan. Iritxi orduko ots egin

zion nagusiari:

—Nagusi, nagusi?

—Zer dek motell, orrela berotuta etortzeko? -erantzun zion onek.

—Txerri guziak siatsak tragatu ditzat (dizkida), goazen azkar, oraindik isatsak ikusten dira ta.

Juan ziran biak mendian gora, lertzeko zorian, ta siatsera iritxi ziranean, an ikusi zituzten oraindik txerrien isatsak.

—Ara emen, ara emen! -esan zuan morroiak, eta nagusia ta biak, isatseri elduṭa, txerriak ateratzen asi ziran, baño isatsak bakkarrik gelditzen ziran bere eskuetan.

—Txerri gizenak buztana samur! -esaten zuan morroiak, isatsak atereaz- esan liteke, sator edo biurto dirala gure txerriak.

Lan ura bukatu zutenean, biak etxera itzuli ziran ixil ixillik, nagusia asarre ta morroia pozik.

Morroiari iruditu zitzaionean etxe artan egin bearrekoak egin zituala, nagusiari esan zion:

—Uste det ni gabe ere egingo dituzula emendik aurrerako lanak, eta ondo iruditzen bazaizu, beste toki batera juango naiz.

Nagusiak ez zuan besterik nai, ta berala erantzun zion:

—Ondo iruditzen zaiak i juatea, baño, esan genduan bezela, soldatarik ez diat emango.

—Ez da bearrik ere, -erantzun zion morroiak- ondo pagatuta noa.

Ori esatean, txerri guzien diruak berekin zeuzkan.

—Kontentu, nagusi? -esan zion azkenean morroiak esku emenez.

—Ni bai, -erantzun zion besteak,- ta i?

—Ni ere bai.

Besterik gabe juan zan morroi azkar ura, etxe artatik.

Nere aita zanari entzuna.



PERRANDOREN ZORRAK

Perrandok berealdiko zorrak omen zeuzkan, ta ordaintzeko dirurik ez. Bere artzailleak aspertu omen ziran etxoiten, eta orrela bi gizon etorri ziran Perrandoren etxera: "Jeupp" ots egiñez.

Perrando atera zitzaaien esanez:

—Zer dabiltzute gizonak?

—Ara bada -erantzun zioten besteek, zure etxe gaiñean diru pixka bat badegula taaa... uraxe jasotzea etorri gera.

—Nere etxe gaiñean dirua dagola? -esan zien Perrandok- ori jakin banu ez nintzan nabillen bezela ibilliko, artu jaunak eskaillerak eta igo tellatura, an dagon diru guztia zuentzat.

—Ez genduan ori esan nai -esan zioten besteek- zeraaa..., zuk guri dirua zor diguzula ta ura jasotzea etorri gera.

—Ori beste gauza bat da -erantzun zien Perrandok- bane-goan bada ni gure etxe gaiñean dirurik ote zegon nik jakin gabe. Baño orain ez daukat nik dirurik eta beste egunen batean etorri bearko zerate.

Bi gizonak beren etxera juan ziran.

BARATZAKO OGIAK

Urrengo goiz batean, Perrando ikulluko lanak egiten ari zala,

etorri ziran berriz bi gizonak. Perrandok ikusi zituan nola zetozen eta andreari esan zion:

—Emen dira berriz ere lengoko bi gizon aiek, ta gaur ere dirurik gabe gaude gu, zer edo zer asmatu bearko degu. Ogirik ba aldaukazu etxean?

—Bat edo bi bai -erantzun zion emazteak.

Perrandok artu zituan bi ogi, eta baratzako bazter batean sartu zituan lur pean.

Bi gizonak iritxi ziranean aurrekoan bezela ots egiñez:

—Jeupp...! gaur ere emen gera, dirurik ote daukazu edo...

—Sartu zaitzete beintzat sukalderaño -erantzun zien Perrandok- ogi ta ardo pixka bat artzeko, ta an itz egingo degu.

Aiek sukaldera eramán orduko, Perrando bera atera zan, ta atxur bat bizkarrean zuala baratzara abiatu zan.

—Nora ote zijoak gizon ori? -esan zioten beste biak alkarri, ta bere ondoren abiatu ziran. Perrando baratzara iritxi zanean, artu eskuetan atxurra, ta atxurtzen así zan. Bereala atera zuen ogi bat eta gero beste bat. Orduan an zeuden beste bi aiek entzuteko eran ots aundian esan zuan:

—Gaurko naikoa izango zetuak (dizkiat), geiago bear izan ezkeru, etorriko nok.

Bi ogiak artu ta etxera abiatu zan. Beste biak ikusi zituanen arituta bezela esan zien:

—Emen al ziñaten bada zuek?, goazen etxeraño, ogi ta ardoa artzera.

—Ikusi zaitugu ogiak lurretik ateratzen Perrando -eranzun zioten besteek- ez daukagu guk ogi ta ardo bearrik, baño atxur ori eman bear diguzu, gu ere iñoiz ogirik gabe gelditu izan gera, errotariak iges egin digula edo...

—Ta ni nola bizi zueri atxur au eman da? -esan zien Perrandok- badaukat nik onen bearra egunero ogia jango badet.

—Begira Perrando -esan zioten besteek- zor guztiak barkatuko dizkitzugu atxur ori ematen badiguzu.

—Zorigaiztoko zorrak! -erantzun zien Perrandok- baño ala nai badezute, zuentzat atxurra, ta gu ere, ogi zuria ez bada artoa edo taloa janez biziko al gera.

Bi gizonak pozik juan ziran beren etxeetara, atxurra bizkarrean zutela.

Etxera orduko esan zien beren emazteari:

—Gaur ogirik ez artu eh!. Emendik aurrera ez degu ogi pal-tarik izango.

Bazkaltzeko ordua iritxi zanean, gizon aietako bat juan zan baratzara ta atxurrean asi zan jo ta ke, baño an ez zan ogirik ateratzen:

Orrela ari zala etorri zitzaion laguna esanez:

—Utzi idak neri oraiñ atxur ori, ik onuzkero naikoa dek eta... nik ere bear diat bazkaltzeko ogia.

—Atxur onek atera zai baldin ba ago, egon bearko dek pixka batean -erantzun zion atxurrean ari zanak, kopetako izar-dia igurtziaz- sartu ziguk edarra Perrandok...!

Orduan kontu artu ziran, Perrandok ogiak lendik sartuak edukiko zituala.

BI ERBIAK

Andik denbora pixka batera berriz ere bi gizon aiek Perrandoren etxera juatea erabaki zuten. Perrando zai zegon ta askotan begiratzen zuan noiz azalduko ote ziran.

Urrutitik bazetoztela ikustean, andreari esan zion:

—Aizu, bart lazoan arrapatuta badauzkat nik bi erbi, bat utziko dizut emen saski onen azpian ta bestearekin juango naiz ni mendi aldera. Gizon oiek iristen diranean, atera erbia saski-petik ta bialdu bideak aurrera, neri deitzeko esanez...

Perrandok artu zuan beste erbia galtzarbean, ta an etxe aurreko sasi baten atzean izkutatu zan.

Bi gizonak iritxi ziranean beti bezela: Jeupp...! ots egiñez:

—Zer nai dezute? -atera zan bereala Perrandoren emaztea.

—Gizona etxean al dago? -galdetu zioten besteek.

—Ez dago, baño berealaxe abixoa bialduko diot, nai badezute.

—Nai genduke berarekin egon -erantzun zioten bi gizonak.

—Bai, bai, ez dauket mandatari txarra -esanez, Perrandoren emazteak artu zuan saski pean zeukan erbia, ta atarian jarri zuan esanaz:

—Juan adi mendira, ta esaiok nagusiari, lengoko bi gizon aiek emen daudela, ta lenbailen etortzeko.

Erbiak ez zuan bi aldiz esan bearrik izan bideak aurrera juateko. Bi gizonak arrituta zeuden. Orrelakorik oraindio: "Erbi bat mandatari". Ta zer gertatzen ote zan zai gelditu ziran.

Bitartean Perrandok dana ikusi zuan sasi artetik, eta iruditu zitzaionean denbora alditxo bat pasa zala, etxera abiatu zan, be-soan zekarren erbia legunduaz.

Bi gizonak ezin zuten siñixtu begiz ikusten zutena.

—Baño Perrando, erbi onek esan al dizu gu emen gaudela ta etortzeko?.

—Zer uste dezute bada -erantzun zien Perrandok -bestela nola asmatu zuek emen izango ziñatela? Egur pixka bat egiten ari nintzan erbia etorri zaidanean.

—Erbi ori emen bear diguzu, Perrando -esan zioten bi gizonak -gu ere iñoiz eizera juandakoan da, zer ordu dan jakin gabe ibilli oi gera.

Tekela puska baten ondoren Perrandok esan zien:

—Eraman zazute ta emendik aurrera goixeago edo beranduxeago bilduko al gera etxera...

Bi gizonak pozik itzuli ziran beren erbiarekin.

Urrengo egun batean, bi gizonak eizera juan bear zutela oso goiz, eguardi aldera etxera etortzeko asmoan, ta baten emazteari orrela esan zioten:

—Biar gu eizera goaz. Eguardi inguruan, bazkaria jartzen de-zunean edo, bialdu guregana aurrekoan ekarri genduan erbi ori.

Bi gizonak juan ziran eizera urrutiko mendi batera. Eguardi aldera, etxeakoandreak artu zuan erbia ta bidean aurrera bialdu zuan esanez:

—Juan adi ta esan nagusiei, bazkaria prontó dagola.

Bi aldiz esan gabe juan zan erbia, bere burua askatua ikusi zuanean.

Bitartean eiztariak zai jarrita zeuden erbia noiz ikusiko, ta luze iritzita. Etxoiten aspertu ziranean etxera etorri ziran emazteari ederrak esateko asmoan...

Emaztea ere zai zegon, ta orrela bi gizonak erbirik gabe zetoztela ikustean, galdetu zien:

—Erbia nun dezute? Ez al zaizue garaiz iritxi?

—Bialdu al dezu bada? -erantzun zioten besteeck.

—Bai, esan zien emazteak -zuek etorri zeraten bide ortatik aurrera juan da txuxen txuxen.

Bi gizonak alkarri begira gelditu ziran.

—Orain ere sartu ziguk ederra Perrandok -esan zioten alkarri-bi erbi edukiko zetuan (zizkian) arek... Ez ziguk orratik berriz sartuko.

EMAZTEEN ERIOTZA

Andik egun batzuetara berriz ere bi gizonak Perrandoren etxera badijok alkarri esanaz:

—Besterik ez bada ikulluko beiak kenduko ziotzagu oraingoan.

Perrandok ikusi zituan nola zetozen eta bere emazteari ots egin zion:

—Aizu, atoz pixka batean. Betiko bi gizon oiek emen datoz orain ere. Bete ezazu zato txikia ardoz, ta jarri zazu kolkoan, Onera irixten diranean, ni zurekin asarretuta banego bezela asiko naiz ta kuxilloa sartuko dizut kolkoan. Zu lurrera eroriko zera, ilda bazeunde bezela. Gero nik txillibitua joko dizut belarri ondoan, ta jeiki egingo zera.

Bi gizonak iritxi ziran beti bezela: Jeupp... ots egiñez.

Perrando bereala atera zan:

—Zer degu gizonak, -esanez.

—Zer degun esaten diguzu? -erantzun zioten besteek asarre bizian-. Naiko parre egin dezu kontura, ta oraingoan besterik ez bada ikulluko beiak edo zer edo zer eraman gabe ez gera juango.

—Ez dago gaizki -erantzun zien Perrandok patxaran- nun dezute erbia? Nerekin ain txintxo ibilli oi zan.

—Gurekin ez da bada ain txintxo ibilli -esan zioten bi gizonak- gu gelditu gera orain ez erbi eta ez diru.

Orduan Perrandok andreari deitu ta oso asarre esan zion:

—Ikusten dezu orain? Gizon onek ikulluko beiak ta ez dakit zer kenduko dintzatela (dizkigutela) diote, izan ere zu zerala ta ez zerala zorrak egin giñuzten guk! Orain ikusten dezu?. Bertan iltzea merezi zenduke.

Ta besterik gabe, artu kutxilloa, ta emaztearen bularrean sartu zuan. Emazte gaixoa lurrera erori zan luze luze “odola” zeriola...

Bi gizonak ori ikustean Perrandori eldu zioten esanez:

—Baño gizona, zer egin dezu? Zorrak daukatzula ta, andrea ilko zenduan bada orain? Guk beintzat...

—Ez ikaratu gizonak -erantzun zien Perrandok- orrelakoak egiten oituta nago ni lenago ta.

Gero atera poltxikoan zeuken txillibitua ta emaztearen belarri ondoan asi zan: Pitt... Pitt...

Andrea berealaxe jeiki zan, ezer gertatu izan ez balitz bezela.

Bi gizonak arrituta eta ikararuta gelditu ziran...

—Perrando, -esan zioten azkenean- orain artekoak zerbait ziran, baño au orratik... Txillibitu ori eman bearko diguzu, gu ere iñoiz emazteekin asarratu izan gera.

—Txillibitu au nik eman...! ez da mundu guziko diruaren-gatik ere -erantzun zien Perrandok. -Txillibitu au izan ez banu, onuzkero milla aldiz illa nuan nik nere andrea.

Baño bi gizonak ainbeste erregu egin zioten, emateko ta emateko, azkenean Perrandok andreari esan zion:

—Txillibitu au ematera noa gizon auei, emendik aurrera pakean bizitzea besterik ez degu...

Bi gizonak pozik juan ziran etxera txillibitua berekin zutela.

Perrando ta bere emaztea etxean gelditu ziran, andrea kezka pixka batekin:

—Ez al dituzte beintzat emazteak ilko -esan zion Ferrandori.

—Esnatuko al dira lenago -erantzun zion onek.

Laister izan zuten bi gizonak emazteekin asarratzeko motiboa. Batek kutxilloa artu, ta ill zuan bere andrea, ta gero ildakoaren ondoan txillibitua jo ta jo asi zan... Pitt... Pitt...

Orrela ari zala etorri zitzaion bestea oska:

—Utzi idak txillibitua, andrea ill diat eta...

—Ik ere ill al dek -erantzun zion besteak -egon deikek orduan pixka batean, txillibitu onekin piztu nai badek!

Biak saio aundiak egin zituzten emazteen belarri ondoan txillibitua jotzen... baño dana alperrik. Emazteak ondo ilda gelditu ziran, ta bi gizonak alargun.

PERRANDOREN ARTALDEA

Andik denbora puska batera juan ziran berriz ere bi gizonak Perrandoren etxera. Idiak eta gurdia eraman zituzten ta gurdian kutxa bat, Perrando an sartu, ta ibaira botatzeko asmoan.

Perrandoren etxera iritxi ziranean, Perrando etxeko lanak egiten zebillen, ta itz egiteko betarik eman gabe, bien artean eldu ta gurdian zeramaten kutxan sartu zuten. Bereala abiatu ziran beeko ibaira, an zegoen osin aundi batera bota bear zutela ta.

Bidean zijoazela, bi gizonak taberna batean sartu ziran, baso-erdi bana artu bear zituztela ta... Bitartean an gelditu zan Perrando kutxa barruan, ia ia itoan.

Bi gizonak tabernan zeuden bitartean, artzai bat gertuatu zan autza (ara) bere artaldearekin. Perrandok entzun zuan ardien otsa ta an norbait bazala, ta: Dinbi danba... kutxa ankakin jozten asi zan. Artzaiak entzun zituan ots aiek, ta arrituta gelditu zan zer izan ote zitekean. Bereala zabaldu zuan kutxa ta an barruan Perrando ikustean:

—Zer egiten dezu emen gizona? -galdetu zion.

—Emen zer egiten dedan? -erantzun zion Perrandok-. Esango dizut: gizon batzuek, ni erregearen alabarekin ezkontzea nai dute ta nik nai ez dedalako ibaira botako omen naute... ta ementxe noa.

—Ez aiz tonto txarra -erantzun zion artzaiak -ni ezkonduko nindukek erregearen alabarekin...

—Jarri zaiz nere tokian -esan zion Perrandok -nik zainduko ditut ardiak.

Artzai gizajoak atera zuan Perrando kutxatik, eta bera jarri zan aren tokian. Perrandok gaiñeko atea itxi zion kutxari, ta lenbaillen juan zan toki artatik, artaldea artuta.

Bi gizonak tabernatik atera ziranean bideari jarraitzeko asmoan, artzaia asi zan oska kutxa barrutik:

—Ezkonduko nok, ezkonduko nok...

—Arraiori, ezkonduko aizela? -erantzun zioten besteek -gu ezkondu bearrean jarri gaituk beintzat orain!

Osin aundi batera iritxi ziranean, artu kutxa taa plastaa... bota zuten uretara. Laister izkutatu zan kutxa ur pean.

Ori egin zutenean, bi gizonak artu zituzten idiak eta gurdia, ta etxe aldera abiatu ziran.

—Arraio onek ez ziguk beintzat geiago lanik emango -esan zioten alkarri. Ta gero bideak aurrera zijoazen ixil ixillik.

Bitartean Perrando an zegoan zai zai bere artaldea ondoan zeukela. Bi gizonak ondora iristean ots egin zien:

—Zer zabiltzate gizonak garai ontan emen? Peritik al zatozte edo?

Beste biak ikusten zutena ezin siñisturik gelditu ziran.

—Baño, zu al zera Perrando?, guk...

Perrandok ez zien utzi ezer esaten, berak esan zien:

—Bai, zuek gizajoak, ustez kalte aundi bategin nai ziauduten (zenidaten) bañooo, nere bizitza guzirako eginda utzi nauzute.

—Nola ordea? -erantzun zioten besteek.



Zuek ustez kalte aundi bat egin didazute. Baño, nere bizirako eginda utzi nauzute.

—Nola esaten dezute? Ikusten dezute artalde eder au? Baaa... zuek osiñera bota nauzuten toki artantxe artu ditut ardi giziak, taaa... an asko gelditu dira oraindik...

—Guri ere artalde on bat ez litzaiguke gaizki etorriko -esan zioten bi gizonak -erakutsiko al diguzu, Perrando, nola artzen diran?

—Nai dezutenean, -erantzun zien Perrandok -eraman nazazute ni bota nauzuten osin aren ondora, ta antxe esango dizutet.

Ala juan ziran berriz ere artzaia bota zuten osin artara.

—Ementxe bota zaitugu -esan zioten bi gizonak Perrandori.

—Ortxe artu ditut bada nik ardi guziak -esan zien Perrandok -or gelditzen diran beste danak zuentzako.

Gizon aietako bat bereala sartu zan ibaira ta laster asko ur pean izkutatu zan. Bereala asi zan palastaka eskuak ibiltzen eta arnasa ezin arturik, pill... pill asi zan urean ateratzen aren arnasa aizea.

—Zer egiten du orrek? -galdetu zion beste gizonak Perrandori.

—Onenak aukeratzen ari da -erantzun zion Perrandok.


—Ez ditu bada danak orrek artu bear -esan, eta bera ere osiñean sartu zan.

Bi gizon gizajoak ez zekiten irari egiten, eta biak ito ziran.

Perrandok artu zituak idiak eta gurdia, eta geroago artaldea, ta bere etxera juan zan.

Geiago ez zioten lanik eman bi gizon aiek.

Nere aita zanari entzuna.



LAPURREN LEIZEA

Bein erri txiki batean bi anai bizi ziran beste iñor gabe. Ez zeukaten ez aita amarik ez anai arrebarik. Biak al zuten bezela konpontzen ziran beren etxea aurrera ateratzeko.

Bi anaietan zaarrenari asko gustatzen zitzaion eizean ibiltzea. Bein, eizera juan zan batean, uste gabe gaua sartu zitzaion, ta mendian bertan gelditu bear izan zuan, galduta. Lurrean baño obetogo egongo zala piztirenbat etorrira ere, ta an inguruko arbol baten gaiñera igo zan, lo pixka bat egiten ote zuan edo.

Loak artzeko zegola, an inguruan izketa otsa entzun zuan. Lapur batzuek zeukaten an beren biltzeko tokia, eiztaria igo zan arbola aren ondoko leize zulo batean, ta andik ateratzen ziran lapurretara juateko. Arbolan zegon motillak, garbi garbi entzuten zuan lapurrek zer esaten zuten. Leizetik ateratzekoan:

—Abrite portas, klis klas...! -esan zuten, ta sail bat kanpora atera ziran. Danak kanpoan zeudenean:

—Zerrate portas, klis, klas...! esan zuten, ta ateak berealdiko burni otsarekin itxi ziran.

Gau artan bazan nunbait lapur bat besteekin denbora gutxi zaramakiana, ta orregatik galdetu zion beste lagun bati:

—Aiñ errex zabaldu ta itxi egiten badira ate auek, ez al zigutzak (zizkiguk) norbaitek itz oiek entzungo ta or daukagun guzia lapurtuko?

—Bai, -erantzun zion besteak- sartu izan dituk orrela, baño sukaldera jua ta usai goxoa dauken eltze txikitik jaten dutenak, oiek ez dituk ateratzen, ez dia (ditek) atea zabaltzeko itzik asma-zen. Eltze aundian dagon aragitik bakarrik jaten dutenak, oiek ateratzen dituk, baño orain arte ez dek orrelakorik gertatu.

Lapur guziak bideak aurrera jua ziran, elkarrekin itz egiñez. Arbola gaiñean zegon motillak ondo entzun zituan an esan zituz-ten itz guziak. Aldi batean egon zan oraindik zegon tokian, ta iruditu zitzaionean lapurrek naikoa urrutiratu zirala, jeitxi zan ar-bolatik, eta leizeko ate ondora jua zan.

—Abrate portas, klis, klas...! -ots egin zuan, ta ate aundi aiek bi aldetara zabaldu ziran. Barrura sartu zanean, berriz ere esan zuan: —Zerrate portas, klis, klas...! -eta bi atea itxi ziran.

Leize barruan dana argi zegon, ta motilla arrituta gel-ditu zan ango edertasuna ikusi zuanean, palazio bat ematen zuan. Batetik bestera dana ikusten asi zan, eta urre ta zillar eta aberas-tasun aundiak zeuden baztar guzietan. Baño gau artarako naikoa izango zuala, ta zaku bat urre besterik ez zuan artu. Gero jua zan ikullura ta an zegon zaldirik bikaiñena artu, ta zaku urrea ari erantsi zion. Ate ondora etorri zan, baño goseak zegola, ta su-kaldera jua zan, zerbait jan bear zuala ta. Lapurrek esan bezela, an zeuden bi eltze surtan, bat aundia, ta bestea txikia. Eltze txiki arek oso usai goxoa zeukan ta motilla egon zan pixka batean janari ura probatuko ote zuan edo ez, baño azkenean eltze aun-ditik jan zuan puska on bat, eta oso ona gañera... Ta orrek on egin zion, bestela an gelditu bearko zuan. Izan ere eltze aundian bei aragia zegon, eltze txikian berriz kristau aragia. Motilla jua zan gero ate ondora, zaldia zegon tokira ta: —Abrate portas, klis, klas...! -esan zien burnizko ate aundi aieri ta berealaxe zabaldu ziran. Kanpora atera zanean berriz esan zuan: —Zerrate portas, klis, klas...! -eta bi atea itxita gelditu ziran.

Motilla al zuan bezela, ta ezagutzen ez zituan bideetatik jua zan etxera.

Lapurrek leizera itzuli ziranean, bereala kontu artu ziran, an norbait ibilli zala. Usaia artzen zuten. Jua ziran sukaldera, baño eltze txikiko aragia dana an zegoan, eltze aundikoa berriz erdia palta zan.

—Emen izan danak, bazekian gure berri -esan zuan lapurren nagusiak.

Gero antz eman zuten, urre mordoska bat ere palta zala, ta ikulluan zeukaten zaldirik onena ez zegola an.

—Gure eskuetan erortzen bada, ez dek bizirik aterako -esaten zuten lapurrek.

Bitartean motillak ondo izkutatu zituan zaldi bikaiñ ura ta urrea.

Anai gazteenari buruan sartu zitzaion, berak ere urrea ta zal-diak bear zituala, iñoiz beste anaiarekin asarretzen bazan ere, ezer gabe ez gelditzeko. Orregatik anai zaarrenari pakean ez zion uzten esateko ta esateko nundik ekarri zituan urrea ta zaldia. Anai zaarrenak beti esan oi zion:

—Alperrik ari aiz, ez diat esango. Gu biontzat aiña urre ba-zeukagu emen, eta nai badek iri emango diat dana.

Baño dana alperrik zan arekin. Ez zan ixiltzen gau ta egun: —Esaidak, bestela... nere burua ibaira bota edo zer edo zer egingo diat nik.

Azkenean, zoratuko ez bazan, anai zaarrenak dana esan zion. —Baño kontuz gero, -esan zion, lapurren leize artara jua da ber-taño gelditu ez zedin-, ez beintzat eltze txiki artan dagon aragitik jan, bestela ez aiz andik aterako.

—Jakingo diat nik zer egin -erantzun zion besteak.

Arratsaldean, eizera bazijoan bezela, jua zan anai gaztea la-purren leizea zegon tokiraño. Ta an arbola gaiñera igo, ta itxoiten jarri zan, lapurrek noiz azalduko.

Gaua aurreratu eta ondo illundu zuanean, asi ziran auek bi-ñaaka ta irunaka leize zulotik ateratzen.

—Abrite portas, klis, klas...!

—Zerrate portas, klis, klas...! -Ta ateaq zabaldu ta itxi egiten ziran aldiero.

Azkenean, lapur guziak aterata izango zirala uste izan zua-nean, jeitxi zan motilla arbolatik eta:

—Abrite portas, klis, klas...! -esan zuan leize ondora jua da. Ateaq zabaldu ziran, ta motilla sartu zan leize barrura. Baz-tar guziak miatzen asi zan denborarik galdu gabe, ta urre, zillar ta beste diru asko zeuden tokira iritxi zanean, al zuan guzia

zakuetan sartzen asi zan. Bere anai zaarrenak baño askoz geiago eraman nai zuan onek. Zaku saill bat bete zuanean, lau edo bost zaldi prantatu zituan pasta eta kakoak jarriaz, urre ta zillar aiek eramateko. Gero zaldiak kargatu zituan ta oso nekatua gelditu zan ainbeste lan egin ondoren.

Indarrak zer edo zer berritu bear zituala ta sukaldera juan zan zerbait jateko asmoan. Bi eltzeak an zeuden surtan irakiten, bat aundia eta bestea txikia. Motillak tapea kendu zion eltze aundienari, ta oso usai gozoa zeukan lurriña atera zan andik. Gero zabaldu zuan eltze txikia ere, ta andik usai gozoagoa atera zan. Pentsatzen jarri zan, zegaitik bere anaiak esan ote zion aifñ usai gozoa zeuken eltze txiki artatik ez jateko. Bear bada ezin ikusia ziolako eta berak baño diru geiago ez izateagatik. Nolanai ere bi eltzeetatik jatea pentsatu zuan, ta gero ikusiko zan zer gertatzen zitzaion. Lenengo eltze aunditik jan zuan okala bat ona, ta gero eltze txikitik beste puska bat. Naikoa jan, eta bapo jarri zanean, zaldiak kargatuta utzi zituan tokira juan zan, ta auek artuta, ate ondora.

Asi zan ateak zabaltzeko itzak esan naiean, baño auek beste aldera ateratzen zitzaizkion:

—Zerrate portas, klis, klas...! eta ateak itxita gelditzen ziran. Ots aundiagoan esan, eta berdin. Ez zuan asmatzen: Abrite portas, klis, klas...! -esaten.

Ateak atalai, maratilla edo giltzarenbat ote zeukaten ondo begiratu zien, baño alperrik, an ez zan ezer ikusten. Azkenean etxi bear izan zuan ateak ez zituala zabalduko, ta bertan gelditu bearke zuala. Zaldiak deskargatu zituan, ta berriz ikullura eraman. Urre zillar eta beste diruak lengo tokian jarri zituan, eta bera txokoren batean izkutatzeru juan zan. Baño danean argi argi zegoan, ta zailla zan izkutatzeke toki bat billatzea. Azkenean, ibilli ta ibilli eginda, ikusi zuan zulo bat, dana ildakoz beteta. Izardi otz bat atera zitzaion ura ikusita, baño nunbait sartu bear, eta antxe izkutatzea pentsatu zuan. Soifñean zeuzkan erroa guziak kendu, ta ildako aien artean etzan zan, ildako bat bazan beze-la.

Lapurrek iritxi ziranean, bereala kontu artu ziran norbait ba-zebillela an.

—Gaur gizon usaia zegok emen -esan zien nagusiak besteeri -ea goazen sukaldera eltze txikitik jan ote duan ikustera.

Juan ziran danak sukaldera, ta nagusiak eltze txikiari tapea kendu zionean esan zuan:

—Emen aragia palta dek! Ori jan duana emen dek barruan nunbait. Gaur beintzat ez ziguk iges egingo.

Lapur guziak asi ziran batetik bestera baztar guziak miatzen. Baño alperrik. Noizean bein alkarrekin biltzen ziran ia nekatuta.

—Emen zegok bada nunbait, -esaten zien nagusiak, nik gizon usaia artzen diat beintzat.

Bi edo iru aldiz izan ziran ildakoak zeuden toki artan ere, baño an ez zegon ezeren arrastorik. Azkenean, ia etxi zutenean, norbaitek esan zuan:

—Ez dek bada ildakoen tartean sartuta egongo!

Juan ziran berriz ildakoak zeuden zulo artara, ta lapur aietako bat, burruntzari luze batekin gorputzek zulatzen asi zan. Motillari burruntzia ikutu zionean, jeiki bearrean gertatu zan au ilko ez bazuten. Lapurrek ikaratuta gelditu ziran aurrenetik, motill ura era artan ikustean, baño beregan etorri ziranean, ill egin nai zuten.

Orduan motillak, belauniko jarri danen aurrean ta esan zien:

—Ez nazazute ill, ta esango dizutet zeñnek erakutsi didan onerako bidea, eta zeñnek eramán zituán zaldia ta urrea.

—Ondo zegok -erantzun zion lapurren nagusiak-, orrela bada, gaur ez agu illko, baño ez uste izan gure eskuetatik iges egingo deanik.

Lapur aiek pentsatu zuten, motill onen bitartez, bestea ere arrapatuko zutela, ez zitzaïen komeni atea zabaltzen zekien iñor bizitzerik, bestela askok ikasi zezakeen leizeko bidea.

Jantzi zan berriz larru gorrian zegon motilla, ta lapurrekin gelditu zan eguna zabaldu arte. Goiz aldera, lapurrei esan zien urrea ta zaldia eramán zituana bere anaia zala, ta eramango zituála etxeraño, nai bazuten. Lapur guziak juan ziran erriraño motil arekin, ta errira sartu baño leen pentsatu zuten, ez zala ondo izango egunez erri guziaren aurrean azaltzea, eta gauaz juango zirala. Bitartean motillak esan zien:

Utzi idazue orain neri etxera juaten, ta zuek gauaz juaten zeratenean, atea zabalduko dizkitzuet.

Lapurreri ondo iruditu zitzairen motillak ziona, ta bere etxera bialdu zuten. Etxera iritxi orduko beste anaiari esan zion:

—Ola ta ola gertatu zaidak, ta ilko ez baninduten, esan bearean gelditu nok, ik ikarri ituala leizetik zaldia ta urrea. Or erri ondoan gelditu dituk lapur guziak, eta gaur gauean emen zetuagu (dizkiagu). Orain pentsatu bearko diagu zer egin.


Anai zaarrena aurrenatik asarretu zan ta gogoak eman ere bai, andik alde egin eta bere anaia konpondu zedilla al zuan bezela. Baño gero pentsatuaz bera ere gauz artan sartuta zegola, bertan gelditu zan, zer edo zer egiten ote zuten. Gauz asko buruan ibilli ondoren, al zuten oliorik geiena ekartzea erabaki zuten, gero pertz aundi bat sortu zuten olio betetzeko. Illuntze aldera su aundi bat egin zuten ta pertzeko olio erretzen jarri, lapur guziak an kiskaltzeko asmoan.

Gau erdian, erri guzia ixil ixillik zegonean, etorri ziran lapurrek bi anaiek bizi ziran etxe ondora, ta ateak jo zituzten.

-Anai gazteena atera zan leiora, ta lapurrek ikusi zutenean galdetu zioten:

—Nundik sartuko gaituk, atetik ala tximinitik?

—Tximinitik, tximinitik-, erantzun zien motillak.



Motill gazteena atera zan leiora, ta galdetu zien:

—Nundik sartuko gaituk, tximinitik ala leiotik?

—Tximinitik, tximinitik-, erantzun zien motillak.

Lapurrek beñere ez ziran sartu oi iñungo etxera atetik, beti leiotik, tellatutik edo tximinitik. Orregatik laister igo ziran danak tellatura, ta tximinitik begiratu zutenean, an beeran ori, ori, urrearen itxurako zerbait ikusi zuten.

—Zer zegok or beeran, motell? -galdetu zioten oni.


—Orixe dek zuek billatzen dezuten urrea, -erantzun zien motillak.

Lapurrek jetxi ziran banaka banaka tximiniko zulotik, eta danak olio irakiñetan kixkalduta gelditu ziran.

Urrengo egunean, bi anaiek zulo aundi bat egin zuten baratzan, eta antxe sartu zituzten lapur guziak.

Gero jua ziran lapurren leize artara, ta zeuden urre, zillar eta beste gauz guzien jabe egin ondoren, danak etxera ekarri zituzten.

Andik aurrera bi anaiek, oso aberastuta, lanik egin bear gabe bizi izan ziran.



TXOMIN - IPURDI

Bein bizi omen ziran ama ta bere semea. Seme ori ipurdi aundia zeukana zan, ta danak Txomin-ipurdi deitzen zioten.

Oso pobreak ziran, ta orregatik beñ Txomin-ipurdik erregearen etxera juatea erabaki zuan, diru pixka bat eskatzera.

Alako egun batean abiatu zan erregearen etxe aldera, ta bi-dean zijoala, azari bat atera zitzaion esanez:

—Nora oa, Txomin-Ipurdiiii...?

—Erregearen etxera, diru pixka bat eskatzera, -erantzun zion Txomin-ipurdik.

—Ai ni aren ollotegian banego! -esan zion azariak -nik egingo nitek an bearra!

—Sartu ari nere ipurdian, -esan zion Txomin-ipurdik.

Azaria sartu zan ipurdian, ta Txomin-ipurdi berriz ere bideak aurrera abiatu zan.


Andik aurreraxago, otso aundi bat azaldu zitzaion esanez:

—Nora oa Txomin-ipurdiiii...?

—Erregearen etxera diru pixka bat eskatzera -erantzun zion Txomin-ipurdik, oni ere.

—Ai ni aren zalditegian banego! -esan zion otso aundi arek -nik egingo nitek bearra!

—Sartu ari nere ipurdian, -esan zion ari ere Txomin-ipurdik.



Ibaiari esan zion: "Sartu ari nere ipurdian"

Otso aundia sartu zan ipurdian, ta Txomin-ipurdi, azaria ta otso aundia ipurdi barruan zituala, aurrera abiatu zan.

Ala zijoala, ibai aundi bat, itxasoa bezelakoa, billatu zuan, ta iñundik ezin zala pasatu ikusi zuanean:

—Sartu ari nere ipurdian! -esan zion ibaiari, ta ibai osoa bere ipurdian sartu zan.

Orrela ibaia legorrean pasatu zuan, ta aurrera ta aurrera juan da gero, erregearen etxera iritxi zan.

Dan, dann... jo zituan palazioko atea. Neskame ta morroi guziak arrituta gelditu ziran, gizon ipurdi aundi ura ate ondoan ikusi. Bereata erregeari esatera juan ziran nola zegon ate ondoan gizon ipurdi aundi bat.

—Galdetu eiozute zer nai duan, -esan zien erregeak.

Galdetu zioten Txomin-ipurdiri zer nai zuan ta:

—Diru pixka bat, ama ta biok obetoxeago bizitzeko -erantzun zien.

Erregeari esan ziotenean zer nai zuan, asarre jarri zan ta esan zien:

—Alperrentzako ez dagola dirurik, esaiozute. Ta konpromete ez baldin badago, eraman zazute ollotegira, a zer aparria izango duten guar gure olloak!

Alperrentzako dirurik ez zeukatela esan ziotenean, Txomin-ipurdi asarre jarri zan, ura ez zala alperra esanez, arek diru pixka bat besterik ez zuala bear. Orduan danen artean artu, ta ollotegira eraman zuten.

Erregearen olloak aundiak ziran, ardia añakoak. Txomin-ipurdi sartu orduko, asi ziran olloak moko emendik eta moko andik, danen artean jan bear zutela. Txomin-ipurdi geldi geldi egon zan pixka batean, baño ikusi zuanean, neskame ta morroiak andik juan zirala:

—Atera ari nere ipurditik, -agindu zion azariari, -oraintxe ago erregearen ollotegian.

Azaria atera zan ipurditik, eta an zeuden ollo guziak txikitu zituan.

Urrengo goizean, erregea jeki zanean, morroi batzueri agindu zien juateko ollotegira, ta gizon ipurdi aundi aren ezurrak jaso, ta sartzeko lurpean. Morroiak ollotegira iritxi ziranean, Txomin-ipurdi patxaran eserita zegon ta ollo guziak lurrean dana txikituta.

Azaria berriz, bere bearra egin zuanean, mendira juan zan.

Erregeari esan ziotenean zer gertatu zan, ezin zuan siñistu, gizon batek nola ollo aiek txikitu zezazkean.

—Eraman zazute zalditegira, -agindu zien morroiei -aiek ez dituk olloak!

Zaldiak oso aundiak ziran. Txomin-ipurdi ikusi zutenean, lenngotik ikaratu egin ziran, gero asi ziran gertuatzen, ta batek ostikoka ta besteak ozka, Txomin-ipurdi, larritu zan. Morroiak ateak itxi zituztela ikusi zuanean:

—Atera ari nere ipurditik!, -agindu zion otsoari, ta ikustekoa izan zan ango istillua, ango irrintziak eta zalapartak. Zaldi guziak ill zituanean, otsoa mendira juan zan.

Urrengo goizean morroiak, saskia ta atxurra artuta zalditegira juan ziranean, Txomin-ipurdiren ezurrak biltzeko asmoan, aurreko egunean baño geiago arrituta gelditu ziran, zaldi guziak ilda, ta Txomin-ipurdi patxaran eserita, ikusi zutenean.

Erregeari esan ziotenean zer gertatu zan, zer egiñ ez zekiala gelditu zan. Baño pentsatu zuan berriz ez ziola burларик egingo, ta erriko plazan lasto pillo aundi bat jartzeko agindu zuan, ta anxe su eman, ta erretzeko Txomin-ipurdi.

Erri guziak lan egin zuan lasto pillo aundi ura egiteko, ta berare gainean Txomin-ipurdi jarri zutenean, su eman zioten. Erregea ere an zegon zigon ipurdi aundi ura nola erretzen zan ikusteko. Sua indartzen asi zanean ta Txomin-ipurdi berotzen:

—Atera ari nere ipurditik!, -agindu zion ibaiari, ta ura asi zan indarrean ateratzen ta sua itzaliz, inguru guziak betetzen. Jen-de guziak lasterka iges egin bear izan zuan andik, erregeak ere bai, itoko ez bazan.

Erregea bildurtu zan gizon ipurdi aundi arek erri guzia ez ote zion ondatuko, ta bere aurrera ekarri arazitzeko agindu zuan. Ekarri zuten Txomin-ipurdi erregearen aurrera, ta onek galdetu zion:

—Zertara etorri zera palazio ontara?


—Ondo dakizu, diru pixka baten billa, -erantzun zion Txomin-ipurdik -baño ez didazute pixka ori eman nai izan, orain ipurdia bete nai det.

Erregeak agindu zuan berak zeuzkan diru guziak, urte ta zilarrak danak biltzeko, baño ala ere ez zan naikoa izan Txomin-

ñen ipurdia betetzeko. Gero agindu zuan erregeak erri guziko diruak biltzeko, baño ala ere ez zuten Txomiñen ipurdirik bete.

Azkenean, Txomin-ipurdik antz eman zuanean erri guzian ez zegola beste dirurik, naikoa ba zuala esan zion erregeari.

Bere etxera etorri zanean, zeuzkan kutxa ta zoko guziak bete zituan diruz Txomin-ipurdik, ta andik aurrera, ama ta biak oso ondo ta aberats bizi izan ziran.



EIZTARIA ETA BI ZAKURREK

ZAKURREN JABE

Mendi batean bizi ziran anai arrebak, ta oso pobreak ziran. Motilla eiztaria zan eta neskea etxeko lanak egiten egoten zan. Garai artan eize urritu egin zan, eta motilla egurra saltzen edo ibi-oi zan.

Bein egurra txikitzen ari zala, emakume xaar bat ondoratu zitzaion, bi zakur aundi ta eder ondoren zituala. Motilla arrituta gelditu zan zakur aiek ikusita: "Nereak balira", zion bere baitan. Emakume ura bitartean asi zan izketan eta ez zan ixiltzen galdetu eta galdetu, gauza guzietaz. Motillak juxtu juxtu erantzuten zion, ezin begirik kendu zakur aietatik. Azkenean emakumeak esan zion:

—Zer emango zenduke zakur auek zureak izateagatik?

—Nik gauza gutxi, pobrea naiz ta, -erantzun zion motillak-zakur auek nereak balira!

—Zer egingo zenduke zakur auek zureak balira?

—Zakur auekin! -esan zion berriz motillak -eizetik bakarrik bizi ni eta etxean daukean nere arrega.

—Nik ez ditut bada zakur auek bear geiago, -esan zion emakumeak- zureak dira gaurtik. Batek Sol du izena eta besteak Fiel, zuk nai dezun guzia egingo dizute biak.

Ori esatearekin batera emakume xaar ura izkutatu egin omen zan eta eiztariak ez omen zuan geiago bere bizitza guzian ikusi. Batzuk esaten dutenez, emakume xaar ura Ama Birjiña omen zan.

Zakur aiek besterik ez bezelakoak ziran, naiz eizerako ta naiz etxea zaintzeko ta beste edozein gauzetarako. Motillak ezin zuan sifistu gertatu zitzaiona, amets bat zalakoan gelditu zan. Etxera etorri ta bere arrebari esan zion gertatu zitzaion dana, zakurrek erakutsiaz. Arrebak, Maria zuan izena.

APUSTUA

Zakur aiekin eizean ibiltzea jolasa zan, berak arrapatzen zizutzen aiek erbi, azari, azkonar eta beste pizti asko. Motillak naito dirua irabazten zuan beretzako eta bere arrebarentzako, ta biak oso lasai bizi ziran, zakur aieri esker.

Bein motilla juan zan eizera bere bi zakurrekin, oraindik beñere juan ez zan urrutiko mendi batera. An zebillela, beste gizon koxkor batekin topo egin zuan. Gizon koxkor ori lodi xamarra zan ta txakur txiki bat ere bazeramakian berekin. Izketan asi ziran bi gizonak. Gizon txiki arek arro txamarra ematen zuan, eta bere txakur txiki ura bezelakorik, ez zegola besterik munduan, esaten zuan.

—Zure zakur oiek onak izango dira, -esan zion azkenean motillari- nai al dezu zerbait jokatu, nere txakur txiki onek egingen duanik ezetz egin?.

—Ez det ezer jokatu nai, -erantzun zion motillak-, baño, nai badezu prueba bat egingo degu.

Ordun gizon koxkor arek, arro arro eginda: “Ator onera, Txiki”, ots egin zion bere txakurrari. Gero poltsikotik atera zuan aizezko pelota itxurako bat, ta eskuan artuaz, aize eman zion. Aizezko pelota ura urrutira juan zan, ikusten ez zan tokiraño.

—I, Txiki, -esan zion txakurrari- ekarri azkar pelota ura.

Txakurra laisterka izkutatu zan, ta andik denbora pixka batera azaldu zan, ortzetan pelotea zuala. Etorri ta nagusiaren oñetan jarri zuan pilota txiki ura.

—Ikusi dezu?, -esaten zion gizon koxkor arek motillari, es-

kuak igurtziaz -esa orain zure zakur aundi oiek beste orrenbeste egiteko trebe diran!

—I, Sol, -asi zan motilla zakur aietako bati esaten, gizon koxkor ari kasorik egin gabe- juan ari olako tokitako erregearen palaziora, ta an aurrena maiera ateratzen duten katillu saldea ekarri zak, tantanik bota gabe, eh!

—I, Fiel, -esan zion beste zakurrari- i ere juan ari palazio artara, ta an aurrena ateratzen dutan baso ardoa ekarri onera!

Bi zakurrek laisterka izkutatu ziran, ta motilla lurrean eserita jarri zan lasai lasai.

—Baño, -zion bitartean gizon koxkor arek- orrelakorik egingo ote dute?

—Ikusiko degu, -erantzun zion motillak, eta biak ixill ixillik gelditu ziran.

Andik alde batera etorri ziran bi zakurrak, batek katillu saldea eta besteak baso ardoa zekartzkiela.

—Barkatu, -asi zen esaten gizon koxkor ura, gorputz guzia dardar ikaraz zualanik ez nuan uste...

—Juan ziñezke emendik -esan zion motillak- ta geiago apustorik ez egin ezagutzen ez dezunarekin.

Gizon koxkor ura, etsai zaarra zan, ta berealdiko gorrotoa artu zion motillari.

Bakarrik gelditu zanean, motillak artu zuan katillu saldea, edan zuan baso ardoa ta bapo gelditu zan.

MARIA TA ETSAI ZAARRA

Aldi bat pasa zan ezer asko gertatu gabe, eguneroko bizitza egiñez. Baño etsai zaar ura ez zegon lo. Eiztaria ta bi zakurrekin ez zeukala ezer egitekorik, ta Maria iltzea erabaki zuan. Baño ez bat batean golpean, pixkanaka pixkanaka, asko sufritu eraziz.

Egun batean, eiztaria bere bi zakurrek artuta eizera juan zanean, etorri zan etsai zaarra aien etxera ta ate joka asi zan. Mariak beti ateak ondo itxita edukitzen zituan bakarrik zegonean. Anaiak esanda zeukan, iñori aterik ez zabaltzeko oso ezagunenbat ez bazan.



Eiztaria eta bi zakurrek

—Maria!, -ots egin zuan etsai zaarrak- atea zabaldu idan.

—Ez dizut zabalduko, erantzun zion onek barrundik.

—Zabaldu idan!, bestela ill egingo aut -ots egin zion etsai zaarrak, orroi batean bezela.

Maria ikaratu zan erabat, ta okerragorik gertatu ez zekion, atea zabaldu zuan.

—Orrek on egin din! -esan zion etsai zaarrak- baño nolanai ere i, ta ire anaia, biok ilko zaituztet. Ez diñ geiago nitaz parrerik egingo. Orain ekarri idan ezkerreko eskuko beatz txikia!.

—Ez dizut emango! -erantzun zion Mariak, ikaraz beteta.

—Eman idan, bestela ill egingo aut! -esan zion etsai zaarrak beregana gertatuaz. Azkenean eskua artu zion ta beatz txikia erabat txupatuta, ezur uts utzi zion.

Etsai zaarra juan zan andik berea egin zuanean, ta Maria zutik egoteko ez zala gelditu zan.

Gauean etorri zan eiztaria etxera beti bezela, ta arreba ikustean iruditu zitzaion zerbait ote zeukan, koloreak ere oso txuriak, baño, ez zuan aintzakotzat artu.

Andik egun batzuetara, etorri zan berriz etsai zaarra Mariaren billa, motilla eizean zala.

—Maria! -ots egin zuan etsai zaarrak atear joaz.

—Zer nai dezu, Jauna! -erantzun zion Mariak, ikaraz beteta.

—Ateak zabaldu, ta ekarri idan ezkerreko eskuko bigarren beatza!.

—Ez dizut emango, -esan zion Mariak, baño azkenean, etsai zaarrak ilko ez bazuan, eman bearra izan zuan. Etsai zaarrak ezur uts utzi zion bigarren beatza ere, ta alde egin zuan.

Maria aurreko aldian baño askoz okerrago gelditu zan orian-goan. Beatz bakoitzetik, bere bizitzako puska bat kentzen zion etsai zaarrak. Anaia gauean etorri zanean, aurreko aldian baño okerrago billatu zuan arreba, baño egin zuanagatik, ez zion ezer atera. Mariak ezurretaraño sartuta zeukan ikara, ta uste zuan anaia ta biak ilko zituala gizon arek, zerbait esaten bazuan.

Berriz ere etorri zan etsai zaarra ta beste aldietan bezela:

—Maria!, ekarri idan ezkerreko eskuko irugarren beatza! ots egin zion.

—Ez dizut emango! -erantzun zion Mariak, baño alperrik.

Etsai zaarra sartu zan barrura ta irugarren beatza txupatu zion Mariari, ta ezur uts utzi zion.

Beste bi beatz gelditzen zitzaion, ta aiek ere txupatu ezkeru, Maria ilda geldituko zan. Orregatik geroz ta geiago gaixotzen ari zan. Baño ala ere ez zion anaiari ezer esaten. Anaia oso kezkatua zegon Mariak zeukan itxura txarra ikusita, eta egun batzuetan ez zan eizera ere juaten. Baño ura etxean zegonean, ez zan etsai zaarra etortzen.

Beti etxean ezin egon, eta motilla atera zan egun batean mendira, baño bada ez bada ere bi zakurrek etxean utzi zituan, ta lotu gabe. Maria ikaraz gelditu zan, naiz eta zakurrek an egon.

Eizteria juan zan mendiz mendi beñere orain arte juan ez zan toki batera, ta an ikusi zuan palazio eder bat. Uraxe ondo ikusteko gogoa etorri zitzaion ta bertara juan zan. Gertuatu orduko azaldu zitzaion gizon bat, etsai zaarra zan, txakur txikiarekin apustua egin zuana, baño eiztariak ez zuan ezagutu.

—Zer zabiltz emen? -galdetu zion etsaiak eiztariari-. Nai al dezu palazio au ikusi?. Onera etortzen diran geienak ikusi nai izaten dute.

Baietz erantzun zion motillak, eta biak barrura sartu ziran. Palazio ura benetan ikusgarria zan: ango ikullu, sukalde ta beste baztarrak. Baño batez ere bazeuden amabi koarto, zeñ baño zeñ edarragoak.

Etsai zaarrak, banaka banaka erakutsi ziotzan (zizkion) motillari amabi koartoak, bata bestearen ondoren.

—Au gustatzen al zak? -galdetzen zion etsai zaarrak motillari, batetik bestera pasatzen ziran.

—Bai, bai, -erantzuten zion motillak, erdi txoratuta. Arek ez zuan olakorik, sekula ikusi.

Azkeneko koartora iritxi ziran, etsai zaarrak atea zabaldu zuan, ta bultz egiñez, motilla barrura sartu erazi zuan ta gero kanpotik atea itxi.

Koarto ura dana ildakoz beteta zegon, palazio ura ikustea sartzan ziran guziak, an iltzen zituan, etsai zaar arek.

Orregatik, motilla sartu ta atea itxi zuanean, ots egin zion motillari:

—Orain arte or sartu direnak or gelditu dituk, ta ik ere or bearko dek!.

Motilla ikaratu zan, baño ala ere, bere zakurretan pentsatuaz, erantzun zion etsai zaarrari:

Ordubeteko bizia emaidak beintzat!

—Emanda zegok!, -erantzun zion etsai zaarrak.

Motilla atera zan leiora, ta bi beatzak auan sartuaz, berealdiko abistua egin zuan, zakurrei ots egiteko.

Ordu erdi bat pasa zan, ta zakurrek ez ziren agiri. Beste ordu laurden bat pasa zan, ta zakurren arrastorik ez. Motilla larritzen asita zegoen.

—Amabost minutu palta dituk, -ots egin zion kanpotik etsai zaarrak, oraindik geiago ikaratu arazitzeke. Bost bat minutu palta zirala ordua betetzeko, motillak aitu zuan zakurren zaunka otsa. Aurrena oso urrutitik bezela, baño gero ondo ondoan. Bi zakurrek, mingaiñak aterata zetozten, kateak arrastaka zituztela.

—Ea, Sol eta Fiel, emen dagon etsai zaar au garbitzen dezuten! -ots egin zien motillak.

Bi zakurrek sartu ziran palaziora, eta arrapatu zuten orduko, txiki txiki eginda utzi zuten etsai zaar ura.

Motilla atera zan koarto artatik, berriro jaio balitz bezela. Baño oso asarre zegoen, ta bere arreba ill gabe ez zuala utziko, zakurrek lotu zitualako.

Etxera iritxi zanean, deitu zion arrebari, baño onek ez zion erantzun, oian zegoen ta oso gaizki. Ala ere motillak esan zion:

—Zer gertatzen da etxe ontan?. Ni kanpoa juaten naizen bakoitzean gaixotuta billatzen aut. Taaa... zeñiek esanda lotu ditun zakurrek?.

—Egon adi ixillik, motell, -erantzun zion arrebak- nik ez zetuak (dizkiat) lotu ta. Nik ez zekiak zeñ ibilli dan, baño or beeran ixtilu aundia izan dek gaur.

Motilla asi zan zerbait kontu artzen, baño ala ere arrebari galdetu zion oso asarre:

—Esango al didan beñ etxe ontan zer gertatzen dan?.

—Ez zeukeat esaterik, -erantzun zion arrebak- bestelaaa... biok ilko omen gatxuzak (gatxetuk).

—Zeñiek ordea?. Esaten ez ba didan, neronek ilko aut!.

Azkenean, Mariak dana kontatu zion, nola etortzen zitzaion gizon ura, nola eskatzen zion aldiko beatz bat txupatzeko, ta nola bat bakarrik palta zitzaion... Anaia ikaratuta gelditu zan arreba-

ren eskua ikusi zuanean, lau beatzak ezur uts zeuden. Orain antz eman zuan garbi motillak, zeñ zan an zebillena, ta arrebari esan zion.

—Uste diñat ez degula geiago emen ikusiko etsai zaar ura. Gure txakurrek zearo txikituta utzi diñea.

Gero arrebari kontatu zion berari zer gertatu zitzaion. Etsai zaar ura, eiztariari palazioa erakusten ari zan bitartean, Mariarengana etorri ta laugarren beatza txupa txupa eginda utzi zion, gero zakurrek ondo lotu zituan, motillarengana juan ez zitezzen; baño gaizki atera zitzaion.

Maria laister sendatu zan, ta leen bezelakoxe neska edarra gelditu zan.

ERREGAAREN SEMA ALABAK

Eiztariak bazeukan gogoia palazio edar ura ikusteko, ta batez ere, bere arrebari erakustekoa. Ainbeste aldiz itz egiten zuten artaz.

Orregatik, egun batean, bi zakurrek artu, ta mendi artara juan ziran. Baña ez ziran aiek biak bakarrik autza (ara) juan ziranak, an bazebiltzen beste anai arreba batzuek ere. Erregaren seme alabak ziran, eguna pasatzen juanda. Arrituta gelditu ziran auek, eiztariaren bi zakur edar aiek ikusi zituztenean, ta iruditu zitzaien, zakur aiek leenago ere nunbait ikusi zituztela. Erregaren seme alaba ta eizteria ta Maria, bereala asi ziran elkarrekin izketan. Lauek palaziora sartu ziran ta dana ikusi zuten.

Ildakoek zeuden koarto artara iritxi ziranean, danak ikaratuta gelditu ziran. Orduan kontatu zien an gertatu zitzaion guzia, ta nola, zakur aiei esker, bizirik atera zan. Erregaren alaba orduan kontu artu zan zakur aiek nun ikusi zituan, ta anaiari esan zion:

—Zakur auek ez al ituan gure maietik katillu saldëa ta baso ardoa eraman zituztenak?.

Eiztariak esan zien orduan zer gertatu zan, eta zer apustu egin zuan gizon koxkor batekin.

Elkarrengandik apartatzekoan, erregaren semeak eta alabak nai izan zuten beren palaziora beste aiek eramatea, baño eizta-

riak eta Mariak esan zien orduan ezetz, ez zeukatela juaterik, baño juango zirela beste egun batean.


Andik denbora alditxo batera jua ziran biak, ose ondo ar-
tuak izan ziran erregearen palazioan. Palazio ura aundia zan ta
erri edar baten gaineko aldean zegon. Eiztaria ta Maria, beren
etxean bezela ibiltzen ziran azkenerako, palazio aundi artan.

Erregearen seme eta alaba ere jua ziran eiztari ta bere arre-
baren etxera. Askotan ikusi oi ziran elkarrekin.

Denbora puska bat pasa zan, eta erregearen semea Mariare-
kin ezkondu zan. Erregearen alaba berriz, eiztariarekin. Andik
aurrera oso ondo bizi izan omen ziran.

Bi zakur aiek berriz, nai zuten bezela palazioan bizi, eta zaar
zaar eginda gero akabatu omen ziran.

Nere aita zanari entzuna.



MARI-XOR

Beñ, etxe edar batean aita eta iru alaba bizi omen ziran. Aita, alarguna zan. Lur saill aundiak zituzten, baita maasti ta morroiak ere ugari. Iru alabak, aberats bizi ziran, lanik egin bearrrik gabe. Josten, bordatzen ta askotan lur aldeak ikusten, pasatzen zuten denbora.

Iru aizpek, tekela aundiak izaten zituzten beren artean, ta aita ere sartzen zan batzuetan tekela aietan.

Beñ, bazkaltzen ari zirala, berealdiko asarrea sortu zuten, gatza zala ta ez zala. Tekela guzietan bezela, aita eta bi alaba zarrenak alde batetik jarri ziran, ta alaba gazteena bestetik. Aita edo gatza, zeñ ote zan bearrezkoagoa mundu ontan, ori zuten auzia.

—Aita oso bearrezkoa da -esaten zuan alaba gazteenak- baño, nere ustetan, gatza bearrezkoagoa. Aitarik gabe bizi liteke mundu ontan, baño, gatzik gabe ez.

—Ik ez dauken biotzik, -erantzun zioten beste bi aizpek-nola biziko giñuzken aitarik gabe?.

Aitak erabaki zuan auzia esanez:

—I, Maria, -au zan alaba gazteenaren izena- aita baño gatza bearrezkoagoa baldin baden, biar bertan jua deiken etxe ontatik, ikusiko den aitarik gabe nola bizitzen aizen.

Aita ura oso biotz gogorrekoa zan, ta naiz Mariak, negarrez barkazioa eskatu, etxetik kanpora bialdu zuan.

—Ez niñan uste aita baño gatza naiago izango oanik -esan zion aitak azkenean- geiago ez aut ikusi nai ere, nere begien aurrean.

Beste bi alabek, ontzat artu zuten, aitak egiten zuana. Aiek baño ohea ta edarra goa zan Maria, ta orregatik ezin zuten ikusi.

NESKAME

Urrungo goizean goiz goiz, soiñean zeuzkan jantziekin ta ogi puska bat poltsikoan zuala, Maria atera zan etxetik, negar ta negar; nora juan ez zekiala. Illuntze arte ez zan iñun gelditu, baño azkenean indarrrik gabe, ta gosean dana aulduta, arbola baten azpian eseri zan, negar egiteari utzi gabe.

Era ortan zegola, emakume xaar bat ondoratu zitzaion esanez:

—Zer egiten dezu emen negarrez?

—Ola ta ola... -erantzun zion Mariak- etxetik bota egin nautte, ta emakume xaar ari gertutako guzia kontatu zion.

—Ez ikaratu orregatik, -esan zion emakume xaar arek-, ikasiko dezu bai aitarik gabe bizitzen. Zoaz biar goizean, emendik gertu dagon erri ortara, galdetu an alako etxetaz, ta an artuko zaituzte neskame bezela.

Itz oiek esan ondoren, emakume xaar ura bidean aurrera juan zan. Maria ez zan oso lasai gelditu. Neskame izate ura ez zitzaion batere ona iruditu, ta negar besterik ez zuan egiten. Asko nekatuta nola zegoen, alako batean loak artu zuan, ta urrengo eguna ondo zabaldu arte ez zan esnatu.

Denbora askoan ezin egon mendi artan, eta inguruko erri artara abiatu zan. Galdezka galdezka iritxi zan emakume xaar arek esan zion etxe artara, ta bertan gelditzeko esan zioten, neskame baten bearrean zeudela ta.

Errian zan etxerik aberatsena zan, beste neskame ta morroi asko zeuden bertan. Bi alaba ta seme bat ziran etxearen jabeak ta motilla zan mayorazgoa.

Etxe ortara iritxi zanean, ez zeukan batere itxura edarra Mariak: jan gabe, eabat nekatuta, ta jantziak ere guzia bearrezkoak.

Laster eman zioten lana Mariari. Antzar saill bat bazeukaten,



Galdezka galdezka, iritxi zan Marixor, emakume xaar arek esan zion etxe artara.

ta iritxi ta urrengo egunean, aiek zaintzea bialdu zuten mendira, osin edar bat zegon tokira. Egun guzian ezer egin gabe egon ez zedin, lan bat eman zioten: Galtzatorratzak eta artillezko arie, galtzerdiak egin zitzaizkien. Alperrik esan zuan ez zekilla galtzerdirik egiten.

—Ikasi egiten den -esan, ta utzi zuten.

Neska gaixoa ez zijoan bere onean goiz artan mendi aldera, antzar sailla bere aurretik artuta. Bazkaria ere berekin eramateko eman zioten illuntze arte jetxi ez zedin. Lenengo egunean, beste neskame batek lagundu zion osiña zegon tokira arte, ta gero etxera itzuli zan, Maria bakar bakarrik antzarrak zaintzen utzita. Antzarrak ez zioten lan aundirik ematen, baño beti an egon bear, pixtirenbat etortzen bazan ere.

Bakartasun artan bere burua ikustean, Maria negarrez asi zan, batez ere bere etxean zeñi ondo ta errez bizi zan pentsatuaz. Ne-

gar egiteko beste motiboa bat ere bazeukan: berak ez zuan beñere galtzerdirik egiñ, ta zer esango zioten nagusiek etxeratzen zanean?

Orrela zegola, aurreko eguneko emakume haar ura azaldu zitzaion esanez:

—Zer egiten dezu emen negarrez?

—Ara -erantzun zion Mariak, galtzatorratzak erakusiaz, -galtzerdiak egiteko agindu didate, antzarrak zaintzen ditudan bitartean, baño nik ez dakit galtzerdiak nola egiten diran.

—Nik erakutsiko dizut -esan zion emakume haar arek.

Ta bai erakutsi ere. Illuntzerako lan guzia egiña zeukan, ta Maria, antzarrak bilduaz, etxera juan zan.

Orrela pasa zuan denbora aldi bat. Goizean mendira ta illuntzean etxera. Egoaldi ona egiten zuan arte or nunbait ibilli zan, baño egoaldi txarrak eta otzak asi ziranean, dana bustita, txuma egindea etortzen zan Maria gaixoa menditik.

Otza kentzeko eta pixka bat legortzeko, sukaldean su ondoan jartzen zan, ta an buruari azka egiñaz, zorrirenbat aura eramango bazukean bezela egiten zuan. Orrela ikustean, etxeko bi alabek eta neskameek parre egiten zioten. Berak ez entzuna egiten zuan eta zerbait gorra ote zan edo, Mari-xor deitzen asi zitzaizkion, ta andik aurrera bestela ez zioten deitzen: Mari-xor gora eta Mari-xor bera.

ERRIKO PESTAK

Erri artan, urtero iru eguneko pestak egiten zituzten, ta pestara juan ta dantza saio bat egin gabeko gazterik ez zan gelditzen.

Lenengo pesta eguna iritxi zanean, Mari-xorrek ere uste zuan bere lana zerbait arinduko ziotela egun aietan. Baño etxe artan ez zeuden ortarako. Mari-xor oraindik berria zala ta, denbora gutxi zaramakiala etxe artan etaaa... beste egunetan bezelaxe, bere antzar sailla aurretik zuala, mendira juan bear izan zuan.

Bazkal ondoren, Mari-xor antzarrereri begira zegola, betiko emakume haar ura gertuatu zitzaion esanez:

—Gaur erriko pestak eta, zertan zaude emen pestara, dantza egitera juan gabe?.

—Neretzako ez dago dantzarik -erantzun zion Mari-xorrek, burua makurtu eta begietatik negar malkoak botaaz.

—Gaur juan bear zera dantzara -asi zan emakume xaar ura esaten- zure etxeko beste guziak juango dira.

—Nola nai dezu ni dantzara juatea, -erantzun zion Mari-xorrek-. Ta antzarrak zeifiek zainduko ditu?. Ta lana zeifiek egingo du?. Gañera jantzita nagon itxura ontan, nora nai dezu ni juatea?.

—Ori dana egingo det nik -esan zion emakume arek- artu zazu ur ale au ta autsi ezazu.

Mari-xorrek artu zuan urra, ta arri baten gaiñean jarriaz, beste arri batekin autsi zuan. Urta austean, ura gauz arrigarria!, Mari-xor, burutik asi ta anketaraño, errege baten alaba baño doto-reago jantzita gelditu zan. Mari-xorrek ezin zuan siñistu bere begiak ikusten zutenik.

—Orain zoaz plazara, -esan zion emakume xaarrak- ta an, etxeko mayorazgoarekin dantza egingo dezu. Baño illuntzean etorri onera, ta iñori ez esan zeifñ zeranik.

Dana emakume arek esanda bezelaxe gertatu zan. Mari-xor plazara gertuatu orduko, begi guziak aren atzetik zijoazten. Mayorazgoa kontu artu zanean alako neska edarra plazara etorri zala, berarekin dantza egiteko artu zuan, ta beste iñori ez zion utzi nai izan-arratsalde guzian. Mayorazgoa ta Mari-xor dantzan asi ziranean, beste danak, utzi dantza egiteri, ta aieri begira egon ziran. Illuntze aldera, mayorazgoak esan zion Mari-xorri:

—Oraindik beste bi egun gelditzen dira pesta egiteko, poz aundia artuko nuke nerekin gure etxera etorriko baziña.

Mari-xorrek ez zion erantzun, baño soifñua ixildu zanean, ez nunda ez an andik izkutatu zan.

Emakume xaar arek lanak eginda zeuzkan, ta Mari-xor iritxi orduko galdetu zion:

—Ondo ibilli al zera?.

—Oh, bai, oso ondo, -erantzun zion Mari-xorrek- nik merezi baño obeto, beste jende guzia guri begira egonda.

—Orain jantzita daukazun soifñeko eder ori jaso toki izkutu batera, -esan zion emakumeak- zoaz etxera beti bezela, ta ezer gertatu ez balitz bezela ibilli.

Illundu zuanean, etorri ziran etxera mayorazgoa, bere arre-
bek eta neskameek ere bai. Ordurako an zegon Mari-xor su on-
doan, beti bezela buruari azka egiñaz.

—Aizak, aizak, -asi ziran neskaak mayorazgoari esaten- gaur
irekin dantza egin duan neske ura oan (ukan) edarra!. Baziaan gu-
re Mari-xorren antza!.

—Ixo, ixo, -esan zien mayorazgoak- Marixor bazan Maria ba-
zan, ura edarra oan beintzat.

Mayorazgoa triste xamar zegon neska eder ura berarekin etxe-
ra etorri ez zalako.

Urrango egunean ere, beti bezela, Mari-xor antzarrak zaintzea
juan bear izan zuan. Egun ortan ere azaldu zitzaion emakume
zaar ura pestara juateko esanez.

—Atzoko jantzi ura ekarri banu -erantzun zion Mari-xorrek;
bazeuken pestara juateko gogoia.

Emakumeak eman zion ur ale bat, eta Mari-xorrek autsi zua-
nean, aurreko egunean baño ere dotoreago jantzita gelditu zan.

—Gaur ere dantza egin mayorazkoarekin -esan zion emaku-
meak- ta illuntzean onera etorri, atzo bezela.

Jende guzia zai zai zegon plazan, neska eder ura noiz azal-
duko, ta ikusi zuten orduko... danak... ah, ah, aua zabaldua
gelditu ziran. Mayorazgoa iñor baño zaiago zegon, ta poz aundia
artu zuan bera ikustean. Aurreko arratsaldean bezela, biak baka-
rrik dantza egin zuten, beste guziak begira zeuzkatela.

—Gaur beintzat nere etxera etorriko zera, -esan zion mayo-
razgoak neskeari, dantza saioa bukatu zutenean. Baño Mari-xor,
motilla beste toki batera begira jarri zan momentu batean, izku-
tatu zan andik, eta antzarrak zeuden tokira juan zan.

Emakume xaarrak lanak eginda zeuzkan ta aurreko egunean
bezela esan zion Mari-xorri, soñeko ura ondo izkutatzeko.

Etxean aurreko gauean bezela gertatu zan.

—Ura bai zala neska edarra -zioten danak- bazian gure Mari-
xorren antza.

—Zaudete ixillik, -esaten zien mayorazgoak- Mari-xor bazan,
Maria bazan, ura neska edarra oan beintzat.

Mayorazgoak asko begiratzen zion su ondoan zegon Mari-
xorri, onen aurpegia ta dantzan berarekin ibilli zan neska arena,

berdiñak zirala iruditzen zitzaion. Baño oraindik beste egun bat gelditzen zan, ta denborak esango zuan.

Irugarren egunean ere juañ zan Mari-xor mendira, baño ez zitzaion burura etorri ere, aurreko eguneko jantzi aietako bat eramatea. Baño, beregana etorri oi zan emakume xaar arek bazebillen nunbait beste egitekorenbat, ta egun artan ere, aurreko bietan bezela agertuaz esan zion:

—Gaur da pesta azkeneko eguna, zoaz gaur ere, eta mayorazgoarekin dantza egin. Baño illuntzean onera etorri, zeññ zeran esan gabe. Ur alea eman zion, ta bera austean, bestetan baño ere dotoreago jantzita gelditu zan Mari-xor, dana urrez jantzita, burutik oñetaraño.

Arratsalde artan, beste egunetan baño jende geiago zegon plazan. Danak, neska edar ura noiz azalduko zai zai zeuden, ta batez ere mayorazgoa. Neskea azaldu zan orduko, danak ixillik gelditu ziran arrituta, soñujoleak ere bai, aldi batean.

—Beti mayorazgoa izan ez zedin, neska arekin dantza egingo zuana, motill bat baño geiago aurreratu ziran txanda eskatzera, baño neskeak danari ukatu zien ta mayorazgoarekin bakarrik dantza egin nai izan zuan.

Pestak bukatzen ari zirala ta, mayorazgoa larritzen asi zan, oraingoan ere beste egunetan bezela, neskeak alde egingo ote zion ezer esan gabe. Orregatik, dantza saioa bukatzera ziñoanean, neskeari eskutik eldu zion esanez:

—Gaur beintzat etorriko zera gure etxera, zein zeran esateko ta biok bat egin dezagun. —Ori esatean, mayorazgoak, atera zuan bere beatzean zaramakian erasztuna, ta neskearen beatzean sartu zuan.

Mari-xorrek mendira juañ nai zuan emakume arek esan zion bezela, baño motillak, eskutik elduta zeukan ta ez zion uzten. Etxera bidean jarri ziranean, mayorazgoari lagun batzuek inguratu zitzaizkion, ta alako neska edarrarekin dantza egiteak “bustitzea” berezi zuala ta, taberna batera sartu erazi zuten. Iñor kontu artzerako, Mari-xor izkutatu zan mendira juateko, ta mayorazgoaren asarrea aundia izan zan, neskea an ez zegola ikusi zuanean.

Gau artan iñor ez zan ezer esatea atrebitu mayorazgoaren aurrean.

MARIA EZAGUTZERA EMATEN DA

Pestak bukatu ondoren, denbora aldi bat pasatu zan, bakoitzak bere eguneroko bizitza egiten zuala. Mayorazgoa zan, bere onera etortzen ez zana. Alegiña saiatu zan, baño neska aren berririk ez zuan izan. Egunetik egunera tristetzen, eta antz emateko moduan galtzen zijoan. Alperrik esaten zioten bazeudela beste neska asko ere edarrak eta onak, baño berarentzat bat besterik ez zegon, ta bera izkutuan. Pentsatzen zuan bai, neska ura Mari-xor edo Maria izan zitekela, baño iñori ez zion pentsamentu ori agertzen, parregarri edo ta leen zegon baño okerrago geldituko ote zan bildurrez.

Mari-xorrek betiko bizitza zaramakian, antzarrak zaindu ta galtzerdiak egin. Mayorazgoa bistan ez zegonean, etxeko bi alabek eta beste neskame batek, burla ugari egiten zioten Mari-xorri, baño au ixillik egoten zan.

Arratsalde batean, antzarrak zaintzen zegola, azaldu zitzaion Mari-xorri betiko emakume xaar ura, ta esan zion:

—Onuzkero garaia da zeñ zeran esatekoa. Biar gelditu zaiz etxean aitziki batekin, ta mayorazgoak arratsaldean jaten duan opilla, egin zazu zerorrek. Opil ori egitekoñ, jarri eiozu erdi erdian, pesta azkeneko illuntzean zure beatzean sartu zizun eraztuna, ta gero ikusiko dezu zer gertatzen den.

Urrengo egunean, Mari-xor, ondo ez zegola ta, etxean gelditu zan. Beste neskame batek eraman bear izan zituan mendira antzarrak. Eguardiardean, Mari-xor sukaldera juan zan ta an zegon, bera ezin ikusi zuan neskame ura, ta juxtu juxtu, opilla egiten ari zan.

—Nai baldin baden, nik egingo diñat gaurkoatik opilla, -esan zion Mari-xorrek.

—Ik? -erantzun zion besteak- ik egindako opillik, ez da txakurrak ere ez liken jango.

—Etxean ere egiten netiñan (nizkiñan) beintzat eta -esan zien berriz Mari-xorrek- beingoagatik utzi idan neska.

—Egn zan bada! -esan zion azkenean neskameak- baño, mayorazgoaren gustokoa egiten ez baden, juan deiken etxe ontatik.

Mari-xorrek egin zuan orrea ta opilla ere bai, ta emakume xaar arek esan bezela, eraztuna sartu zion erdian.

Arratsaldean, eraman zioten mayorazgoari merindea, ta opilla jaten asi zanean: Krask... ortzetan gauza gogor bat gelditu zitzaion. Artu zuan eskuan, ta arrituta gelditu zan eraztun bat zala ikustean, ta pentsa nola jarriko zan, eraztun ura bera, bere ize-narekin zegola antz eman zionean. Bereala deitu zion neskameari:

—Zeiñek egin din opill au? -galdetu zion oni azaldu orduko.

—Barkatu beza, jauna -asi zan neskamea ikaraz- Mari-xorrek eskatu dit, gaurkoagatik berak egin nai zuala opilla taa...

—Datorrela aguro au egin duana -esan zion gogor mayorazgoak.

Laster zan Mari-xor, burua makur makur eginda, mayorazgoaren aurrean. Beste neskameari andik alde egiteko esan, ta mayorazgoak galdetu zion Mari-xorri, opilla erakutsiaz:

—Zuk egin al dezu opill au?

—Bai, jauna -erantzun zion Mari-xorrek.

—Ta zuk sartu al dezu eraztun au opillaren erdian? -galdetu zion mayorazgoak, eraztuna erakutsiaz.

—Bai jauna -erantzun zion Mari-xorrek.

—Zeiñek emanda zenduken eraztun zu?

—Berorrek sartu zidan beatzean, jauna, dantza bukatuta gero, illuntze artan.

—Ta nun dauzketzu jantzita zenduzken soñeko aiek?

—Izkutuan jasota dauzket jauna -erantzun zion Mari-xorrek zuti ezin egonik.

—Zoaz -esan zion mayorazgoak, negarrari eman ez -ta orduan zeuden bezela jantzi, ta etorri nere aurrera.

Mari-xor jua zan bere koartora, ta pozez beteta jantzi zuan urrezko soñeko eder ura. Bitartean beste neskamea an zebillen bati ta besteari esanez:

—Oraingoan, gure mayorazgoak botako din Mari-xor etxetik, izan ere, berak egin nai izan din gaur opilla.

Ez zan mayorazgoak nai bezin azkar Mari-xor bere aurrera etorri. Azkenean azaldu zan, ta mayorazgoak ain edarra ikustean, pesta egun aiek gogoan zituala, altxa zegon tokitik eta bi musu eman ziotzan (zizkion), ta gero:

—Maria! -esan zion- Nai al dezu nerekin ezkondu?.

Maria ixillik gelditu zan pixka batean, ta gero, begiak negar malkoz bustita zuezkala, erantzun zion:

—Bai, jauna.

Mayorazgoa, zer egiten zuan ez zekiela, oska asi zan bere arreba, neskame ta etxeko guzieri. Etorri ziranean, danak txoratu-ta gelditu ziran, pestetako neska ura an ikustean ta, batez ere, bera Mari-xor zala ikusi zutenean.

—Azaldu da erregiña -zion mayorazgoak- au izango da nere emaztea ta emengo etxekoandea. Ill da Mari-xor, ta izen ori ez da geiago etxe ontan aikatuko.

An zegon, Mari-xor ezin ikusi zuan neskame ura ere, bere begiak ikusten zutena ezin siñisturik. Mayorazgoak berari begiratuaz esan zion:

—I juan inteke etxe ontatik nai denan tokira, emen ez zegon geiago ire bearrik.

Ta orrela, Maria etxetik bota nai zuana, bera juan bear izan zuan.

Bereala zabaldu zan erri guzian, mayorazgoarekin pestetan dantzaz egin zuan neska eder ura azaldu zala, ta biak laister ezkonduko zirala... Erri guzian ortaz bestetaz ez zan itz egiten.

Ezkontzeko eguna izendatu zuten, ta mayorazgoak nai izan zuan, erri guziak parte artzea eztaiz aietan.

Maria biotz onekoa zan. Aspaldian barkatua zeukan bere biotzean aitak eta aizpek egin zioten gaiztakeria. Orregatik, orain, ezkontzea zijoala ta, eztaietara konbidatu zituan. Ez zan aaztu, ainbeste lagundu zion beste emakume xaar artaz ere, ta bein, azaldu zitzaionean, empeño aundiak egin ziotzan (zizkion), egun artan bere ondoan ikusi nai zukeala, esanez. Baño emakumeak erantzun zion, berak ez zeukela mundu ontako eztaiz bearrik, bere egitekoa bete zuala, ta geiago ez zitzaiola azalduko. Emakume xaar ura Ama Birjiña zan, ta esan bezela, ez zitzaiola geiago Mariari azaldu.

Eztaietako eguna, egun zoragarria izan zan. Erri guziak pes-ta egin zuan. Bakar bakarrik gauza txiki bat gertatu zan. Bazkal ondoan, Mariari bere aita gertuatu zitzaion, ta esan zion:

—Dena oso ondo egon den, bazkaria, beñere ez bezelakoa, baño zerbait palta ziñan janak.

—Zer? -galdetu zion Mariak.

—Gatza -esan zion aitak.

—Ez al zenduan bada zuk esan gatza ez zala bearrezkoa?
-erantzun zion Mariak.


Aita kontu artu zan Mariak zer esan nai zion, ta ixill ixillik,
bi musu eman ziotzan (zizkion).

Goiz artan Mariak, sukaldean zeudenari agindu zien, bere
aitari besteeri bezelakoxe bazkaria emateko, baño gatzik gabe.

Egun ura ta beste asko ere pasa ziran, ta mayorazgoak eta
Mariak, seme alaba asko izan zituzten, eta oso ondo bizi izan zi-
ran.

Ikus kontu onen laburpen bat D. Joxe Migel Barandiaranek bere Obras Com-
pletas, T. II, 294 garren orrialdean:

“Gatza ala Erregea” izenarekin.



BLANCA NIEVES

Bein bizi omen ziran senar emazte batzuek, oso aberatsak. Gizona, geienean etxetik kanpora ibilli oi zan, batez ere gerrarenbat sortzen zanean. Motill asko zeuzkan bere mendean, ta aiekin juaten zan.

Emaztea oso edarra zan, ta etxean gelditzen zan bera bakarrik, neskame batzuekin. Josten eta beste orrelako lan batzuek egiñez, pasatu oi zuan denbora, batez ere bere senarra kanpoan zebillen denbora luze aietan.

Bein, oso eguzki edarra zegon, naiz eta kanpoan elurra egon, eta emakume ura josten ari zan balkoi batean, eguzkia artuaz. Lanean ari zan, baño bere pentsamentua senarrarengan zeukan: Nola ote zebillen gizajoa gerran, negu gogor artan. Orrela ari zala, jostorratza sartu zuan beatz batean. Jostorratzak beatzeko zaiñenbat arrapatu zion nunbait, eta bereala asi zan odola gorri gorri ateratzen. Odol tanta batzuek elurretara erori ziran, ta odol gorri arek, elur txuriarekin nastuta, eguzkiak jotzen zuala, izugarrizko gauz edarra ematen zuan.

Emazte ura, aurra izateko zegon. Odola ta elurra biak nastuta, ain gauz zuri-gorri edar ura ikustean, emakumeari kontu artu gabe, atera zitzaion:

—Nik izan bear dean aurra, orrentxen edarra izango balitz!. Andik aldi batera, aurra jaio zan, neska txiki polit bat. Ama

akordatzen zan neguko ikuskizun artaz, eta: "Elurra bezin zuri", jarri zion izena, Blanka Niebes.

Zenbat eta geiago azi, orduan ta edarragoa zan Blanka Niebes. Aita eta ama, zorutzen egoten ziran berari begira.

Baño, mundu ontan beti zerbait gertatzen da, ta famili artan ere gertatu zan. Blanka Niebesek amalau-amabost urte zituan, bere ama gaitz gogor batek arrapatu zuan, ta ill egin zan. Blanka Niebesek negar asko egin zuan.

Bere aitak berriz, Blanka Niebes oraindik gaztetxoa zala etxe-ko abelera artzeko, ta ezkontzea pentsatu zuan, beste ama bat izan zezan.

Aita ezkondu zan, ta ama berria ona izan zan Blanka Niebesentzat aldi batean. Baño berriz ere aita gerrara juan, ta Blanka Niebes ta biak bakarrik gelditu ziranean, ama zaar arek, gorroto bizia artu zion Blanka Niebesi. Beti lan gogorrenak eta zikiñenak ematen ziotzan (zizkion), ta askotan jo ere egiten zuan. Izan ere ama ori sorgiñ bat zan, ta ezin zuan Blanka Niebes ikusi, bera baño edarragoa zalako.

Sorgiñ zaar orrek, ixpillu bat zeuken, ta noizean beñ, ondo jantzi ta orraztu, ta parre txiki bat egiñez jartzen zan ixpilluaren aurrean, ta galdetu oi zion:

—Ixpillutxo polit ori, ni baño edarragorik ba al dago beste bat munduan?.

—Zu edarra zera, ta oraiñ arte edarreña ziñan, -erantzun zion beñ ixpilluak- baño zurekin bizi dan Blanka Niebes, zu baño edarragoa da oraiñ.

Sorgiñ zaar ura erabat asarratu zan, ta ixpillua milla puska egin zuan, erantzun ura eman ziolako. Andik aurrera len baño lan gogorrakoak eta zikiñagoak ematen ziotzan Blanka Niebesi, ta ez zion beñ ere etxetik ateratzen uzten.

Orrela pasatu zuten denbora aldi bat, eta sorgiñ zaar ari iruditu zitzaion Blanka Niebes argaldu eta itsusitu ote zan, orregatik ixpillu berri bat erosi zuan, ta oni ere galdetu zion:

—Ixpillutxo polit ori, ni baño emakume edarragorik ba al dago beste bat munduan?.

—Zu edarra zera, -erantzun zion ixpillu onek ere-, baño zurekin bizi dan Blanka Niebes, zu baño edarragoa da.

Ama zaar arek pentsatu zuan orduan, Blanka Niebes nola edo ala ill egin bear zuala, ta beti pentsatzen zegon, nola kendu bere aurretik.

Beñ burura etorri zitzaion, urrutiko mendi aundi batera eramán, ta antxe uztea, goseak edo pixtirenbatek janda, bertan ill zedin.

Egun batean orrela itz egin zion Blanka Niebesi, goxo goxo esanez:

—Nai al dezu biar mendira juatea?

Blanka Niebes arrituta gelditu zan ori entzutean, baño ala ere erantzun zion:

—Bai, bai, oso pozik gañera!

Urrengo goiz batean, ama zaar ura ta Blanka Niebes atera ziran etxetik, ta urrutiko mendi aundi batera juan ziran. Blanka Niebesek ez zekian nun zebiltzan ere, ez zuan toki ura ezagutzen.

Ama zaar ari iruditu zitzaionean naiko urruti zeudela, esan zion Blanka Niebesi:

—Etxoin zazu emen pixka batean, berealaxe nator da.

Blanka Niebes eserita jarri zan, izan ere, oso nekatuta zegon. Aldi batean egon zan zai, baño bestea ageri ez zanean, luze irizita, oska asi zan batetik bestera ibilliaz. Laister kontu artu zan ama zaar arek zer egin zion, ta negarrez asi zan. Alegiñak egin zituan etxera itzultzeko bidea ikusten ote zuan, baño dana alpe-riak, an ez zegon bidearen arrastorik.

Sorgiñ zaar ura berriz, etxera itzuli zan laisterka.

Gaua etortzean, Blanka Niebes ikaratu zan. Beñere ez zuan etxetik kanpora gaurik egin, ta orain bera bakarrik zegon urrutiko mendi batean, neka neka eginda, ta janik gabe, ama zaar arek ez zion ogi puska bat ere utzi. Bazekian, mendian otsoak, azariak eta beste pixti batzuek gauetz ibiltzen zirala, ta orregatik arbola baten gañera igo zan, al zuan bezela... Gau guzian ez zuan begirik itxi, otsoak eta azariak berealdiko zaunkak egiten zituzten, ta bera gaixoa, ikaraz egon zan gau guzian.

Goiz aldera, pixti guziak izkutatu ta ixildu ziran, ta eguna ondo zabaldu zuanean, Blanka Niebes arbolatik jetxi zan, norabait juateko asmoan. Aldi batean ibilli zan batetik bestera, ur pixka bat edan zuan iturri batean, ta azkenean mendi tontor batera

igo zan. An beeran, zelai baten erdian, etxe txiki bat ikusi zuan, oso pollita ematen zuan.

Etxe txiki ortara iritxi zanean, makur makur eginda sartu bear izan zuan atetik. Sukaldera juan zan, ta surtan jarrita zeuden zazpi lapiko txiki. Blanka Niebes gosetuta zegon, eta eltze bakoitzetik pixka bat jan zuan. Gero ikusi zituan beste toki batean, zazpi oi, aiek ere txiki txikiak, ta nolanai eginda. Blanka Niebesek, bi edo iru oi bata bestearen ondoan jarri zituan, eta an etzan zan. Bereala loak artu zuan.

Etxe txiki ura, enano batzuenan zan. An inguruko mina batean lana egiten zuten, ta andik ateratzen zutenarekin bizi ziran. Enano oiek oso berekoiak ziran, orregatik zeukan bakoitzak bere lapikoa jana jartzeko, bere oia lo egiteko ta atxurra ere bakoitzak berea, lana egiteko.

Eguardi artan, beti bezela bazkaltzera etxera etorri ziranean, bereala kontu artu ziran, an norbait ibilli zala.

—Nere lapikotik norbaitek jandik, -zion batek.

—Neretik ere bai, -besteak.

—Nere oia ez zegok lengo tokian -ots egin zuan barrura juan zan beste batek.

Asi ziran baztar guziak ikusten, ta an billatu zuten Blanka Niebes iru oien gainean lo. Danak arrituta gelditu ziran, neska edar ura ikusi zutenean, aiek ez zuten beñere orrelakorik ikusi. Danak ixil ixillik atera ziran andik, lo zegon ura ez esnatzeko.

Blanka Niebes esnatu zanean, sukaldera juan zan, an zeuden enano guziak, lanera ere juan gabe. Blanka Niebesek esan zien ea bera neskame bezela artuko al zuten, berak etxeko lanak egingo zizkiela eta... Baietz, erantzun zioten, bazeukatela emakume baten bearra. Ta orrela, Blanka Niebes, etxe txiki artan gelditu zan. Laister ikasi zuan enano bakoitzari zer gustatzen zitzaion jateko, ta jantziek ere garbi garbi jartzen zizkien. Enanoak ere oso pozik zeuden, etxera zetozenean, beti ekartzen zioten zerbait Blanka Niebesi: batzuetan marrubiak, besteetan loreak...

Bitartean, Blanka Niebesen ama zaar ura ez zegon lasai. Askotan galdetzen zion xpilluari:

—Ixpillutxo pollit ori, ni baño emakume edarragorik ba al dago beste bat munduan?

—Zu oso edarra zera, -erantzuten zion ixpilluak- baño mendian bizi dan zure alaba Blanka Niebes, zu baño edarragoa da.

Egunetik egunera geiago asarratzen zijoan sorgiñ zaar ura, Blanka Niebes mendian iltzen ez zalako.

Egun batean ixpilluari aterazi zion Blanka Niebes nun bizi zan. Ori jakin zuanean, pentsatzen jarri zan, nola konponduko ote zan bera iltzeko.

Azkenean erabaki zuan, sagar batzuek artu ta berarengana juango zala, ta sagar aietako bati benenoa jarri, ta jan eraziko ziola. Ta baita egiñ ere!

Sagar edar batzuek erosi zituan, ta saski batean artuta, mendiz mendi, enanoak eta Blanka Niebes bizi ziran etxe txiki artara juan zan.

Blanka Niebes arrituta gelditu zan emakume ura ate ondoan ikusi zuanean, izan ere, iñor ez zan juan oi etxe artara. Baño ez zuan emakume ura ezagutu, erabat aldatuta zego-lako, beste bat ematen zuan. Ala ere ez zion, bada ez bada ere aterik zabaldu, leio batetik galdetu zion:

—Zer zabiltz emen?

—Ah...! -erantzun zion sorgiñ zaar arek- zu, olako neska polita bizi al zera emen?. Emendik pasatzean, iruditu zait sagarrrik eta ez dezutela izango mendi ontan, etaaa... bat edo beste eskeintzera etorri naiz.

—Eskerrikasko, -erantzun zion Blanka Niebesek- baño emen ez daukagu ezereen bearrik Jainkoari eskerrak. Bear bada beste tokirenbatean palta aundiagoa egingo dute.

—Ondo dago, ondo dago, -esan zion berriz sorgiñ zaar arek- baño, oneraiño etorri naizen ezkerero, sagar bat jan gabe ez zera geldituko beintzat.

Artu zuan sagar edar bat saskitik, eta erdibitu ondoren, jaten asi zan. Beste erdia Blanka Niebesi bota zion esanez:

—Jan zazu, ta ikusiko dezu, ze gozoa dagon.

Blanka Niebesek artu zuan sagar erdi ura, ta emakume ura ere jaten ari zala ikusi zuanean, berak ere jan egin zuan. Jan orduko, lurrera erori zan, luze luze. Izan ere, sorgiñ zaar arek, sagar erdi ari benenoa jarri zion, ta berak jan zuanari ez. Blanka Niebes, erori zala ikusi zuanean, laister alde egin zuan andik.

Enanoak beti bezela bazkaltzera etorri ziranean, ez zitzaien Blanka Niebes bidera atera, oitura zuan bezela. Etxeko atea ere itxita zegon, eta orrek arrituta utzi zitun. Etxera sartu ta sukaldera juan ziranean, sua itzalita zegon, ta lapikoetako jana, egosi gabe. Maia ere jartzeko zegon. Enano bakoitzak bere tokia zeukan maian, ta platera eta kutzarea ere bakoitzak bereek. Blanka Niebesek, ori dana ondo zekian, orregatik, enanoak etortzerako, gauza guziak bere tokian jarrita edukitzen zituan. Asi ziran enanoak batetik bestera etxe guzia miatzen, ta eskaillerak gora igo ziranean, an ikusi zuten Blanka Niebes lurtean luze luze etzanda, ilda. Enano guziak bere inguruan jarri ziran negarrez.

—Zer egin bear diagu orain? -esaten zuten.

Jan bear zutenik ere ez zitzaien bururatu. Aldi batean orrela egonda gero, pensatu zuten, Blanka Niebesen gorputza beera jaistea, erabat oztu ta gogortu baño leen. Blanka Niebesen gorputza, aientzako aundia zan, ta danen artean naiko lanakiñ eraman zuten eskaillera ondora. Oiek jeixten izango zituzten lanak! Baño, danen artean artu zuten, batzuk burutik, besteek besoetatik, besteek anketatik... eta orrela asi ziran poliki poliki eskaillerak jeixten. Azkeneko mailletara iristean, gorputzak iges egin zien, ta danak an erori ziran amilka. Erortzean artu zuan astindu aregatik, Blanka Niebesek jan zituan sagar puskek danak bota zituan aotik. Arnasa etorri zitzaion berriz, ta bereala begiak zabaldu zituan. Izketan asi zan, enanoeri esan zien ez ikaratzeko, ez zala ezer izan, ondoez txar bat besterik.

Egun batzuen ondoren, asi ziran berriz ere betiko bizitza egiten. Enanoak nai izaten zuten, beretakoebat etxean gelditzea, zer gerta ere, baño Blanka Niebesek ez zien uzten. Beñ ere ez zien esan, emakume zaar ura etorri zitzaionik.

Bitartean, Blanka Niebesen ama zaar ura pozik zegon. Ez zion ixpilluari galdetu ere egiten. Zertarako? Ondo zekian Blanka Niebesek artu zuan beneno ura indartsua zala, ta bera piztuko zuanik ez zala sortu.

Ala ere, denbora aldi baten ondoren, kezka bat sortu zitzaion, naiz eta Blanka Niebes ilda egon, bera baño edarragorenbat ez ote zan sortuko. Orregatik atera zuan ixpillua gordeta zeuken kuxa batetik, eta galdetu zion:

—Ixpillutxo polit ori, ni baño emakume edarragorik ba al dago beste bat munduan?

—Zu oso edarra zera, -erantzun zion ixpilluak- baño mendiko etxean bizi dan zure alaba Blanka Niebes, zu baño askoz edarragoa da.

—Ixpillu zikiña! -esan, ta ixpillu guzia txiki txiki eginda utzi zuan.

Blanca Niebesen aita gerratik etorri zanean, galdetu zuan nun zan bere alaba, baño besteak erantzun zion gaitz txar batek artu ta eraman zuala, ill egin zala. Aitak negar asko egin zuan, eta berarentzako ez zegola pozik geiago etxe artan, eta berriz ere gerrara juan zan.

Bakarrik gelditu zan bezin laister, asi zan berriz ere sorgin zaar ura, Blanka Niebes nola ilko ote zuan pentsatzen.

Aurreko aldian bezela sagarrekin ez zeukela juaterik, eta oaingoan, orrazi, orratz, ixpillu, ari, galtzerdi eta orrelako gauz batzuek artu, ta juatea pentsatu zuan. Ortarako dana aldatu zan, buruko illea ere pintatu zuan, ta mendiz mendi, Blanka Niebes bizi zan etxe txiki artara abiatu zan. Etxera iristean, atea jo zuan, ta Blanka Niebes leiora atera zan, galdetuaz:

—Zerbait nai al zenduan emen?

—Ez dakit bada, -erantzun zion besteak-, mendian galdu ta nabil, ta etxetxo au ikusi dedanean, oneraxe etorri naiz.

Biak asi ziran izketan, baño Blanka Niebesek ez zuan eza-gutu, emakume ura bere ama zaar ura zanik. Alditxo batean izketan egon ondoren, sorgiñ zaar arek esan zion Blanka Niebesi:

—Emendik juan baño leen, orraztuko dizkitzut illeak, emen iñor gutxi ibilliko da, ta ondo etorriko zaitzu noizean beñ beste norbaitek ille oiek orraztea.

Blanka Niebesek ez zuan inolare nai, baño atso zaar ura, ger-tuatu zitzaion eta illeak orrazten asi zan, orrazi edar batekin. Or-tan ari zala, orratz aundi bat atera zuan bere kolkotik, etaaa... zastaa! sartu zion Blanka Niebesi, buruaren erdi erdian. Blanka Niebes lurrera erori zan korderik gabe, ilda. Sorgiñ zaar ura igesi juan zan laisterka.

Enanoak etorri ziranean, ta Blanka Niebes lurrean ilda ikusi, batzuek besoetatik eta besteak anketatik eldu zioten eta astintzen asi ziran, oraingoan ere aurrekoan bezela esnatuko zutelakoan. Ba-

ño Blanka Niebes ez zan oraingoan esnatu. Iru edo lau egunean egon ziran enanoak, Blanka Niebes ez zutela enterratuko ta. Negar besterik ez zuten egiten. Azkenean, ezer egitekorik ez zeukate-la ikustean, an etxe inguruan zulo bat egin, eta lurra ematea pentsatu zuten. Ortarako batzuek zuloa egitera juan ziran, ta beste batzuek kristalezko kaja aundi bat egin zuten, Blanka Niebesen gorputza eramateko. Al zuten bezela sartu zuten Blanka Niebesen gorputza kaja artan, eta danen artean bizkarrean artu, ta zuloa egin zuten tokira abiatu ziran.

Enanoak orrela zijoaztela, motill gazte bat azaldu zan an, zaldi bikain baten gainean. Motilla arrituta gelditu zan, enano aiek Blanka Niebesen gorputza ezin eramanez ikusi zituanean. Jetxi zaldi gainetik eta galdetu zien:

—Zeñ da kaja ortan daramazuten ori?

—Au, -erantzun zioten enanoak- guretzat ama bat bezela zan, etxeko lanak berak egiten zigutzan (zizkigun), baño orain ill zaigu, eta lurra ematera goaz.

Motill ura gertuatu zan, eta iruditu zitzaion an barruan oso neska edar bat zegola, ta enanoeri esan zien kaja lurrera jeitxi ta zabaltzeko. Enanoak, batzuek ez zuten nai, ta besteek bai, ta orrela zebiltzela, kajea lurrera erori zitzairen ta dana autsi. Kajatik kanpora Blanka Niebesen gorputza ikusi zuanean, motill ura arrituta gelditu zan, ez zuan bere bizitza guzian aifñ emakume edarrik ezagutu. Enanoak, Blanka Niebesen gorputza ondo jarri nai izan zuten, kristal aietatik kenduaz. Batzuek eldu zioten anketa-tik, besteek burutik eta besoetatik. Burutik eldu zionak, gauza gogor bat, koskor bat bezela, ikutu zuan Blanka Niebesen buruan. Gorputza lurrean jarri zutenean, begiratu zuan koskor ura zer izan zitekean, ta orratz buru bat ikusi zuan. Atera zuan orratz ura, ta Blanka Niebesen gorputz guziak dardarizo bat bezela izan zuan. Bereala arnasa etorri zitzaion eta piztuta gelditu zan. Izan ere, orratz arek, buruko zain guziak lotuta jarri ziotzan (zizkion), eta orain askatzean, odolak korritu zuan berriz ere, ta Blanka Niebes bere onera etorri zan.

Blanka Niebes bera arrituta gelditu zan, enano ta motill aren ondoan eta etxetik kanpora egotean, izan ere ez zekian zer gertatu zitzaion.

Motill arek bereala pentsatu zuan, neska ura edarregia zala

mendi artan egoteko, ta bere etxera eramán bear zuala. Motill ura aberats baten semea zan.

Enanoak berriz, danak Blanka Niebesen ondoan zeuden, zer gertatu zitzaion galdezka, eta bizirik zegoenik ere ezin síñisturik.

Motillak, Blanka Niebesi, mendi ura utzita bere etxera eramán nai zukeala agertu zionean, enanoak asarre jarri ziran, baño Blanka Niebesek erantzun zion motillari:

—Pozik juango nintzake ni zure etxera, baño... nerekin dauden enano aukerak ere juatekotan...

Motillak, baiezkoa eman zion. Enanoak ez zuten íñola ere mendi ura utzi nai, baño, azkenean, Blanka Niebes gabe ez zira-la ondo biziko taaa... penaz bazan ere, baiezkoa eman zuten.

Andik egun batzuetara, gurdi aundi batzuekin etorri, eta Blanka Niebes, enanoak eta beste gauza guztiak artu, eta motillaren etxera eramán zituzten. Motilla bizi zan toki artan, ez zuten Blanka Niebes ezagutzen eta danak arrituta gelditu ziran, neska aren edertasuna ikustean.

Andik aldi batera, motill ura eta Blanka Niebes ezkondu egin ziran. Eztaietan jende asko zan, ta beraldiko bazkaria jarri zuten. Blanka Niebesen aita eta ama zaar ura ere an ziran. Blanka Niebesek berak agindu zuan, aiek eztaietara ekar arazitzeko. Blanka Niebesen aita eta ama zaar arek, ez zuten pentsatu ere, emakume ezkon berri ura, bere alaba izan zitekenik.

Blanka Niebesek, ordurarte ixillik gorde zuan, bere ama zaar arek nola ill nai izan zuan. Orregatik, bazkal ondoan, bere senarrari esan zion:

—Akordatzen al zera, ni lenengo aldiz ikusi ninduzunean, nola naramaten ilda, lurra ematera?. Ementxe dago gure eztaietan, neri buruan orratza sartu zirana, ta lenago ere, sagar benodun arekin ill nai izan ninduen.

—Esaidazu zeíñ dan, ta berealaxe ilko det, -erantzun zion senarrak sututa...

—Zaude pixka batean, -esan zion Blanka Niebesek- sorgiñ zaar bat da, ta kontuz ibilli bearko degu berarekin.

Gero Blanka Niebesek bere aitari deitu zion, eta zeíñ zan eza-gutzera eman zitzaion. Kontatu zion emakume zaar ura zeíñ zan, nola ill nai izan zuan beíñ baño geiagotan, ta zer egitea pentsatzen zuten oraiñ berarekin. Aita gizajoak, negar egiten zuan.

Blanka Niebes eta bere aita itzuli ziran besteek zeuden tokira, ezer ez balitz bezela, eta Blanka Niebes, atso zaar ura zegon tokira juan ta danen aurrean esan zion:

—Ezagutzen al nazu? Ni naiz Blanka Niebes, mendira eramana eta ill nai ninduzuna...

Atso zaar ura garrasika ta zalapartaka asi zan, arek ez zuala Blanka Niebesik ezagutzen ots egiten zuan... Baño, alperrikakoak izan ziran aren otsak. Danen artean lotuta jarri zuten, ta an inguruan zegon labe aundi batean su egin, ta antxe erre zuten.

Geroztik, Blanka Niebes eta bere senarra, oso ondo bizi izan ziran. Blanka Niebesen aita ere, aiekin jarri zan bizitzen. Enanoak berriz, mendian zeukaten bezelakoxe etxe txiki bat egin zitzaien soro batean, ta ango lanak egiñez, pozik bizi izan ziran.

SORGIÑA ETA AMA ALARGUNA

Bein bizi zan ama alargun bat bere semetxoarekin. Semetxo ori oraindik oso txikia zan, ta orregatik amarekin batera lo ere egiten zuan. Baño bazan denbora alditxo bat, motiko orrek oso gau txarrak pasatzen zituana ta osasuna ere galtzen ari zan. Egiten zuanagatik, amak ezin zuan asmatu zer izan ziteken.

Gau batean, ama ta motikoa biak lo zeudela, motikoa, bat batean garrasiz eta saltoka asi zan. Amari iruditu zitzaion an norbait bazebillela beren ondoan, argia piztu zuan baño, ez zuan ezer ikusi. Andik aurrera bein baño geiagotan gertatu zan ori, amak argia piztutzerako, norbait bazebillen ere, beti iges egiten zuan.

Umea asi zan egunetik egunera osasuna galtzen antz emateko moduan, ta dana txuri txuri gelditzen.

An beste auzo batean bazegon emakume zaar bat, bakar bakarrik bizi zana, iñortxok ere ez zuan ezagutzen, ez zekiten nola bizi zan eta zer egiten zuan. Batzuek sorgiña deitzen zioten.

Ama alargun arek, aitu zituan emakume sorgiñ arengatik esaten ziran gauzak, eta zerbait egiteagatik, sorgiña esaten zioten aren etxea juateko asmoa artu zuan.

Orrela, illuntze batean, zeuzkan soñekorik onenak jantzita, sorgiña edo zalako aren etxera jua zan ostatu eske. Atea jo zuan, ta emakume zaar ura atera zitzaion esanez:

—Zer nai dezu emen?

—Besterik ez bada gaur gauerako toki bat nai nuke lo egiteko, nekatuta nator ta.

—Au ez da ostatua, -erantzun zion emakume zaar arek asarre- ni bakarrik bizi naiz eta ez dauket iñorentzat tokirik!.

—Baño, urrutitik nator, -asi zan bestea erdi negarrez- emen ez det inortxo ere ezagutzen, ta besterik ez bada utzi idazu sukaldean edo lo egiten.

Orrela aldi batean izketan egon ondoren, andra zaar arek, barrura pasatzeko esan zion besteari.

Biak zerbait apaldu zuten, ta kanpotik etorri zan emakume arek esan zion besteari:

—Zu jua ziñezke oira nai badezu, nik ementxe baztar batean lo egingo det.

Andra zaar arek ez zuan ori iñola ere nai, baño azkenean, bestea berarekin atera zan. Motikoaren amak ezin zuan lorik artu. Andra zaar ura, ta sukalde artan ikusten zituan gauza asko, ez zitzaizkion batere itxura onekoak iruditzen. Bazeuden an, belarrak, animalia ezurak ta era askotako ontziak.

Gau erdi ingurua izango zan, andra zaar ura sukaldera etorri zanean. Argi bat zekarren eskuan. Ama alargun ura an zegon etzanda, baztar batean, ta zurrunka otsa atereaz jarri zan, lo baze gon bezela. Andra zaar arek begiratu zion lo ote zegon, ta begiak zabaldu ere bai, ta ori naikoa ez bazan bezela, orratz bat artu ta, arpegia ta besoak zulatu ziotzan (zizkion), baño alperrik, bestea ez zan mobitu ere. Orduan atso zaar arek esan zuan:

—Ondo nekatua etorri aiz nunbait, orrelako loa egiteko.

Gero argia utzi mai gaiñean, ta su ondora jua zan, kendu zuan su-burnia, ta azpitik lapikotxo bat atera zuan. Lapiko artan, salda lodi bat zeukan, animalia ta kristauei kendutako gantzekin egindakoa. Lapikoa mai gaiñean jarri zuan, ta bereala, soiñean zeuzkan jantzi guziak erantzi, ta dantza saio bat egin zuan. Gero berriz lapikoa artu, ta ango salda arekin gorputz guzia igurtzi zuan. Gorputz guzia igurtzitzea bukatu zuanean, jarri zuan berriz ere lapikoa su-burni azpian, ta leio ondora jua, ta esan zuan:

—Ordu bete ara, ordu bete an, eta ordu bete onera; sasi guzien gañetik eta laño guzien azpitik!.

Ori esan, eta egaka atera zan leiotik kanpora.

Baztarrean zegon ama alargun arek ori dana ikusi zuanean,



Ama alarguna jua zan leiora ta esan zuan: "Sasi guzien gañetik, eta laño guzien azpitik".

jeiki egin zan, sorgiña izkutatu zan bezaiñ laister. Erantzi zituan berak ere soñean zeuzkan jantziak, atera zuan lapikoa su-burni azpitik, eta gorputz guzia ango salda arekin igurtzi ondoren, juan zan leiora ta esan zuan:

—Ordu erdi bat ara, ordu ta erdi an, ta ordu erdi bat onera; sasi guzian azpitik eta laño guzien gaiñetik!.

Saltatu zan leiotik, ta bereala lurrera erori zan ta lurrean arrastaka juan bear izan zuan gaixoak, dana odolduta. Izan ere, sasi guzien gaiñetik eta laño guztian azpitik esateko ordez, sasi guzien azpitik eta laño guzien gaiñetik, esan zuan. Baño ala ere, ordu erdi bat baño geiago ez zuan eskatu, ta beste sorgin ura baño azkarrago iritxi zan bere etxera. Sartu zan semetxoa zegoan oira, ta zai jarri zan beste sorgin ura azalduko ote zan. Alditxo batean egon zan ta zerbaiten otsa bazala iruditu zitzaion, saltatu zan oitik, baño iñor ez zuan ikusi. Geroxago zerbait gertuatu zan oi ondora, baño katu beltz aundi bat zan ta ez sorgiña. Egon zan berriz aldi batean ixillik, ta motikoa saltoka ta negarrez asi zan. Ama zai zegon, ta ikusi zuan katu beltz aren atzaparrak umeari elduta zeudela. Artu zuan ortarako ekarrita zeuken kutxillo aundi bat etaaa... zas... moztu zion katuari eskubiko atzaparra. Katuak, miauuuu... ots aundi bat egin zuan, ta bereala izkutatu zan andik.

Motikoaren amari itzultzeko ordua iritxi zitzaion, ta leen bezelaxe arrastaka, dana arantzaz josita iritxi zan sorgiñaren etxera. Jantzi zituan erropak, eta gauza guziak lengo tokian jarri, ta bere baztarrean etzan zan.

Ordu erdi bat barru etorri zan sorgiña ere, ta lenengo egin zuan gauza, beste ura an ote zegon ikustea izan zan.

—Au ez den beintzat izan, au lo zegon, -esan zion bere buaruari-, gero artu zituan bere jantziak eta izkutatu zan andik.

Goizean biak jeiki ziranean, motikoaren amak esan zion besteari:

—Milla esker, etxekoandre eman didazun ostatuagatik. Lo oso ondo egin det, baneukan bearra ere ta...

—Bazekiñat bai lo ondo egin denala! -moztu zion besteak.

—Orain jakin nai nuke zenbat zor dizudan gaua emen pasatzeagatik -esan zion ama alargunak.

—Orregatik batere ez -erantzun zion sorgiñak.

—Ori ezin liteke, -esan zion besteak- ez naiz aberatsa, baño besterik ez bada, au artuko didazu beintzat -eta zillarrezko duro bat eskeiñi zion.

Besteak ezezkoa esaten zuan, baño azkenean ezkerreko eskua luzatu zuan.

—Nik beti eskubiko eskura eman oi det dirua, -esan zion motikoaren amak, garbi jakin nai zuan emakume zaar ura ta etxean atzaparra moztu zion katu ura, biak bat ote ziran.

Besteak azkenean erakutsi zion eskubiko beso ura, dana trapu zuriz bilduta.

—Zer gertatu zaizu esku ortan? -galdetu zion ama alargunak.

—Ara, -erantzun zion besteak-, bart uste gabea, ebaki bat egin det etaa...

—Ahhhh...! -esan zuan motikoaren amak, eta bere etxera juan zan. Orain bazekian zeñ zan bere semetxoari lo egiten uzten ez ziona. Sorgiña berriz kezkatan gelditu zan, bere etxean gaua pasatu zuan emakume ura ta eskua moztu zion ama ura, biak bat ez ote ziran.

Geiago ez omen zan motiko arengana sorgiñik azaldu.



SORGIÑA ETA EMAKUME EDAR BAT

Palazio edar batean bizi ziran senar emazte batzuek, seme alabak, eta neskame ta morroi asko. Oso aberatsak ziran, lur alde aundiak zituzten, ta gañera, naiz erritik urruti bizi, ango arazoetan ere sartzen ziran.

Egun batean juan ziran senar emazteak errira, zaldizko kotxe baten billa, ibill aldi bat egin bear zutela ta. Bero aundia egiten zuan egun artan eta, errira iristean, iturri baten ondoan gelditu ziran biak. Senarrak esan zion emazteari:

—Zu gelditu zaitez emen, iturri onen itzalean, nik zaldia ta kotxea ekarri arte.

Senarra juan zan erri barrura, ta emaztea an gelditu zan bere zai. Bitarte ortan etorri zan iturrira, an auzoko tabernako neskame bat, lurrezko pitxar bat eskuan zuala. Jarri zuan pitxarra urez betetzen, ta iturri inguruko potzuan, erraiñu edar bat ikusi zuan, emakume dotore baten aurpegia azaltzen zan erraiñu artan. Neskame arek ez zuan beste aldean zegon emakume ura ikusten, ta orregatik bere buruaren erraiñua ain edarra zala ikustean, artu pitxarra, ta milla puska egin zuan esanez:

—Ni aiñ edarra izan eta ni iturrira bialtzen!

Itzuli zan tabernara, ta nagusiari berdin esan zion:

—Ni aiñ edarra izan eta ni iturrira bialtzen! autsi det nik pitxarra, ta ez naiz geiago iturrira juango.

Neska ori beltza ta itxusia zan, baño erraiñu artan bere burua ain edarra ikustean arrotu egin zan, eta zergait iruditu zitzaion iturrira ur billa juatea. Nagusiak antz eman zion zer pentsatzen zuan, eta orregatik berriz ere iturrira juatea beartu zuan, baño oraiñgoan errara bat eman zion.

Gogo txarrez bada ere, neskamea juan zan iturrira ta an leengo erraiñu edar ura ikustean, artu errarea ta dana txikitu arte ez zan gelditu. Bitartean ez zan ixiltzen:

—Ni aiñ edarra izan ta ni iturrira bialtzen!

Tabernara itzuli ta nagusiari berdín esan zion:

—Zer uste dezu zuk? Ni aiñ edarra izan ta ni iturrira bialtzen!

Nagusia asarretu zan, baño neskame zital ura berearekin ez zuala atera bear pentsatuaz, zato-txiki bat eman, eta berriz ere iturrira bialdu zuan, oraiñgoan ez zuala beintzat autsiko, bere buruari esanaz.

Neskamea iritxi zan iturrira, ta oraindik erraiñu edar ura an ikustean, asi zan beste aldietan bezela bota-txikiarekin baztar guztiak jotzen, ixildu gabe esanez:

—Ni aiñ edarra izan ta ni iturrira bialtzen!

Bitartean, beste aldean zegon emakume ura, parreari ezin eutsirik zegon, ta eztul bat atera zitzaion, berak nai gabe.

Neskameak entzun zuan eztul ura, ta zato-txikia utzi, ta beste aldera juan zan, an zeññ ote zegon ikustera. Emakume edar ura eserita zegola ikusi zuanean, al zuen goxoena itz egiñez, galdezka asi zitzaion:

—Zer egiten dezu emen? Bakarrik al zaude?

—Nagusia errira juan zait zaldi ta kotxe billa, -erantzun zion emakumeak- bero aundia egiten duala ta, ni emen gelditu naiz itzalean, bera etorri arte.

—Asko luzatuko al du etortzen zure senarrak? -galdetu zion neskameak.

—Onuzkero laister etorriko da, -erantzun zion emakumeak.

—Nai badezu illeak orraztuko dizkitzut bitartean...

Emakumeak ez zuan iñolaz ere nai, baño neskame arek atera zuan polsillotik orrazi bat, ta aizeak banatuta zeuzkala ta, illeak orrazten asi zitzaion. Neskame zaar ura ez zan ixiltzen bitartean, galdetu ta galdetu: Zenbat seme alaba zeuzkaten, senarrak zer

oitura zeuzkan, zenbat neskame ta morroi bizi ziran etxean...
ixildu gabe. Alako batean, atera kolkoan zeramakian orratz aundi
bat, eta... zasta! sartu zion emakumeari buruaren erdi erdian.
Emakumea uso edar bat biurtu zan, ta egaka jua zan andik.

Neskameak jantzi zituan emazte aren soñekoak, ta eserita
jarri zan gizonaren zai.

Andik aldi batera au etorri zan, ta bere emazte edar aren
tokian neska zaar ura ikustean, zer esan ez zekiala gelditu zan.

—Orrenbeste denboran nun egon zera? -asi zan neskame
beltz ura esaten, al zuan obetoena beste emakume arek bezela
itz egifñez -ia etxita negon zerbait gertatu ote zaizun edooo...

—Zaldia ta kotxea beste batek zituan taaa... -erantzun zion
senarrak -baño, zuri zer gertatzen zaizu? Nik ain txuri ta edar utzi
zaitut etaa...

—Eguzkiak beltztu nau, -erantzun zion besteak -buruko miñ
aundia izan det etaaa, orrek kalte egingo zidan.

Senarrak artu zuan kotxean, ibill aldi bat egin zuten, eta gero
etxera jua ziran.

Pentsatzekoa da seme alabak eta etxeko beste guziak nola gel-
dituko ziran, ama eta etxekoandrea orrela ikustean..., baño, eguz-
kiak zoratu zuala taaa..., berriz ere bere onera etorriko zala taa...,
orrela gelditu ziran. Etxe artan ez zegon lenagoko pozik, ta batez
ere nagusia bera zan geiena kezkatua egoten zana, bere erruz
emazteari gaixotasun ura etorri zitzaioala taaa...

Iritxi zan udazkena, ta palazio inguru artara uso asko etor-
tzen asi ziran. Neskame zaar arek ezin zituan usoak ikusi, ta beti
uxatu egiten zituan.

Bazkal ondo batean, famili guzia balkoian zeudela kanpora
begira, uso edar bat gelditu zan etxe aurreko arbola baten gainean,
ta danak arrituta gelditu ziran uso ura izketan asi zanean:

—Nagusi jauna ondooo?

—Bai -erantzun zioten.

—Eta beste danak ere baiiii?

—Bai, eta zu?

—Ni ere bai -erantzun zien usoak, eta gero salto txiki ba-
tzuek egifñez: Morena beltza eta ninatxo, morena beltza eta nina-
txo -asi zan esaten ixildu gabe.

Ikus kontu zaar onen laburpen bat D. Joxe Migel Barandiaranen "Obras Com-
pletas" Tomo II, pág. 326. "Sorgin Gaizton Ipuie".

Iñork ez zekian zer esan nai zuan uso arek. Bakar bakarrik neskame zaar arek antz eman zion, beregatik ari zala, orregatik, bi besoak luzatuaz oska asi zan esanez:

—Ua ortikan, uso zikin ori!. -Ta usoa igesi juan zan.

Geiagotan ere etorri zan uso ura, ta gauza berak esaten zituan. Nagusia geroz geiago kezkatua zegon, ta pentsatzen zuan sorginkerirenbat bazegola an..., ondoan zeukan emakume ura ain zatarra ta itxusia, beste aldetik berriz, uso txuri ura, galdera aiek...

Beste beñ ere etorri zan uso txuri ura danak balkoian zeudela, ta beti bezela galdezka asi zan:

—Nagusi jauna ondooo?

—Bai

—Beste danak ere bai?

—Bai, eta zu?

—Ni ere bai, morena beltza ta ninatxo! -ta salto txikiak egiten zituan.

Neskame beltz ura asi zan, beti bezela bialdu naiean, baño usoa oraingoan nagusiaren eskuetara etorri zan.

Neskame zaarrak kendu nai izan zion eskuetatik, baño nagusia, bestaldera itzulita, usoa leguntzen asi zan. Buruan koskor txiki bat zeukela iruditu zitzaion, lumak aize emanez apartatu zituan, ta orratz baten burua zeukela iruditu zitzaion, Eldu bi beatzekin ta atera zion orratz buru-beltz ura. Orratza ateratzearekin batera, emakume edar bat jarri zitzaion bere aurrean: bere benetako emaztea.

Danak arrituta itzik gabe gelditu ziran.

—Ni naiz zure emaztea, -asi zan uso izandako emazte ura esaten, -zure zai iturri ondoan negola, etorri zitzaidan neskame beltz ori, ta illeak orratzeko aitzikiarekin sartu zidan orratz ori buruan, gero uso biurtuta gelditu naiz gaur arte.

Neskame zaar ura sorgiñ bat zan, ta bere burua larri ikustean, iges egin nai izan zuan, baño ez zioten utzi, danen artean lotuta jarri zuten.

Bereala zabaldu zan erri guzian, palazio artan gertatu zana. Urrengo goizean, ogiak erretzeko labea ondo berotu zuten, ta sorgiñ zaar ura antxe kixkali zuten.

Andik aurrera, palazio artan, danak zoratzen bizi izan ziran.

ANDRAGAI SORGIÑA

Motil batek bazeukan andragai bat, eta berarekin ateratzen zan. Andragai ori oso neska edarra zan, ta gañera iztuna ta atsegiña. Aldi batean alkarrekin ibilli ondoren, motillak erabaki zuan ezkondu egin bear zirala, baño jakin nai zuan obeto neska aren berri, bere gurasoak zein ote ziran etaaa...

Neskea, bera bakar bakarrik bizi zan etxe batean, ta motillak zerbait galdetzen zionean, beti parre txiki bat egin oi zion, beñ ere erantzun garbirik eman gabe.

Ala ere, beñ biak izketan ari zirala, neskeak sorginkeri batzuek esan zituan, ta motilla kezkatzen asi zan, berak maite zuan neska edar ura, sorgiñenbat izango ote zan.

Galdezka ibilli zan auzoko emakume batzueri, neska ura nor izan zitekean, baño iñork ez zion garbitasunik ematen. Motillak geroz geiago maite zuan neska ura, baño geroz geiago asi zan kon-tuartzen ere, neska ura ez zala erabat besteak bezelakoa. Geiago ta geiago buruan sartzen ari zitzaion neska ura sorgiñenbat izan bear zuala.

Azkenean, kezketatik ateratzeko neskeari berari galdetzea izango zala onena pentsatu zuan, ta egun batean biak izketan ari zirala, orrela galdetu zion:

—Zure gurasoak ez ote ziran sorgiñak?

—Ta ni sorgiña banitz, -erantzun zion neskeak -ezkonduko al ziñake nerekin?

—Baita sorgiña izanda ere, -esan zion motillak, begietara begiratuaz, -ezkonduko nintzake zurekin.

—Sorgiña naiz bada ni, -erantzun zion neskeak, parre txiki bat egiñez - nere aurreko guziak ere sorgiñak ziran.

Motilla ikaratuta gelditu zan, gauza ori aiñ garbi jakitean, baño oraindik obeto ezagutzearren, galdetu zion berriz neskeari:

—Nola kontuartuko nintzake ni, zu sorgiña zerala?

—Etorri zaiz biar illuntzean gure etxera, eta esango dizut.

Neska arek, bere guraso eta beste sorgiñ batzuekin itz egin nai izan zuan, motillari erantzuna ematerako. Gau erdian izan oi zituzten beren bilgurak, eta orduan erabakiko zuten motillari zer esan.

Orrela, urrengo illuntzean, motilla neskearen etxera etorri zanean, au beti beziñ alai ta itxura onekoa zegon.

—Orain esango al didazu? -galdetu zion motillak.

—Bai, -asi zan neskea -olako etxetan, gaur gauean aurra izango du ango andra gazteak. Ni an izango naiz. Zu ere juan. Aurra jaiotzen danean, ni armarma baten antzean jexiko naiz goiko abetik, aurraren buru gaiñera, nik ikutu orduko, aurra ilda geldituko da. Ortik ezagutuko dezu, ni sorgiña naizela. Gauza bat esan bear dizut: Aurra iltzen danean, iñori ez utzi ur bedeinkaturik bere burura botatzen, bestela ni ilda geldituko naiz.

Motilla geroz larriago ta estuago zegon, gauz oiek danak entzunda. Juan zan aurra jaiio bear zan etxe artara, ta ordurako an zebiltzen bat mediku billa ta besteak etxeko gauzak zuzentzen. Arrituta gelditu ziran motill arek esan zienean:

—Badakit ez dala oso gauz egokia motill bat gauz auetan sartzea, baño ni gaur gauean umea jaiotzen danean, koarto artan egon bearrean nago.


Danak pentsatu zuten motill arek izango zuala bere arrazoirenbat, eta ez zioten ukatu.

Aurra jaiio zanean, motilla an zegon zai, baño aurrari baño geiago begiratzen zion arek goiko abeari. Aurra jaiio orduko, asi zan andik beera armarma bat jeixten, ta zuzen zuzen umearen buru aldera jeitxi zan. Bereala motillak atera zuan polsikutik, ortarako eramanda zeuken ontzitxo bat, ta ur bedeinkatuaz igurtzi zituan aurraren burua ta armarmea. Alditxo bat egon zan ezer

gertatzen ote zan, ta umea ez zala ill ikusi zuanean, iñori ezer esan gabe, bere etxera jua zan.

Urrengo egunean, andragaiaren etxera jua zanean, antxe zegon au, luze luze etzanda sukaldean. Ilda zegon.

Josefa Zurutuza ama zanari entzuna.



ARALARGO TXABOLA

Bein bi lagun jua ziran Aralar mendira, arratsalde bat pasatzera. Mendian zebiltzela, txabola bat ikusi zuten, ia dana sasiak artuta. Lagun aietako batek bazekian aren berri berea zuan da, orregatik, sasiak kendu, ta giltza bat atera poltsikotik, eta zabaldu zuan.

Barruan sartu zanean, giltzea eman zion beste lagunari esanez: —Orain atea itxi zak, ni barruan utzita. Gero jua emendik, eta bota zak giltza ori itxasora, al dean urrutiena. Ni emen geldituko nok.

Lagun ura jua zan itxas ertzera, ta besteak esan bezela, an bota zuan giltzea uretara. Gero bere etxera etorri zan, ta geiago ez zan akordatu giltza artaz.

Urte batzuen buruan, jua omen zan motill ori Donostira, ta arrandegi batean zegola, giltza bat atera omen zioten arrai bati tripatik. Orduan akordatu zan motill ura, giltza bat nola bota zuan itxasora, ta bere laguna nola utzi zuan txabola baten barruan, Aralar mendian.

Arrandegiko nagusiari eskatu zion giltza ura, zer gertatu zitzaion esanez. Urrungo egunean bertan igo zan Aralar mendira, lagun aren arrastorik ote zegon. Kosta zitzaion txabola ura ikusten, dana sasiak estalita omen zegon. Al zituan bezela sasiak kendu, ta ateraño iritxi zanean, lots egin omen zion barruan zegonari.

—Bizi al aiz?

—Oraindik bai, -erantzun zion barruan zegonak.

Giltzaz atea zabaldu ta barrura sartu zanean, an ikusi omen zuan bestea, baztar batean eserita.

—Ondo egon al aiz? -esan zion sartu zanak.

Oso ondo egon zala erantzun omen zion besteak, bakar bakarrik sagu batzuek eman ziotela lan pixka bat. Belarri puntak zerbait moztuta omen zeuzkan, saguak janda.

Txabola ura itxi, ta biak errira etorri omen ziran, arratsaldeko buelta egin bazuten bezela.

LAPURREK ETA SAKRISTAUA

Garai artan, lapurrek eliz atarian bildu oi omen ziran, eta beti gaeuz, arrapatutako diruak partitzeko.

Sakristau bat juan omen zan beñ illuntzean elizara, aimariko jotzea, ta oso nekatua zegolako, loak artu omen zuan koruan. Ortxe gau erdi inguruan esnatu zanean, izketa ots aundi bat entzun zuan kalostran. Lapurrek ari ziran diruak partitzen:

—Iri ainbeste, ari beste ainbeste, ta neri orrenbeste.

Sakristau gizajoa, dana ikaratuta gelditu zan. Lapurrak berriz ixildu gabe ari ziran beren lanean:

—Iri ainbeste, ari beste ainbeste ta neri orrenbeste.

Diru guztiak partitu ondoen, xentimo bat sobratu omen zitzaien, ta ezin omen zuten asmatu zer egin berarekin. Azkenean, xentimo ura elizako animen alde ematea pentsatu omen zuten. Sartu elizara, ta xentimo ura lurrera botaa, batek ots egin omen zuan:


—Arriba los difuntos!

—Alla ban todos juntos! -entzun omen zan, ots aundian norbaitek korutik erantzuten zuala. Sakristaua izan zan ots egin zuana.

Ori entzutean, lapur guziak zalapartaka alde egin omen zuten andik, ildakoen animek beren ondoren zituztelakoan.

Sakristaua korutik jeitxi zanean, diru guziak kalostran omen zeuden, ta artu danak eta bere etxera eramane omen zituan.

Iñor ere ez omen zitzaion diru aien billa etorri.



GENTILLE TA ARTZAIA

Aralarren ba omen zan artzai bat, eta egunero jentill aundi bat etortzen omen zitzaion, txerrienzat zeuken gatzura edatea. Iñola ere ezin bialdu zuan, ta gatzurik gabe ezin utzi. Artzai giza-joa jetxi omen zan beñ Ataungo San-martiña, ta ango bikario-ari esan omen zion, zer gertatzen zitzaion. Bikarioak, pixka batean pentsatzen egon, eta galdetu omen zion:

—Beñere esan al diozu zure izenik?

—Ez jauna, -erantzun zion artzaiak.

—Baaa..., izena galdetzen badizu, esaiozu: “Neuk neuri”, dezula. Juan zaiz mendira, ta jentill ori esertzen lan arri gaiñean, jarri zazu talo-burnia, surtan ondo berotuta, ta andik aurrera ikusiko dezu zer gertatzen dan.

Jentillek oso gutxi itz egiten omen zuan, baño alare beñ artzaiari galdetu omen zion:

—Zuk nola dezu izena?

—Nik, -erantzun zion artzaiak -“Neuk neuri”.

Urrengo egunean, artzaia zai zai zegon jentilla noiz etorriko. Talo-burnia an zeuken surtan, guri guri eginda. Jentilla menditik beera zetorrela ikusi zuanean, artu talo-burnia, ta jentille eser-tzen zan arri aren gaiñean jarri zuan. Jentilla etorri ta arri gaiñean eseri zanean, laister altxatu zan, ipurdia dana erreta... Garrasiz


igo zan mendian gora. Beste jentillek aren otsak entzutean, gal-
detu zioten:

—Zeñek miñ eman dik...?

—“Neuk neuri”, “neuk neuri”, -erantzuten zuan jentill
gizajoak, eskua ipurdira eramanaz.

—Errorrek ere buruari egin badiok, ez zegok bada ezer egi-
terik, -esan zioten besteek -bestelaaa...!

Geiago ez omen zan jentill ura artzaiaren gatzura edatera
etorri.



ARDIAK ETA BELARRA

Beñ artzai batek atera zuan bere artaldea larrera, oso belar ona zegoen toki batera, ta ardieri esan zien:

—Larre ona daukazute gaur, eta naikoa jandakoan, etorri etxera.

Illuntzean etorri ziran ardiak etxera, ta nagusiak galdetu zien:

—Naikoa jan al dezute?

—Batere ez degu jan, -erantzun zioten ardiak.

—Zer bada?

—Jaten asten giñan bakoitzean: “Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago”, esaten zigun belarrak, etaaaa... egun guzian ibilli ta ibilli, ez degu ezertxo ere jan.

—Ez zerate tonto txarrak, -esan zien artzaiak -urrena ori esaten dizutenean: “Bertan goxo”, esan, eta bertan gelditu zaitzte naikoa jan arte.

Urrengo egunean juan ziran berriz ere ardiak larre toki on artara, ta belarra asi zitzaien esanez:

—Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago...

Baño oraingoan ardiak erantzuten zuten:

—Bertan goxo, bertan goxo...

Illuntze artan naikoa janda itzuli ziran etxera.

Garai artan gauza guziek zekiten izketan: belarrak, sasiak,

arbolak, eta animaliak ere bai. Bakar bakarrik goaldioak ez omen zekian. Beste gauz guziak bildu ziran goaldiori izketan erakutsi bear ziotela ta, ta erakusten asi ziranean, nola goaldiori erakutsiko, danak mutututa gelditu omen ziran. Orregatik geroztik gauz oiek danak ez dute geiago izketan egiten.

Batzuk esaten dute, oraindik ere ardiak eta belarrak itz egiten dutela alkarrekin. Ardiak larrera ateratzen diranean, belarrak esaten omen die:

—Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago...

Ardiak ibiltzen dira pixka batean batetik bestera, ta azkenean:

—Beeee, beee... -egiñez, bertan gelditzen dira.

Bee, beee... orrek... "Bertan goxo, bertan goxo", esan nai omen du.

AINGERU GUARDAKOA

Gizaldi onen asieran bazan Ataungo San Gregorion, Lauztierrekako auzoan, Aingeru guardakoa esaten ziotena motil gazte bat. Oso motill ona zan ta edozeiñi lagunduko ziona, ta orregatik esaten omen zioten Aingeru guardakoa. Gaitz txar batek arrapatu zuan motill ori, ta ill egin zan. San Gregorioko kanposantua Lauztierreka bidean dago, ta an lur eman zioten.

Auzo artan bertan, Lauztiazpiko baserrian, bizi zan beste motill gazte bat, arro xamarra ta parrandan ere gustatzen zitzaiena. Jai gau batean, ardoa dezente edanda gero. Sutegiko tabernatik atera ta, abiatu zan motill gazte ori bere etxea (Lauztiazpikoa) juateko.

Aingeru guardakoa ill berria zan, ta orregatik, beiñ Larruntza pasatu zuan ezkerre, Lauztiazpiko motill ori oska asi omen zan:

—Aingeru guardakoa baldin ba aiz, azaldu ari!

Motil orren aurretik, bazi Joan beste gizon bat, Artingo Joan Antonio, au ere sutegiko tabernatik. Biak kanposantuko ate ondo ondotik pasatu bearra zeukaten.

Aurrenetik Joan Antonio ikaratu egin omen zan garai artan alako otsak entzutean, baño kontu artu zanean beste ura zeñ zan, ixildu arazi bear zuala pentsatu omen zuan. Kanposantuko ate ondora iristean, erantzi zituan prakak eta txamarrea, alkandora ta gantzonzillo utsean geldituaz. Joan Antoniok eunezko alkandora zuri zuria zeramakian.

Igo zan ate gaiñera, ta gurutzearen atzeko aldean izkutatu zan, bestea iritxi artean.

Motill gazte ura iritxi zanean ots egiñez:

—Aingeru guardakoa baldin ba aiz azaldu ari!. Joan Antonio jarri zan gurutze gaiñean bi besoak zabal zabal zituala, ta erantzun zion:

—Zer bear diok Aingeru Guardakoari!

Motill gizajoa, itz aiek entzutean, ta izugarri ura ikustean, salto egin sasi tartetik, eta Muño aldera juan omen zan, Aingeru Guardakoaren animea atzetik zualakoan.

Joan Antonio ere naiko lanarekin juan omen zan bere etxera. Geroz jakin omen zuten, Lauztiazpiko motill ura, Urrutsu mendi aldetik buelta emanda etorri zala bere etxera. Zortzi egun baño geiago egon omen zan bere onera etorri gabe.

Nere ama zanari entzuna.

EPISTOLEA

Letzion de Epistolea tipolea apostolea,
letzion de koskolo.

Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martolo,
gaztei puska batekin amar talo jateko,
alako motillik ez dago.

Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martiña,
ollaskoak kapatzen zekiña.

Juan nintzan Dorraua ta eosi nuan beia,
ua ere argala,
neoni bezela.


Ezagutzen zenduen Dorrauko perratzailla,
artzeko guzien kobratzailla,
zor guzien ukatzailla,
Kristun Dominun Nostrum...

EPISTOLEA


=====




Letzion de epistolea tipolea apostolea, letzion de koskolo.




Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martolo, gaztai puska batekin amar talo



jateko alako motillik ez dago. Ezagutzen zenduen Amuñaiango Martina,



ollaskoak kapatzen zekifia. Juan nitzan Dorraua ta eosi nuan beia, ua



ere argala neoni bezela. Ezagutzen zenduen Dorrauko perratzaillea,



artzeko guzien kobratzaillea, zor guzien ukatzaillea, Kristum Domi -



mum nostrum.

Ergoneko Salseko baserrian, Filipe Arratibeli entzuna.

LIBURU ONTAKO ZENBAIT ITZ ETA ESAERA

- ABELERA: *situación, marcha*
ABISTUA: *txistu egin, - silbido*
AGURO: *agudo, arin - de prisa, rápido*
AIKATU: *aitatu, aipatu - mencionar, nombrar*
AIMARIKOA: *abemarikoa - angelus*
AITU: *aditu, entzun - oír*
AIZE BOLARA: *bolada - golpe de aire*
AIZU: *adi zazu - oye, oiga*
ALDI ONA: *disposición, temple*
ALDARTE ONA: *alditxo bat, aldi bat, une bat - algún tiempo*
ARRAIORI: *arraio ori, gaizto ori - malvado, desgraciado*
ARRAPATU: *ostu - robar*
ARTALE: *arto ale - grano de maíz*
ARTZAILLE: *artzeko zale - acreedor*
ASTINDU: *astin aldi - sacudida, zarandear*
ATALAI: *atalaga - tranca de puerta*
ATATEGI: *aatetegi - corral de patos*
ATEJOKA: *llamando a la puerta*
ATSEGIN: *atseden - descansar*
ATSOA: *emakume zaarra - mujer vieja, bruja*
ATZAPAR: *aztapar - zarpa, garra*
AUTZA JUAN: *ara juan, auntza juan - ir allá*
AZALDU ARI (ika): *azaldu adi - muéstrate*

AZKA EGIN: *azkurea egin* - rascarse
 AZKAR: *arin, laister* - pronto, rápido
 AZKAR: *argi, azti* - listo, vivo
 AZTI: *erne, esnai* - despierto, sagaz
 AZTORATU: *izutu, ikaratu* - turbarse, alarmarse
 BAEZPARE: *bada ez bada ere* - por si acaso
 BANATXOAN (ika): *banca*
 BAOAN GARAIA (ika): *bazan garaia* - ya era hora
 BAPO GELDITU: *ondo* - quedarse satisfecho, completo
 BAZEKIÑAT (ika): *badakit* - ya sé
 BAZEOK (ika): *bazegok, badago* - ya hay
 BAZEUKEAT (ika): *badaukat* - ya tengo
 BERALDIKO PESTAK: *aundiak* - fiestas extraordinarias
 BERE BAITAN: *berekiko* - para consigo
 BERE KASA: *de por sí, por sí mismo*
 BERE ONEAN EZ ZIJOAN: *gogo txarretik* - de mala gana, con
destemple
 BERE ONERA ETORRI: *bere baitaratu* - revivir, recuperarse, vol-
ver en sí
 BETARIK GABE: *aztirik gabe* - sin tiempo de
 BOLARA: *bolada, aldi* - época, ocasión, tiempo
 BULLA ATERA: *zarata* - alboroto, barullo
 BURRUNTZI: *burduntzi* - asador

 DARDARIZO: *dardarizu* - temblot, calambre
 DORRAU: *Torrano* (Naparroko erri txiki bat)

 EDAR: *eder* - hermoso-a, guapo
 EGINDA UTZI: *beteta utzi* - dejarle a uno colmado, hecho
 EGITEN NETIÑAN (ika): *egiten nituan*
 EGUN MORDO BAT: *sail, pilla* - mucho, montón
 EGUNA ZABALDU: *eguna argitu* - amanecer
 EGURZALE: *leñador*
 EMEN GAITUK (ika): *emen gera*
 ERDI IXILLEN: *erdi ixillean* - a media voz
 ERORRI: *erori* - tú mismo, a tí mismo
 ERRARA: *errada* - cántara de madera
 ERREGU EGIN: *erregutu* - rogar

ESNAI: *ernai, esnatu - despierto*
ESTALIA: *estalkia - tapa, cubierta*
ETXI: *etsi, aspertu - cansarse de esperar*
ETXOIN: *itxoin, itxaron, zai egon - esperar*
EZBEARRA: *ondamena - desgracia, siniestro*
EZITU BAT EMAN: *ezi - doma de ganado*
EZ NUN DA EZ AN: *(esaera) - de repente*
EZ ZEKIAT (ika): *ez dakit - no sé*
EZ ZEUKAT (ika): *ez daukat - no tengo*
EZUR UTS UTZI: *dejarle en hueso*

GARIA IO: *eo - moler*
GALTZARBEA: *galtzarpe - sobaco*
GALTZATORRATZAK: *galtzorratz - aguja de hacer medias*
GAUR NEREKIN BEARKO DEK: *hoy las tendrás que ver conmigo*
GERTUATU: *gerturatu, ondoratu - acercarse*
GOANDIOA: *goroldio - musgo*
GOGOAK EMAN: *pentsatu - darle ganas, determinar*
GOGOAK JUAN: *perder las ganas*
GORAIZ: *guraize - tijeras*
GURI GURI EGIN: *gurutu, gori - poner al rojo vivo, rusiente*
GUSTOA BETE: *gustoa egin - satisfacer*

IKARA GORRIAN: *bildurrez - de miedo, pánico*
ILLATI: *ileti - tizón*
ILLUNPETA: *illunpe - oscuridad*
IÑOR GUTXI: *casi nadie*
IRARI EGIN: *igeri - nadar*
IRAUN SUGEA: *iransuga - dragón*
ITUTE: *itogin - gotera*
IZAREA: *maindere - sábana*
IZUGARRI BAT: *mozorro - fantasma*

JAUZI ZAN: *se abalanzó, saltó*
JEITXIKO NOK: *(ika) jeitxiko naiz - ya me bajaré*
JOTA GELDITU: *jota egon - quedarse deshecho*

KALOSTRA: *pórtico, claustro*

KANA ERDI BAT: *media cana (medida)*
KONTU ARTU GABE: *oartu gabe - sin darse cuenta*
KRISTAU: *persona*

LARRIA: *azia - mayor, grande, crecido-a*
LAUKOAN JARRI ARAZI: *lau oinka egin - hacer galopar*
LO GURE: *gura - ganas de dormir*
LOKU: *luku - racimo*
LOAK ARTU: *lo artu - dormirse*
LOKATZ: *loi - barro*
LO SEKO GELDITU: *erabat - quedarse en sueño profundo*
LO TRINKO EGON: *dormido en sueño profundo*
LUKURRA: *zikoitz - avaro, tacaño*
LUZE IRITZI: *luze egin - parecerle mucho tiempo*

MAILLO: *arkaitz, aitz - roca, sierra*
MAJINABAT LAN: *asko, ugari - mucho trabajo*
MAKILKARA: *makillada - estacazo*
MARATILLA: *pasador de madera en las puertas*
MIARI: *miia - lengua*
MIATU: *aztertu - escudriñar, registrar*
MOKO ANDIK MOKO EMENDIK: *mokoka - a picotazos*

NEKA NEKA EGIN: *nekatu - cansarse, cansadísimo-a*
NERE USTETAN: *nere ustex - a mi modo de ver*
NEUK NEURI: *neronek neroni - yo a mí mismo (Ataunen ez da erabiltzen)*
NI EZ NATXOAN (ika): *ni ez noa - no voy*
NINATXO: ?
NOABAIT JUAN: *norabait, nonbaitera - ir a alguna parte*

OGOL: *ol, ool - tabla*
ONDOEZA EGIN: *ondoezik jarri - sentirse indispuerto, desmayarse*
ONDO ETORRI: *ondo konpondu - entenderse bien*
ORRATIK: *azkenean - por fin*
ONOKO ONTAN: *onako onetan, emen - aquí mismo*
ORREA EGIN: *hacer masa de harina*
ORROIA: *orru, orroa - rugido*

OZKARA: *orkada - mordisko*

PAITE: *pareta, orma - pared*

PETRAL: *zital - alevoso, canalla*

PIATU: *fidatu - fiarse*

PRANTATU: *prestatu - prepararse*

SAKON BATEAN: *sakan - en una hondonada*

SIATS: *sirats, zingira - cenagal*

SOIÑUJOLE: *soiñulari - músico, el que toca un instrumento*

SORTU: *lortu, eskuratu - conseguir, adquirir*

SURTAN: *sutan - en el fuego*

TEKELA: *ezta baida - discusión, lío*

TO EGALAK: *artu egalak - ten las alas*

TORI: *ar zazu - tenga*

TXIKI TXIKI EGIN: *txikitu, autsi - destrozar, desmenuzar*

TXIKIZIOA: *ezbearra - destrozo, exterminio*

TXUMA EGINDA: *blai - calado-a hasta los huesos*

URRITU: *gutxitu - escasear*

URTE ASKOAN: *urte askoz - durante muchos años*

UTZI DIÑEA (ika): *utzi dute - ya han dejado*

UZTEA: *uzta, uztailla - julio*

XARRI XARRI: *arin arin, laister - pronto, en seguida. Ataunen ez da erabiltzen esan-nai onekin: "ugari" bezela: Soroan garia "sarri" dago*

XOR: *narratx - desaliñado-a, sordo-a*


ZANKALATRA: *zankalatraka - a horcajadas*

ZARKIN: *zarpil - ropas viejas*

ZEA: *zera - esto*

ZETOZTEK (ika): *datozte*

ZUZTAR: *erro, sustrai, zain - raíz*



NUN ZER

Itzaurrea	9
1 - Goñiko Zalduna	15
2 - Txerri beltza	21
3 - Sorta egurra ta etsai zaarra	41
4 - Etsai zaarra ta sagarra	57
5 - Etsai zaarra ta mendiko leoia	65
6 - Morroi Azkar bat	75
7 - Perrandoren zorrak	81
8 - Lapuren leizea	91
9 - Txomin ipurdi	99
10 - Eiztaria ta bi zakurrek	105
11 - Mari-xor	115
12 - Blanca Nieves	127
13 - Sorgiña eta ama alarguna	137
14 - Sorgiña eta emakume edar bat	143
15 - Andragai sorgiña	147
16 - Aralargo txabola	151
17 - Lapurrek eta sakristana	153
18 - Jentille ta artzaia	155
19 - Neskame sorgiña	157

20 - Ardiak eta belarra	159
21 - Aingeru goardakoa	161
22 - Epistolea	163
Liburu ontako zenbait itz eta esatera	165

LIBURU ONTAKO ZENBAIT UTS

ORRIA	DIO	ESAN BEAR DU
9	uke	uka
16	aralarre	Aralarre
20	olc	il
23	gaño	baño
30	badakezula	badaukezula
33	kopeata	kopeta
34	laio jotzen	leio jotzen
38	Gezura	Gezurra
44	atera zit Zion	atera zitzaion
45	eldu arzi	eldu arazi
45	area joaz	atea joaz
45	eldu arzi	eldu arazi
45	esanatu	esnatu
47	karo bati	karro bati
48	geldi ezin nai ezda	geldi ezin egonik
50	galdetu zioni	galdetu zion:
52	a ixil	ta ixil
54	Ill al dituzu	(.....)
63	motik arek	motil arek
70	bituko	abiatuko
74	zuen don	zeuden
77	ote	ots
77	bara	beera
78	es	ez
84	emen	eman
85	dezu kontura	dezu gure kontura
85	dintzatela	diutzatela
89	giziak	guziak
96	ikarri	ekarri
101	Bereata	Bereala
101	guar	gaur
107	esa	ea
109	gertatuaz	gertuatuaz
110	zitzaion	zitzaizkion
116	gosean	goseak
116	eabat	erabat
118	motiboa bat	motibo bat
122	Egn	Egin
144	zergait	zerbait
155	lan	dan